

PEDROTXO

MARTIN UGALDE



ELEBERRIA · ELKAR

todakoleccion.net

PEDROTXO

Martin Ugalde

Elkar

Bildumaren diseinua: J. Felix Igartua/Pilar Litago

Azaleko argazkia: Henri CARTIER-BRESSON

Azalbarneko argazkia: Ander GILLENEA

© Martin Ugalde Orradre

© ELKAR, S.L. Donostia. 1995

L.G. NA-1929/1995

ISBN 84-7917-561-3

ELKAR S.L. Argitaletxea

Igarabidea, 88-bis - Tel. 310267 - Fax. 310216

20009 Donostia

Pannecau, 52 - Tel. 59254390

64100 Baiona

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L., Tafallarako bidea 1. km - LIZARRA (Nafarroa)

*Itxaso eta Fitoren bidetik
heldu zaizkigun
Nikola eta Garazi
lehen ilobei,
euskara maita dezaten*

Argazki zahar mugituak

Inoiz narratibazko lanik idatzi edo aztertu duen edonork badaki egileak ez duela sekula hutsetik sortzen, beti baliatzen dituela bere esperientziak, inguruan sumatu dituenak, han-hemen kontatu dizkietenak, noizbait irakurri dituenak... Horiek denak hartu, eltze handi batean sartu, bor-bor irakiten eduki eta, irudimenaren ezinbesteko legamiarekin, opil guztiz berria emango digu idazleak, aurreko ezeren antzik izango ez duena.

Halako zerbait zegoen Martin Ugalderen aurreko eleberrian ere: Itzulera baten historia Ana Mari emaztearen eta honen familia osoaren historia da, neurri handi batean: Venezuelako erbestea, Santurtziko amona eta izebak, Lezo Urreiztieta pirata abertzalea...

Eleberri hau irakurtzean, berriz, Andoaingo argazki zaharrak ikusmiratzen ari garela irudituko zaigu tarteka, hor ageri baitira garai bateko lekuak eta izenak, etxeak eta jendeak. Argazkiak, ordea, mugitu egiten zaizkigu, dantzan hasi, zineman bageunde bezala, eta irudi bizi horiek kontakizun hunkigarri bat osatzen dute: Pedrotxo.

Martin Ugalderen bizitza eta Euskal Herriaren historia pixka bat ezagutzen dituenak erraz asko antzemango die nobela honetako erreferentziei, ereduak antzaldaturik azaldu arren. Egilearen benetako bizitzarekin ageriko loturarik edo urrutiko zerikusirik noiz dagoen eta noiz ez axola gutxiko kontua da obra baten baliorako, baina zertzelada batzuk ematea komeni da, irakurleak ez ditzan errazegi autobiografikotzat jo bertako zenbait ezaugarri.

Istoria 1948-50 inguruan gertatzen da, gerraosteko Andoainen. Martin ordurako Venezuelara joana zen, Caracasen elkartu baitzen familia osoa hamar urte luzeko sakabanaketaren ondoren. Ezagutu zituen halere Martinek, baita pairatu ere, gerra amaitu berritan irabazle frankistek familia abertzaleekin erabili zituzten harrokeria eta gaiztakeria.

Liburu bat lehen pertsonan idatzita dagoen guztietan bezala, joera handia du irakurleak protagonista-kontatzailea idazlearekin identifikatzeko. Martin ez da Pedrotxo ordea. 1921ean jaioa da Martin, 1933an Pedrotxo. Bestalde, gure Pedrotxo gizajo bat da, inuzente hutsa, on puska; Martinen bihotz-zabaltasunaren berri ere badaki ezagutu duen edonork, baina ez dugu batere ergela horregatik. Protagonistaren izaera tajutzeko Hernaniko bere osaba batean oinarritu zela kontatu zidan Martinek, hura ere batere maliziarik gabea izaki. "Biologikoki ni neu izan nintekeen", erantsi zidan.

Euskal kultura sotana jazten zen garai batean jaioa eta hazia, Ugalde bere belaunaldiko idazle laiko bakarrenetakoa izan da, beti apaizez inguratua, eta hala ere erlijiosoekiko errespetu eta maitasun handia izan duena, euskal eliza zapalduarekin batez ere. Horren erakusgarri bikaina da obra honen lehen edizioan –Euskaltzaindiak saritu ostean BBK-k argitaratu zion hartan– paratu zuen eskaintza.

Gerratean eta gerrondoan
urte luze-beltzetan
jarazpen gaiztoa, espetxe, fusilamendu eta desterrua
sufritu zuen Euskal Herriko elizari.

Liburu honetako apaiza ere, don Martxel, apaiz zigortua da, argi esaten ez bazaigu ere abertzale izateagatik errepresaliatua, eta don Manuel Lekuona zena dakarkio bat-batean irakurleri burura: hura ere zigortuta Calahorrara bidalia, eta handik urte batzuetara Andoaina etorria, Arregitarren etxera. Alabaina, Ugaldek eta Lekuonak ez zuten Andoainen topo egin eta ez zuten elkarren berri ere 1940ko hamarkada hartan, Martinek ez baitzuen don Manuel ezagutu 1969an Hondarribira etorri zen arte. Euskara batuaren inguruko eztabaida pil-pilean zegoen garai hartan: Lekuona euskaltzainburua bakezkoak egin nahian baina azken batean h-aren kontra; Ugalde iritsi berria batzuen nahiz besteen iritziak aditu eta Zeruko Argia-n jasotzen, eta azkenean batasunaren alde.

Nobelan ageri diren pertsonaiez ari gara hizketan. Inportantea da Joxe Arretxe ere, agure maitagarri eta xeble xamarra, Martinen haurtzaroko benetako andoaindar batengan oinarritua. Hala ere, eleberriko benetako motorea, agertzen ez den pertsonaia da: aita, Pedrotxoren aita Peli, zinegotzi jeltzale zena, gerran galdua eta denek hiltzat jotzen dutena. Pedrotxok ordea tranbean ikusi uste du, ikusi eta galdu, eta gero aita ikusi zuela aditzen edo ulertzen dio norbaiti; eta beti aita ikusteko esperantza horrekin, aita aurkitu eta familia berriz elkartzeko antsia eta behar handi horrekin. Sentimendu hori bene-benetakoa izan zen Martinengan, hiru aldiz jo baitzuten galdutzat aita gerrako eta gerraosteko urte ilun haietan. Aitaren bila jardungo du Pedrotxok ere, eta bilaketa horrek ematen dio eleberritari bizkar hezurra.

Estanpaz ostatutako nobela duzu hau, irakurle. Argazki zahar eta apalak, gris edo sepia kolorekoak. Zenbaitetan oroitzapenen dardarizoarekin mugituak. Beste batzuetan, berriz, mugimendua areagotu egiten da, ekintza bihurtu, eta gertakari horiek jitoan darabilte Pedrotxo koittadua, Pedrotxo inozo eta errukarria.

Garai tristea izan zen frankismo gordinenaren pekoa Euskal Herrian, eta halakoxe tristura dario nobela honi ere. Tristura sakona, eta gerra guztietako biktima errugabeenak diren haurrenganako erruki handia, maitasun handia isurtzeko gauza den bihotz batek bakarrik senti dezakeen bezalakoa. Erruki eta bihozberatasunetik harago, berriz, justiziaren egarriak ematen duen elkertasuna, gerra galdu arren bere ideiei uko egin ez dienak dakien duintasuna.

Xabier Mendiguren Elizegi
Beasainen, 1995eko azaroaren 30ean

Txapelaren ertzetik begira

Uda zen eta Ama Birjina eguna.

Tolosako tranbetik Donostiako mundura irten zain nengoen.

Urduri, estranjerian denok sentitzen garen bezala, badakizu, dena suertatzen zaizu lehen aldiko hamabi urterekin estrainio. Egin nuen bada, bidaia honetara abiatzeko egun hartan ohetik jaikitzerakoan bertan Joxe Arretzek irakatsi bezala, lurrarekin lehen ukipena eskuineko oinaz, eta gero beste puntuak, a!, a!... denak, hamahiruak, banan bana, agindu bezala. Atzeraka eta aurreraka, orain irudimenarekin egiaztatu berri ditudan legez... Halere hain nengoen nerbiotsu eta erne, eskuinetik iritsi zitzaigun tranbeari sentitu nion balaztaren azken igurtzi fin hura nire belarri zuloetan sortu balitz bezala!, eta bitartean nire begiak ez zeuden lo, jaisteko instante hartan bertan ikusi bainuen aurrez aurre neukan kaskazuritzen hasitako gizon hark egindako keinu zoro hura!, eta begiz zeharka markatzen ninduen ilaratik jarrai eta bidez kontrako tranbe zuri donostiar baten bestaldera pasa zen!... behingoan!, tximistak jota bezala desagertu zitzaidan... Hara!, aita duk!, esan nuen niretzat, mihia geldi, eta hala ere tranbera igotzeko prest zeuden ilarakoak jarri zitzaizkidan begira nabarmen... Orduan nik neuk ere segida utzi eta bi pausotan beste tranbea hartzeko aldean aurkitu nintzen orain, eta alferrik halere, lurrindu zen aita!, eta honen ordezkaz osatutako ilara laburrarekin egin nuen topo; honaino abiadan etorri nintzenez gero, atzetik hirugarren jarri nintzen eta atzeraka pausoak emanaz mugitu nintzen, nahikoa aldrebes!, eta orain irteten ari zen niri zegokidan tranbean zihoan lasai eserita..., egin nion keinu, baina han zihoan ni ikusi ez banindu bezala bere aurrean eserita zuen ilegorri baten kokotari begira, urduri bera ere!, eta ni tranbearen atzetik abiatu nintzen oinez, segitu egin nion hamar pauso azkar emanaz tranbe hori-gorriari, Tolosarantz, baina nire abiada handia bazen ere tranbearen kontrako nire trabesa galdua zegoela eta bere atzetik jarraitzea ez zitzaidan ongi iruditu...

"Balastrain" kobradorea ikusi nuen aho zabalik urruntzen.

Ni, neroni, lehertarazi ninduen honek guztiak! Eta pauso patxadatsuz geltokitik at irten nintzen, norabait joango banintz bezala jarraitu nuen; baina ni egiatan noraezean... buruko iparrorratza apurtuta geratu balitzait bezala...

Aita zen!; ezagutu banindu sikan... Nola?! Nik bai bera... Txapelaren ordezkaz bisera bazeraman ere!

Hau da, beraz, bere maskara...

Norbaitek esan zidan gero: "Hi...", nik ez nuen ezagutzen, eta konfidantza harekin jarraitu zuen nirekin hitz egiten halere!; "...hire aita ez al zen ba hil?..." Nik baietz, buruaz, hil egin zutela esatera ez nintzen ausartu... "Ba, joan den astean ikusi nian Bulebarrean"... Eta nire harriduraren aurrean maltzurki erantsi zion esandakoari... "Peli ez bazen, bere bikia... Ba al zuen anaia bikirik?..." Nik, ezetz buruko keinuz, lehertua nengoen!, eta hark berriz ere: "Ba Peli zuan... Ni Bretxa alderantz, eta justu haren txapela ikusi nian bidea gurutzatzen, di-da!, pauso bizkor harekin, ia korrika abiatzeko kinkan, baina beti bere hartan, pausoka, lasai"...

Eta gero gizonak: "Ja!", eta alde egin zidan; bestela, zerbait galdetuko nion apika...
Gertatzen dena da denek txapel bera ezagutzen dugula.

Ni haurra nintzela desagertu zen frentean, eta gero gorpurik agertu ez... Nire amak jaso zuen lekukotasun bakarra zera izan zen, gure auzoan bizi zen nire aitaren lagun batek kontrarioaren tanke batetik ikusi zuela, arerioaren beste tanketik, Bilboko erretiradan ihesi zihoazen hartan nola gure aita malkar batetik gora korrika bizian, dida!, eta ezkerreko tankeko gidariak fusilarekin zihoan gazte bati pasatzen utzi eta esku hutsik zihoan Peli, aita!, tiroz bota zuela... ikusi ere egin zuela seko erortzen, bere txapela oraindik kopetan zutitxo zuela. Eta hila ez zen gehiago inon agertu, ospitaletan, burrukaldi hartako zaurituak eta gorpuak biltzen eta hauek sakana multzoka betetzen ari ziren hartan; noizbait gero desehortzi zituztenean han zen herriko bat, ez dut esango nor, amak ez esateko esan zidalako..., eta ez zen agertu.

Txapelaz gogoratzen dira bere lagunak oraindik.

Nik neuk ez dut txapel beharrik atzetik somatzen dudan norbaiti aitaren tankera hartzeko. Badira bederatzi urte paseak Bilbo erori bezpera hartan hau gertatu zela, ni haurra oraindik, baina txapelik gabe ere ezagutuko nuke!

Ni ez nau bixera txoro batek engainatzen.

Bere hartan eutsi nion tranbearen geltokian zain berriz itzulirako, hain geratu nintzen nekez lehertuta, eta Donostiarik ikusi ere gabe, hondartzara hurbildu ere gabe, itsasorik baduen ziurtatu gabe, ezer gabe, bueltarako nuen dirua berriz kontatu, justu bainuen honetarako nire sudurzapian ondo korapilatuta, eta etxera, Etxe Handira noa itzulian. Nahikoa dut gaurkoz.

Orain aita bizi den proba badut neronek!

Etxe handia

"Etxe Handia", askotan entzuna nuen. Lehen aldiz, ama zenari. Gogoan dut nolatan, zeren eta ni bere eskutik nindoan, zuhaitzez inguratutako bide zabal eder batetik; ez biok bakarrik, baizik eta beste eskutik, amaren eskuinetik, buruan txapel gorria zeraman andre batekin gindoazen hirurok ez dakit nora, eta ama negarrez hasi zenean altxa zuen ahotsa minez beterik, esanaz: "Etxe Handira ez!"... bi aldiz; gogoan ditut biak.

Gu Bilboko gerratik etorri berriak.

Nik lau urte, beraz.

Gero, Ospitalean bertan entzun nuen han-hemenka gauza bera, gehienetan haserreak jota edo isilka esana. Baina ez nion esanari zentzurik hartzen... Behin, ni kalean nenbilela, oraindik bizi zen ama, eta Kaletxikin beste haur batekin jolasean, deitu zidan andre batek: "Pedrotxo!"; amatxoren laguna zen, eta beste emakume batekin hizketan, esan zion nire aurrean: "Orain Etxe Handian bizi dira ama eta biak"... Nik banituen zazpi urte, komunio txikia egin berria nintzen parrokian, eta andre hura eta laguna bertan behera utzi eta amatxogana jo nuen arineketan "Etxe Handia" non zegoen galdetzera; ama dagoeneko ohean zegoen gaixo, eta esan zidan Ospitalari deitzen ziotela hala, jende asko bizi zelako.

Ni lagunagana itzuli nintzen, eta bidean negarrak eman zidan, beti izan bainaiz minbera, eta malkoak xurgatu eta esan nion ama eta biok "Etxe Handian" bizi ginela. Hark, berriz, berea altuagoa zela, lau bizitza zituelako, eta hark aita ere bazuela eta nik ez. Eta egia zenez gero, isildu egin nintzen, baina ez nintzen berarekin kaniketan jostatzen geratu. Hauek ere denak bereak ziren eta...

Ama dagoeneko goiko bizitzako gelatxora igoa zuten.

Bakarrik zegoen botika usain hartaz inguratua, eta gaumahai ondoan zegoen aulkian eseri nintzaion ezer esan gabe. Galde egin zidan, zer nuen, eta esan nion ea zergatik ez zidaten berarekin lo egiten uzten, ea zergatik jarri zuten han bakarrik, ea hilko zen.

Amak ezetz, sendatzeko igo zutela.

Nik ulertu nuen hori, bai.

Baina banekien, bestalde, aita gerratik itzuli izan bazen beste nonbaiten biziko ginela, amatxok berak erakutsi baitzidan behin gerra aurretik non bizi ginen, tranbeko zentralaren aurre-aurrean, ibaiaren ondoan, nik haurtzaroko gogoetak gordeta nituen urrutiko aparte batean... Mojek oso ondo zaintzen zuten ama, baina hil egin zitzaidan.

Negar luzeak egin ditut amatxo galdu nuelako, noski, baina niri zer gertatuko zitzaidan ez nekielako ere bai... Etorri ziren aitaren lagun batzuk ni bereganatzeko asmotan, haiekin ongi egongo nintzela. Baina nik esan nien mojei hasieratik, ez nuela etxetik kanpora inora joan nahi, amatxo bezala nintzela ni ere hangoa. Eta gezurtxo bat ere esan nuen haietako andre batek eskutik hartuta indarka eraman nahi izan ninduenean: amari agindu niola berari zerbait gertatzen bazitzaion bizitzera beste inongo etxera ez joateko.

Aitatxo itzuli artean behintzat!

Eta asmatu egin nuen, hor bertan utzi ninduten denek bakean.
Urte luzeak pasa dira harrezkero.

Joxe Arretxe

Nik errespetu handia nion Joxe Arretxeri.

Ospitaleko zaharrek, eta mojek berek ere, halako begirune berezia ziotela nabari zen. Denek zerbait zor baliote bezala. Goxo hitz egiten zioten, eta honek, Joxek, hitz gutxiko modu aparta zuen jendeari erantzuteko. Askotan irribarretxo batekin isilik geratzeko. Ni nintzen Etxe Handian gaztetxo bakarra; babes errukitsu hartan geundela amatxo galdu nuelako, eta estrainioa egiten zitzaion nonbait ni, kimatxo berria, hainbeste zarbasta iharren artean ikustea.

Bestalde, distantzia handiak ziren gu bion artean; ez genuen mahaiko inguru berean jaten, eta nik mirespen handiz ikusten banuen ere, otorduez kanpo ez zen erraz harrapatzeko gizona; irten egiten zen!

Ez zuen beste alfer-baldar askoren antzik!

Goiz batean, eskolara joan ez nintzen batean, bere atzetik irten nintzen. Astiro-astiro jarraitu nion, bien arteko tarte bat utzita; ikusi banindu, gaizki ere pentsatuko zuen hark, eta haserretu, seguraski!; egia esan, haren antzeko izan nahi nuen zahartzaroan, Joxe zen nire modeloa; monagilo, Joxe izan zen bezala, banintzen dagoeneko, oraindik Joxek bezala latinak esaten ez banekien ere. Apaiz izatea ez zuen honek lortu, hau pobreentzat ezina zen, noski!, behin mojen nagusiak, sor Luziak, aitortu zidan bezala; eta moja, gutxiago!!, ja, ja!... Eta banindoan bere atzetik, mantso-mantso, pausoak oso kontuz ematen baitzituen Joxek, banan bana; ondo pentsatuta, esan nahi dut, eta beti makila aurretik, itsuek egiten duten modura, baina dotoreago; beti behera begira, beheko; hala zen bera; eta handitasun pobre hura dena goiko txapel handi eskuztatutik behera, alkandora lepoa itxita, jaka ederra izan zena egoki lotua, eta galtzek bere zapaten gainean oso tolestura polita egiten ziotela... Oso kurioski atondua joaten zen beti. Zabarkeria bat kontrako bazuen ere: bizarra zuen oso gutxitan mozten; mojek ere aurpegiatzen zioten egia borobila zen alferkeria hau! Nik pentsatu izan nuen orduan behin baino gehiagotan zabarkeria honetaz, eta barkatu egin nion hau, zeren eta pentsatzen nuen hori ere dotoretasun bat gordetzeagatik egiten zuela...

Geratu zen Joxe Arretxe Maximinoren taberna aurrean, eskuineko eskua txapeleraino jaso zuen eta, gudariak ohi duten modura, aldi batean, egin zuen itzuli laurdena, burua altxa eta esan zuen orduan (entzun nion!) "Egun on" jendartera bezala, eta geldi geratu zen taberna barrura begira; niretzat barrualdea ilun geratzen zen.

Joxe, higitzeke, panpina balitz bezala.

Geratu nintzen aurrez aurre zegoen errotako espaloian, eserita, artirinaren usain gozoa aidean, eta han ikusten dut, kalea tarteko, tabernaria kikara bat kaferekin irteten; Joxek burua jaitsi zuen eskerrak gizabidetsu emateko, eta kafea patxadan hartu zuenean, berriro... orain belauniko erdia eginez, ez gehiago, aldare aurrean bezala, agurtu zituen tabernaria eta berarekin irten ziren bezeroak, hauek barrezka, eta bide beretik ezkerretara itzulia egin eta han doa oraindik mantsoago "Bonboneneko" etxearen aurrean hasten den malda igotzen...

Harrituta nengoen.

Ni atzetik beti, noski, Joxeren ikusmena nahiko kaxkarra zegoen ordurako, baina ongi entzuten zuen, zeren eta, malda erdian zihoala elizako erlojuak hamar tanto jo zituenean, geratu eta makilarekin lurra hamar aldiz jo zuen, alabarderoen modura, konpas justuan, eta abiatu zen berriz goardiazbilen koartel azpitik elizaurreko plaza erdiraino, hemen gelditu, eskuinera jira, Aitaren egin, gero bi alditan ezkerrera, eta inork deitzen ez zionez gero, jarraitu egin zuen Elizondoko tabernatik aurrera; bost pausora zeukan iturriko ur garbitik txurrut bat egin ("hau kalderarako") eta kontsejupean pelotan zebiltzan "Ederra", "Xope", Sakristaua, alprojoideei kasurik egin gabe, ilea hartzea besterik ez bailetorkioke hortik!, eta Arreseko taberna, Tronpoleon goxodendatik barrena hor doa malda behera orain, beti mantso, elegante, "Ondartza"ko baserritik behera, "Txistoki"tik datorren tranbearen zaratak arduratzen duen arte, eta geldi, "kieto parau", makina zaratatsu hura pasatzen den artean, eta Basteroko taberna eta Juanito barberuaren atetik Kantoi zahar eta berria, Toloxaren eskola (nire piperra!) atzean utzi eta gero eta bizkorrago, halere martxa apalean, kinkaileriatic, Txurreroanetik, Kantoi berriko kandela usainetik, Malintxuri, Estanku, Arregiren harategi eta Kooperatibatic barrena Leitzarango zubia iragan eta berehala egiten du ezkerralderako biratxo, txapela errespeto handiz kendu, buruarekin agur luze bat, elizatxoan beti errespetu horren zain dagoen Gurutze Santuari isilkako zerbait esan eta gero lehen egin duena desegin eta ttpa-ttpa indarberritu balitz bezala Alonsoneko malbabiskoko karameluak ahoan espiritualki urtzen zaizkiola, Germana txikiaren jostailudenda eta zapategi eta Axentxioneko goxodendatik aurrera, Olajaunanetik aurreraxeago (atea itxia dago eta seguraski Joxemari ibaiatz bestaldeko baratzan ari delako) Mairidiko denda, eta aurrean daukan etengabeko ura dariola oraindik bizi den iturri ederrean beste tragotxo bat edan ("horrek ez du inor moxkortzen eta"), gero Gipuzkoako Banketxetik ("sosik gabe oraindik") pasa, eta Jexuxen Bodega eta Estanix barberuaren aurreko gasolinera pasatzera zihoala, deitzen dio honek; txantxetan sarri hitz egiten dionari kasu egin behar eta gelditzen du martxa...

Ni, beti atzetik, Barberia osoa Joxeri hurbiltzen zaionean; esertzen naiz Artolaneko dendaren eskaileran eta ikusten dut sekula pentsatuko ez nuen Joxe Arretxek montatutako zirkua, dena eguzki ederretan:

Joxe Arretxe korruaren erdian, eta Estanix da galdera zaharra jaurtikitzen diona ("ezkerrez, ezkerti baita").

"Urrutitik hator"...

Joxe, behetik gora begira jartzen zaio, maltzurki:

"Bai".

"Baina hi ez haiz nekatzen, gazte hago eta; egin ezak trenarena"...

Joxe isilik, eta beti gora begira; Estanix altua baitzen, eta Joxe, txikia, eta ordurako nahikoa makurtua...

"Egin ezak trenarena, ez hadi haserretu!"...

Joxek, gora begira, eskuineko eskutik makila ezkerrekora pasa, eta libre geratzen zitzaiona zabalik luzatu zion.

"Xoxa behar al duk horretarako?", eta Estanixek jartzen dio eskunaban bost xentimokoa.

Ikusle taldea, zain.

Joxe geldi, eta esaten dio:

"Handia".

"Garestitzen hasi al haiz?"

Joxeren irribarre maltzurra inguru guztiari:

"Bai".

Ingurukoak barrez, Joxe serio; eta barregileetako batek jartzen dio beste bost xentimokoa... eta bi sos txikiak eskuan ikusi bezain laster, automatikoki!, hasten da, makila besapean duela, aurrerantz zapatak txirristaka mugitzen:

"Fi-fa, fi-fa... kendu, harrapatuko zaituztet eta", eta egiten diote bidea barre-algaraz denek, eta Joxe serio: "fi-fa, fi-fa", aurreraka, eta gero atzeraka hasten da: "fa-fi, fa-fi"...

"Orain geratu hadi"... dio Estanixek.

"Fa-fa-faaa...", frenatzen du Joxek, eta eskuan zeramatzan sosak jakako patrikara; eta berriz geldi, Estanixi gorantz begira, irriz-mirriz.

"Beti gazte hi, zenbat urte dituk?"..., dio honek. Joxek berriz eskuina luzatu, eta mutu.

"Berriz sosa?!"...

Joxek, baietz buruz, eta zain.

Ni, dagoeneko ikusleen artean, eta txundituta!

Bizartegia hustu eta denak Joxeren inguruan barrez. Baina barregarrik ez!, Joxe duintasun osoz ikuskizunean agintzen... Eta norbaitek sosa, oraingoan handia, hamar xentimokoa, eskuan jarri eta berehala, hasten da abesten:

"Hogei urte!", eta erretolika luze baten ondoren, amaiera, ahalegin handiarekin ongi ikasia: "qui tecum vivit et regnat in unitate Spiritus Santi, Deus, per omnia secula seculorum. Amen!"...

"Hori zer duk, latina?"

"Rusoa".

Barre-algara artean, Estanixek esaten dio ohizko itxura-plantako harridurarekin:

"Rusoa?, gezurra... Eta hogei urte!, Ez duk posible, joan den astean 'hogeita bi' aitortu hituen eta!"

"Bai, erregeak beheratu egin zizkidak ordea!"...

"Beno, Joxe: aurrena", dio haserre moduan, "Primo de Rivera zuan urteak kentzen zituena; gero erregea, eta Errepublika, baina erregeak alde egin dik aspaldi, motel!! Orain beste norbait izango duk!"...

"Ez diat esango, hori barrez aipatzea kartzelako bidea duk eta!... Horrek ez dik ezer ematen, kendu bai!... Beherapenak Obispoen bitartez egiten zizkidatek, beti bezala agintzen", eta hamarrekoa patrikara bota eta abiatzen da, ttaka-ttaka, orain Etxe Handirantz itzulian...

"E! Oraindik ez duk amaitu", eta begirazaleetako batek, bodegatik irtendakoren bat, noski, hau esaterakoan bultza egin zion, eta Joxe makila altxatzen hasi zenean, erori egin zen, eta buruz lurra jo. Ikaratu dira denak, eta jaso eta eseri duten bezain laster norbaitek baso bat ur eskatu du. Garrasi txiki bat irten zait. Barberitik ekarri diote, baina Joxe konorterik gabe dago... Minutu luze batekoa izan da Joxek bere eskuak txapelera jaso dituen artekoa, eta hor du, bai, txapela...

"Eskerrak txapelari", esan zion batek.

Joxek makila bilatu du gero, eta eman diote eta berehala zutitu da, sosak patrika barruan hatzez kontatu, eta denak, hirurak, han daudela ikusi duen bezain agudo abiatu da... Denak atzetik, ea zutik egoteko eta ibiltzeko gauza den..., eta bai, ttaka-ttaka abiatu da...

Han zeuden batzuek ezagutzen ninduten, "Peliren semea", eta hala esan zidan batek: "Lagun iezaio, bai, Ospitaleraino"...

Hala, atzetik joan nintzaion hasieran, eroriko ote zen beldur, itzulian Alonsoneko goxodendara eta ermitara heldu zen arte, eta dagoeneko bakarrik; orduan ausartu nintzen bere ondoan jartzera, eta esan nion neuk lagunduko niola etxeraino... Begiratu zidan, eta "eskerrik asko" besterik ez zidan esan, baina unetxo bat geroago, geratu eta zuzen begiratu zidan begietara eta esan, justu ermita aurrean:

"Zer egiten duzu zuk hemen, eskolara joan gabe eta Etxetik hain urruti?"

Enkargu batera bidali nindutela, esan nion gezur beniala. Eta hark sinetsi, zergatik ez zidan bada sinetsiko?, eta eskerrak eman zizkidan berriz, orain begiradarekin, eta esan zidan gainera:

"Aita Peliren antza duzu... Etxeraino laguntzen badidazu"...

Nik baietz.

Eta mantso-mantso hamabi-hamabietan heldu ginen elkarrekin Etxe Handira.

"Ez inori ezer esan, gero!", eskatu zidan sarreran.

Nik ezetz, eta halaxe gorde diot urtetan sekretua.

Markesaren semea

Hurrengo goizean Joxe Arretxe agertzen zitzaidan non-nahi!

Ordurarte ezkutuan ibilia ote?!

Eta, zergatik bada?, galdetzen nion neure buruari. Oso fidagaitz izatea ere gertatzen baitzait.

Lehen agerkundea goizean izan nuen. Ajeren bat zuenean, gosaria ohera eramaten zioten mojek, hau jakina zen; eta goizeko irteera bere gela pribatuko atzeko aldetik zuzenean egiten zuen. Ni seinale guztietara adi nengoen egun berezi haren biharamunean, eta kaperako aldarean urrezko kandelairu ederra baietaz distiratzten ari nintzela, ikusi, edo igarri hobe!, egin nuen Joxe aretotik etxe barruko kaperara hurbiltzen, sarreran dagoen Milagrosaren aurrean zutik Aitaren egin ondoren, geldi, bere otoitz labur bat egiten, antza; gero bere gerra-bira egin eta salako irtenbidetik hartu zuen... Ni ikusi ez banindu bezala! Egia da goizeko argiak aldarea baino hobeto argitzen zuela Mirarizko Amabirjina, eta, beraz, Joxe Arretxe; egia da, bestalde, honen bista aspaldi beheratua zegoela... Halere susmo triste bat sortu zitzaidan barruan...

Zer ote zuen nire kontra!

Igurtziketa bertan behera utzi eta hor noa, begiluze, irtenaldia ikustera; ataburura heltzerakoan begiztatu nion maingeria, eskuineko zangoan, aldakatik zuen matxura, disimulatu nahi bazuen ere, eta ez zuen ohizko kalera bidea hartu, baizik eta Ospitaleko baratza eta lorategitik barrena txoko bat egiten duen albondoetarako biderantz, eta etxe kantoitik zelatari ikusi nuen nola bankuan kontu handiz esertzen ari zen, makilarekin maniobran.

Ez nintzen bertaratzera ausartu.

Itzuli egin nintzen etxe barrura; banekien zer egin, noski, baina ez nekien nola; ez baitzitzaidan besterik gabe han agertzea egoki iruditzen... Sor Mariarengana jotzea etorri zitzaidan gogora, atxakia bila, baina ezin nuen Joxeren erorketa salatu!, hitzartua baikenuen sekretua. Bestalde, ezin nintzen etxean nabarmenki alferkerian geratu, aginduak berehala hasten baitziren euria bezala erortzen: "Pedrotxo, hau, Pedrotxo, bestea"... Orduan pentsatu nuen aproposena zera zela, besteetan egiten nuen gauza bera, ospitalekoen eguneroko ogiaren bila joatea, eta otarrea hartu eta okindegira joan nintzen; gero nire gutizirako Albertak beti ematen zidan opil beroa bidean jan beharrean Joxeri eskaintzea pentsatu nuen! Azkar, ibilian bertan sortu zitzaidan asmo hau nire buruan! Halaxe heldu nintzaion, eseri eta makila bi zangoen artean jarrita kokotsa gainean zuela triste zegoen Joxeri, eta opil beroarekin ezustean harrapatu nuen! Harriduraz begiratu zidan, baina ogi beroa eskuan jarri nion bezain laster xuxpertu zen, eta behetik gora, beti behetik gora, baina orain Joxe eserita zegoelako bakarrik, bestela ni baino handiagoa baitzen, eta gorantz begirada triste harekin esan zidan:

"Zer dela eta zu hemen?"...

Zuka egin zidan!, bezperan bezala, ez dakit zergatik.

Ez nintzen oraindik esertzera ausartu, bere aurrean nengoen, gerizpean biok, udaberriko eguraldi eguzkitsu horietakoa baitzen, eta nik erantzun nion bezperako erorketak kezkatuta utzi ninduela, eta ea ongi sentitzen zen...

Baietz esan zidan buruaz, niri begietara begira; halere argi zorrotza zuten begi triste haiek.

Izutu ere egin ninduten.

Baina opila kraska batean eskuetan hautsi eta zatitxo bat ahoan sartu zuenean baretu zen, esertzeko esan zidan, eta ni aulkiaren beste muturrean jarri nintzenean hitz egin zuen berriz:

"Hurbil zaitez"...

Lehen aldiz usaindu nion intsentsuaren inguruko zerbait zen lurrina!

Ni "zu" hark txoratzen ninduen, eta onginahi haren babesean onez onean sentitu nintzen, isilik, hurbiltzen nintzen bitartean, eta gero ere isilean geratu nintzen, Joxek ia hortzik gabe baina ogia gogoz jaten zuen bitartean, ogi berriaren krasketak entzuten, eta pozik neu ingurune baketsu eta epel hartan orain okindegiko usain gozoak inguratu gintuenean Joxe Arretxe eta ni, galtza luzez jantzitako haurra, umezurtza bi alderdietatik eta urrikarri, nonbait, halaxe sentitzen bainintzen nire aitak dituen urteak halako bi izango dituen agure maitagarri honen ondoan...

"Ogi goxo hau jaten ari naizela etortzen zait gogora zure aitari zor geniola Ospitalean otorduetarako ematen ziguten baso beteko ardoa"... Nire arretak jauzi bat egin zuen... "bai, hura ere ez zen mojak fidatzen!, eta eskerrak. Zuk ez dakizu ezer, oso haurra zinen eta, baina Peli herriko zinegotzi zela etorri zitzaigun eguerdi batez bazkaritan ari ginela, eta galdetu, mojak ondoan zeuzkala, ea otordua ona zegoen; gu mojei begira, isilik, eta garai hartan zuzendari zen Sor Leokadiak gure ordeztu baitetz, noski!, zer esango zuen ba hark... Baina gero galdetu zien Pelik mojei, orain beraiei, ea zergatik ez ziguten otorduetan ardo pixka bat ematen, hori ona zela adineko pertsonentzat!... Hark, Pelik jo zuen tiroa behar zen erdi-erdian!, zeren eta guri, denera hogeita bost bat orduan, aurpegiak bonbilak bezala piztu baitzitzaizkigun..., eta mojenak, berriz, lotsaz gorritu... Ez ziguten ura besterik ematen"... orain barrez ari da Joxe gogoz, bazkari hartaz oroitzuz... "Eta orduan esan zuen zure aitak, hogeita bost baso ardo, egunean bi aldiz, berrogeita hamar zirela, azkar egin hark kontuak!"... azpimarratzen du Joxek orduko malizia nire aurrean gaurkotuz, "egunero ardo hura guri ematea kostatzen zen dirua jarriko zuela udalak, geu ere herriosemeak ginela, ardoak neurritz edateak kalterik ez egitera ohituak garenak, eta handik aurrera hala izango zela, esan zien mojei begira, eta gero guri so, galdetu, eta bereziki niri":

"Zer iruditzen zaik, Joxe?"

"Nik baietz", dio Joxek, orduan bezala, eta harrezkero omen da mojek dioten beldurra, zeren eta Joxek beti egiak aurpegira eta gogor bota omen ditu hemengo Etxe Handian sartu zuten zere gero.

Ni ere barrez jarri ninduen Joxek.

Hura pozik!...

"Baina gauza ez zen horretan geratu", gehitu zuen Joxek, opila urdailean, niri basoerdi ardo beltzari begira balego bezain pozik, "zeren eta astebete pasa eta gero ahitu egin zen ardoa gure mahaian, horretarako dirurik ez zela ailegatzen eta... Orduan, Peli ez

fidatzen moja horiez eta han agertzen da, lehen bezala, eguerdi batez, eta gure mahaia urez gainezka baina ardoz lehor, eta mojak ez lotsaraztearren eraman zituen sukaldera, eta galdetu zien (gero jakin genuen bezala) ea zergatik ez zen ardorik ematen, eta orduan mojek erakutsi zizkioten Jesusen Bihotzaren imajinari jarritako argi batzuk, eta beste obra elizkoi batzuen egitasmoa, eta deboziozko beste gauzak, eta dirua hartan joan zitzaizela... Peli ez zegoen, eta Joxe Arretxe ere ez, debozio santu hauen kontra, baina bi gauzak onak zirenez gero, pasatzeko obra horien kontua berari, udalak ordainduko zituela, baina ardoaren konpromisua zutik geratzen zela"...

"Halaxe", esaten dit barrez berriz Joxek, "harrezkero egin ziren gure Etxe Handi honetan bi gauzak batera, inor mindu edo inori kalterik egin gabe... Gero gerra nazkagarri hura etorri zen eta mojak agintzen berriz!..."

"Ardorik gabe", esan nion.

"Noski... Peli bizi dela uste dut, eta agertuko da berriz Ospitaleko ardoz betetako baso haiek itzul daitezten... secula seculorum, Amen".

Eta lurrera begira geratu zen, isilik.

Honek esan nahi zuen esandakoa amaitu zela.

Hori igarri nion neuk Joxeren jarrerari, eta, zutitu egin nintzen goian zegoenak emandako audientzia amaitu zelakoan.

"Nora zoaz?", esan zidan, "ez, gera zaitez pixka bat, aretoko erratzar hori bihar pasako duzu eta... Zuk egin behar duzuna da, mojen eta apaiz jaunaren enkarguak egin beharrean, eskola pixka bat ikasi, mundu txar honetan defentsio apur bat izan dezazun"...

Esan nion eskolara joaten nintzela batzuetan.

"Nora?"

"Toloxarenera".

"A! beno, baina egunero hobe!... Hori behar duzu!", jarraitu zuen, "zu ez zara zozoa, burua argia duzu, eta batez ere", esan zidan ahomixka, "batez ere gaztea zara, Pedrotxo, argi begiak eta burua, mundu hau oso da eta maltzurra. Neronek ere erakutsiko dizkizut neurez ikasi ditudanak, baina geuk izan ez dugun eskola behar duzu! Ba al dakizu ehun eta ehun zenbat diren?"...

Nik baietz: "Berrehun".

"Bai, eta 'Biba Astiarra'?"

"Eta hau zer da?", galdetu nion.

"Ez dakit, hemen esaten dena... Eta horrelako gauza asko ikasi behar duzu... Badakizu ni Markesaren semea naizela?"

Nik ezetz, zerbaiten susmoa banuen ere.

"Hemen ez dago susmorik, egia hutsa baino. Utzi susmoa agintarientzat! Entzun al duzu Azelaingo Señorituaz zerbait?", galdetu zidan hurrena.

Nik ezetz.

"Ba, garai batean", esan zidan: "Markesa den Señoritua Xoxokara joaten zen bere ehizak egitera, eta ilegorria zen neska polit batekin ibili eta neu jaio nintzela esan zidaten... batez ere aspaldi hil zen nire amak, eta ni ilegorria izan naiz gaztetan!, orain urre hori gutzia joan bazait ere..., eta Azelaingo Señorituak badaki zer egin zuen, eta nor daukan hemen. Mojek berek ere zerbait badakite, ez naute, ez, nire mingainarengatik

bakarrik errespetatzen, bada hor inork aitortzen ez duen zerbait, eta hau nire jatorria da, Markesaren alabarekin ezkondu nahi nindutela... baina niri ondo ezkutatu didaten zerbait pasa zen nonbait, eta ni hemen utzi mojekin"...

Nik ez nekien zer esan, eta halere irten egin zitzaidan:

"Señoritua, Markesa, hil egin al zen?"...

"Bai, baina semea bizi du, aita bezain Markes, nire anaiordea gutxienez, baina herriko beste muturrean, Sorabillan, eta egunero goizetik harako bidean irteten banaiz ere, ez dut inoiz bertara iristea lortu. Baditu bidean Markesak, nire aitaren semeak, gaizkile batzuk, konplizeak, haiek gerarazten naute, han-hemenka, ni gehiegi hara hurbildu ez nadin... Zumea kaletik pasatzen ez didate uzten! Atzo izan zenuen proba bat, ia akabatzen naute..."

Nik baietz, lekuko izan nintzela; ea nik zerbait egitea nahi zuen.

"Ba, horretaz ari naiz pentsatzen zurekin hizketan ari naizen honetan... Joango al zinateke Sorabillaraino?"

Nik baietz, lehen ere festatan izan nintzela oilasko jokoa ikusten.

"Bai, ikusgarria da hori!"..., eta ez duzu Azelaingo Señoritua bizi den Jauregia ezagutzen?"

Nik, ezetz.

"Ba, horretaz arduratuko gara bihar... Aizan, Joxepa, alde egin zan hortik!"...

Begiratu nuen Joxe Arretxeren besoak markatzen zuen alderdira, eta zera ikusi nuen, Ospitaleko amonarik isilena, ikaraz itzuli eta alde egiten...

"Joxepa Aldalur da", esan nion.

"Bai, baina kontuak jakin nahi izaten ditu, eta nik ez dut nahi zuri esaten ari natzaizun ezer beste inork entzuterik. Hemen denak kuxkuxean dabilta, dena oker ulertzen dute, jende aldrebesa da hemen bizi den dena... Nik zurekin dut konfidantza, Peliren semea zarelako, ama ona hemen galdu zenuelako eta bakarrik aurkitzen zarelako... Eta denen gaineratik argia zarelako. Ez gaituzte gehiegi elkarrekin ikusi behar, gauza guztiei zentzu okerra emango liekete, eta batez ere zure kaltetan, eta nik defenditu behar zaitut... Baina horretaz hitz egingo dugu"...

Eta orain bai, isil-isilik alde egin nion, heldu nintzenez bezala, Markesaren semea zen Joxe Arretxe, goibel, kokotsa makilaren gainean jarrita ikusi nuenean.

Buruntza

Geroztik maiz ikusten nuen Joxe.

Halere ez zidan hitz egiteko paradarik eskaini, eta ni ez nintzen zuzenean bila joan. Oso kontuan nuen erakutsi zidan diskretasuna. Mojei zien Joxek beldur apur bat, alderantziz zela ematen bazuen ere. Biak, bi ordenak, errespetatzen ziren: mojak, Sor Luzia eta bere mende zeuden lau serora alde batetik, eta bestetik gizonezko bihurri errebelatu batzuk, Joxe Arretxe tarteko. Hauek elkar hartu izan balute, gainontzeko atso zaharrak erraz menderatuko zituzketen, baina bakoitzak bere kabuz jokatzeko zuelako!, amorratzen zen Joxe, bakartien jokatzeko zuena berau bazen ere.

Bera zen halakoa.

Behin entzun nion moja bati, Sor Mariari, hain xuxen, esaten, gainontzeko prakadunak menderatzeko indarrik balu, Joxe Arretxe izango litzatekeela Ospitaleko "Aita Santakruz gerrileroa".

Goiz batean, meza entzun eta gero, bere lastozko aulki txiki hartan eserita geratu zen; Don Martxelek berak, sakristiatik gosaltzera irteterakoan eskua besaburuan jarri eta beti bezala maiteki esan zion, eta ni begira!: "Joxe, ondo al zaude?", eta Joxek behetik gora begira eta altxatzeko keinua eginaz: "Bai, jauna". Eta bakoitza berean geratu zen, apaiza gosaria hartzera eta Joxe eserita, norbaiten zain balego bezala.

Honetan zegoela, inguratu nintzaion, ondoko aulki belaunikatzekoa esertzeko posturan jarri eta bertan eseri nintzen ezer esan gabe. Joxe Arretxek, txapela belaun gainean, makila oin azpian etzanda, askatu zituen txapelaren gainean lotuta zeuzkan bi eskuak eta irribarretxo bat bota zidan azpitik gora bidalia bezala. Hitzik ez. Horretan geratu nintzen, hark zer esango, zer egingo. Mementuz, ezpainak otoitzean mugitzen zituen, eta neronek ere Agurmaria bat esan nuen niretzako, aldareari begira. Gero, altxa zen gizona, eta nik aurreratu nahi izan nuenerako bere eskuetan eta zutik zeukan makila; oso makila polita zen, eta hari eutsita zutitu zen astiro, patxadatsu, belaunikaldi labur bat egin zion aldarean zegoen Hari, eta bi denborako itzulia egin eta gero kapera erditik martxa Mirarizko Amaren irudiraino, hemen gorputz osoarekin agur luzea egin eta tapa-tapa, atzera begiratu gabe kaperatik irten zen eta lorategiko bidetik albondoetako aulkiraino jarraitu nion; han eseri zenean aurrez aurre ikusi ninduen; hark espero bezala, zeren eta ez zen harritu, eta irribarretxo batekin eskaini zidan bere eskuinean geratzen zen leku zabala.

Nire poza!

Ez nuen oraingoan Albertak emandako opilik eskaintzeko, ez bainuen oraindik jaso, eta ez zuen espero ere, seguraski, zeren eta makila bere zangoen artean luzatu eta atzera bizkarralderaino bere burua bota eta zerura begira bezala deskantsuan jarri zen. Lehen aldiz honela ikusten nuela, patxada osoan. Begira zegoen zerua lainotua zegoen. Beldur nintzen euri tanta batzuk erortzen hasiko ote ziren ere! Pena izango zen...

"Non zabilta?", esan zidan irribarretsu, "ez zaitut ikusten"... eta niri aurpegira begira, honek zer esango. Agerian zegoen nire poza! Eta jarraitu zuen:... "Aitaren berririk bai?", eta nik ezetz... oraindik, eta hark ere beti opa zidan itxaropena eskaini

zidan buruarekin baiezka, eta poztu ninduen!... ez bainuen honelako aditasunik beste inondik jasotzen; eta aitatxo, Peli, izenez aipatzen zidanean ere gauza bera sentitzen nuen, besteekin gertatzen ez zitzaidana, zeren eta gainonetzekoek begietan argi arraro batekin izendatzen zidaten, gaur egun milagrorik ez balego bezala... Eta burutazio honetan sartua nengoela, liluraz, galdetu zidan berriz: "Azelainera joaterik izan al duzu?"... Ezustean harrapatu ninduen; ez zitzaidan Joxek eskatutakoa ahaztu, baina Aste Santua tarteko eta izan genituen lanekin ez nuen inora joateko denborarik izan... Halere, ez zen haserretu; sumatu zuen hark nire pena, eta nire barruan sortu zitzaidan zulo hura estaltzen ahalegindu zen... "Beti badago denbora hori egiteko; bestalde, Azelaingo señoirituak baditu aliatuak, eta ni desbideratzen nauen jende bera izango dira zuri behin eta berriz hara joan eta aztertzekeo jarriko dizkizuten oztopo-jartzaileak... Estanix barberua, bat... Oraingo honetan zera diozu, Aste Santua dela eta... arrazoi handia duzu, neronek ikusi zaitut oso arduraturik gure kaperako elizkizunetan, eta parrokiara ere joan zara..., baina gero beste zerbait izango da; eragozpen guztiek izango dute ulergarri den zerbait... Baina, entzun ondo, etsaiaren lana da!, Azelaingo Señoirituaren zerbitzuan jarritako deabrua!"... eta orain haserretu da egiatan!...

Eta, gaiez aldatzeagatik, Joxe hain samindurik ez ikustearren, hasi nintzaion esaten nola Hernanira ere bi alditan joan nintzen, zeren eta...

"Amatxo hangoa zenuelako"... esaten dit ahotsik altxa gabe.

"Badakizu hori"... esan nion.

"Jakingo ez dut bada!... Zure hango aitona ere zurgina zen, eta zure hango amona, aspaldi hila, 'Latxe Zaharreko' Bixenta Lujanbio... Buruntzako auzo eta inguru horietako dena ezaguna dut, nire garai hartan denek elkar ezagutzen baikenuen, Hernanin ostegunetako ferian ikusten ginen denak, Adarragaren goxotegiaren inguruko tabernetan biltzen ginen garai hartan, hemengo joera hori zen, Tolosa aurrena, eta gero Hernani... Pelik berak ere hantxe ikusiko zuen zure amatxo bertsozale handia ez bazen... ez bada ere!; zure aitaren familiako bertsojarzalea zure aitona Gregorio zen, artotza hau ere, 'Artotz txikia' deitua,... Andoaingo San Martin parrokiako sakristau izana"...

"Egia osoa!", esan nion harriturik.

Eta hark uhin horren gaina aprobe txatu zuen ur gainean irristada luze eta eder bat egiteko:

"Hara, mutiltxo", eta makila bi eskuekin hartu, zangoak kizkurtu, eta gora begira norabaiteko mundura airean abiatzeko itxura hartan, eta mezatan bezalako intsentsu giroan eman zidan egun hartako ikasgaia: "Buruntza mendia Jainkoak botatako harrikoskor handi bat besterik ez da... goian jarri zion San Roke kaperatxo eta gurutzeaz aparte ondoan jarri zizkion gero Andoaingo Elizondoren taberna aurrean, algadonerarekin lanerako eta langileak bizitzeko etxe ilada bat, Orian bezala. Bestalde, Hernaniko bidean, Urnieta. Seminario eta guzti, Andoainek, sute bat zela eta, galdu zuena!... Gero autokarrerako Lasarte zirkuitoaz inguratu zuen dena, Txiron, Nubolari, habaila handian!... Hernaniko gain-gainetik pasatzen zen, kanposantutik, Añorga, eta Oriara berriz... Bazkardoko erreka"...

"Hernani ere Buruntzako ahaide da, orduan", esan nion nik, denak elkartu nahian.

"Ba... Hernani, gertu badago ere, eta, zuk esan bezala, familia da, baina honek badu beste mendi baten babesa, Santa Barbara mendixka, harria hau ere! Santa Barbarako

haitzak, bere kaperatxo eta guzti; baita gure gerretako gotorlekua ere, oraindik geratzen ziren murru batzuk ni gazte nintzenean; eta Andoainen guk Tolosarako joera dugun bezala, Oria ibaiak lotzen dituelako, Hernanik, Urumea bide dela, Donostiarakoa du. Halere, Andoain eta Hernani arteko bidea urak hartu balu bezala sentitzen ginen... oinez egiten genuen guk maiz; oraindik nahikoa duzu hemendik Hernanira joateko Kaletxikitik hartzea eta hor zaude Hernaniko kanposantutik barrena udaletxean, eta handik honakoa, alderantziz: udaletxeko arkupetatik, eta hilerritik barrena hemen gaude, beti pauso bat!

"Eta trenarekin, berriz!!"... hasi nintzen esaten aurkikuntza handi bat egin banu bezala...

"Zer diozu! Norteko trentranbea arrotz hori?!!"...

Nik baietz, eta tonu horretaz minduta...

"Zentrala bertan dugun tranbea da gurea dena, hemendik Tolosa eta Donostiara ixtant batean eta eroso, herriz herri, etxez etxe, eramaten zaituena!... eta trenari bagagozkio, Plazaolako trena, 'Tren txikia' deitua, baina honela deitzen diote gure herria txikia delako, halere osorik nazionala. Hemen, kotxera eta guzti! jaio eta alde batetik Donostiara eta kostako bide harrigarritik, kaiez kai, olatuz olatu, bat ere galdu gabe Bilboraino eramaten gaituena, eta bestaldetik, Leitzaran ibaiari konpainia egiten gizaldiaren hasieraz gero mendi zoragarri guztiak korrituz eta gogoia ematen dionean laburtzeko tunel harrigarriak, hiru kilometrokoak ere!, eta gustoago duenean zubi luze eta ederrak, lainoa pixka bat jaisten denean laino artean zeruko bidea balitz bezala, Irurtzungo feria ikusi eta aurrera Iruñeraino, Nafarroako Erreinu bururaino eramango zaituena!..., ezagutzen duzu, e!"...

Ikusi nuela trentxoa estazioan, Moleda gainean, kea zeriola, baina ez nintzela inoiz igo...

"Ba, esan iezadazu noiz nahi duzun txangotxo bat egin, Bertxineraino bederen, eta nik emango dizut behar duzun gomendioa, honek Mentxaka izena du, gizon bibotedun xuxena eta nire laguna; esan nire partetik zoazela... Hori ezagutu behar du Peliren semeak, aitak ezagutzen zuen bezala, eta biok zarete andoaindarrak!... Ahaztu gabe, gero, e!"...

Nik, baietz...

"Ez ahaztu bada, ezagutu ezazu zeure herria... Ikusi dena eta ikasi", esan zidan orain niri begira jarrita: "Esan dezakegu laburbilduz gure herri txikia ez dela hain eskasa; esandakoak denak gureak direla, eta kuttunak; batez ere gertuen duguna; besteen artean Hernani eta Andoain Buruntza mendiko bi auzo direla"...

Ni, txoratuta! Joxe Arretzek dena errazten zuen, eta kontatzen zuen guztia ipuin eder bat zen.

Oraingoan bi aitonak lotu zituen goxo asko...

Bitarte honetan, eguna ilundu egin zuen; hegoa altxa eta eguraldi sargoria egiten zuen; Joxek sudurzapia bere jaka marroiaren goi poltsikotik atera, intsentsu usain ederra, eta txapelik kendu gabe bekokitik pasa zuen elegantzia handiz. Bero zela esan nion, laguntzeko, eta berak esan zidan harritzekoa zela "maiatzean haize epel hau"..., denetik zekien gizon honek... "baina ez du euririk botako, egon lasai, ongi gaude hemen"...

Parrokiako erlojuak jo zuen ordua, eta konturatu nintzenerako Joxek makilaz lurreko harritzintzarren gainean jarraitu zituen kolpeak, eta nik entzuten niola ahoskatzen... hamar tanto. Eta esan zidan:

"Gaur berandu nabil"... Sumatu zuen nire urduritasuna, eta esan zidan irribarretxo batekin: "Ez arduratu, gaur osterata txikia egingo dut. Nik hiru zirkuitu ditut: Bata, hemendik Etxeberrietako alagadonerarainokoa, joan eta etorri; hau da Azelaingo Señorituaren morroiek uzten didaten handiena. Laburrago bat Zumearaino, tranbea zentraletik buelta. Eta txikiena, eguraldiak besterik uzten ez didalako, edo beste zerbait egin behar dudalako, goiko plazaraino, hor parrokia agurtu eta buelta etxera, Etxe Handira".

"Eta gaur?", galdetu nion.

"Gaur, zure konpainian pozik nagoelako, eta zero horrek gorroto pixka bat ere erakusten didalako, gaur plazarainokoa, don Pablo Barriolaren jauregiko iturrian zurrupadatxo bat ur edatea nahiko izango dut; ez dit gorputzak egun sargoritsu honetan besterik eskatzen..." eta altxa egin zen makilaren laguntza elegante harekin; gero ni, oraindik begiratzeko beste denborarik eman ez zidan honetan eserita aurkitu ninduten begi zorrotz haiek, eta ezkerreko eskua nire besaburuan jarri eta esan zidan solemneki: "Gaur ikasi duzu zerbait; argitu zaizkizu begiak, neuk ikusten dut argi hori, eta aurrerantzean ere halaxe egiteko grazia pixka bat eskatzen diot"... eta txapela ezkerrekin plater bat balitz bezala nire aurrean jarri eta begiak itxiz esan zuen: "Jainko Jaunari, bere Seme Santu den Kristo gure Jaunari, eta gure bitarte honetan eta goi-goitik dagoen Espiritu Santuari, Amen".

Hernaniko arartekoa

Amatxo Hernaniko auzoan sortu zen. Udaletxearen saihetsean dagoen 'Santabarbaranian', Porturantz jaisteko eskailerak hasten diren lekuan bertan. Eskailera hauek eta Eskolapioen eskola txikia bitartean dagoen hiru bizitzako lehen solairuan.

Zenbat aldiz entzun diodan amatxori mineri handiz hau kontatzen... Bere oroitzapen hau niri barruratu eta betiko itsatsi nahi izan balit bezala; nirekin bizirik iraun zezan, gaixoa.

"Hemendik gora, Ansorena txistulariaren etxetik barrena kanposantu bidetik hartzen da Andoain auzorako: pauso bat Urnieta eta bestea Andoingo Kaletxiki. Hau dena gertu zegoen orduan, ni haurra nintzenean", zioen amatxoren musikak nire belarrian, "pausoka baitzen dena orduan, eta ez orain, autoz, bideak hainbeste luzatu eta pertsonak bata besteagandik hainbeste urrundu dituenen"...

Gero egin dut bidea askotan neronek, memoriaz egitera iritsi naizen arte...

Eta amatxok, ilera botatzen zidan usain gozoko kolonia jartzen ari zitzaidan hartan, jarraitu zuen:

"...Joxemari aitarekin joaten ginen paseoan mantso-mantso igandetan..., nire amatxoren zuloa familian nabaria zela, hau joana baitzen dagoeneko, hain goiz guretzat!, ez genuen Maria eta nik, bi txikienok, ezagutu ere egin..., eta aita Joxemarirentzat, alargun gazte, eta gogo berri-berrian Bixentak ohe berean ekarri zizkiola sei erreskadan, Nafarroako galburuak galgarauak ematen dituen bezalaxe, hemen artaburuak bereak bezala"... Amatxoren hitzak denak, eta paseo horietan bat pasa eta "agur"..., esaten omen zien herritarrak errukia zerion ahotsarekin, nire amatxok sentitzen omen zuen, hain goiz, tristura hori... Eta ni amatxorekin Etxe Handian, aita Peli noiz agertuko biok bakarrik sentitzen ginela kontatuak guztiak.

Halakoxeak dira kontu hauek denak, zergatik eta nola jaio eta iraun duten ez badakit ere... Amatxok eta biok jasoak bere sasoian.

Beta baitzen orduan, jaio aurretik ere, gurekin zegoena, Ospitaleko apopilo askoren arteko bakardade handi eta izugarri hartan. Ikarak bizi nintzen, eta hara! Amatxok bere amatxo Bixentarenak ere kontatu izango zizkidan pozik ezagutu izan bazuen, eta nik amona bat irabazteko parada ederra izango nuen nire gomutarako; baina hil egin zitzaidan nire amona amak hiru urte zituela, dozena erdi bat seme-alaba mundura ekarritako lanekin bizitza ahitu, agortu, eta gero.

Honexegatik geratu naiz amona Bixentaren hutsa agerian dudala.

Bistan da falta zaidala.

'Latxe-zaharreko' Bixenta hil eta laster gertatutako pasadizo bat kontatu zidan amatxok zeruko bidean abiatu aurretiko arratsalde ilun eta trumoitsu hartan; egiatan hau izan zen bere agurra, hurrengo egunean Sor Kandida goizean ohea atontzen ari zitzaiola hil zen bihotzetik jota txori bat bezala.

Eta hark nahi bezala, zeren eta sarri esaten zuen Amabirjinari beti eskatzen zionetako gauza bat hau zela, heriotza on bat.

Hala, esaten hasi naizen bezala, eguerdia zen Santabarbaranian: jangelako mahai handian gizonak ari ziren jaten, presaka; alaba zaharrena Auxtinaren eskuetan etxea, eta sukaldea ere bai, noski, eta hemen, ekonomika beltz handiko ezkaratzean, emakumezkoak: zortzi bat urte nire amak, berak esan zidanez, eta Maria, txikiena, lurrean eserita, hiru ahizpak (garai hartan ez omen zuten emakumeek mahai nagusian jaten, Nafarroako legea seguraski, baizik eta eltzeak eta zartaginak sutatik mahaira eramanez ez zuten egiten, eta beraiek sukaldean jan...), hiru ahizpak sutondoan... Horretan zeudela jo omen zuten Hernaniko arartekoa, bake-jueza, zen aitaren atea, eta negar mingots bat sartu zen etxera ate, leiho eta zirrikituetatik; antsia handia, amatxok esana!, "andrearena zen, aitarekin hitz egin behar zuela eta bere aurretik mahairaino sartu zen negarrez; aita pazientzia handiz mahaitik altxa, emakumea bere gelara eramanez eta negarrak isildu zituenerako berriz atea jo zuten, eta sartu zena senarra izan zen eta Auxtinak lagundu zion honi pasilotik eskuinera, udaletxearen bizkarrera begira zegoen gelara sartzen, eta han dagoeneko ohean eserita zeudenak orain hiru ziren, ez baitzegoen aulkirik, ohea, gurutzea eta purgatorioko arimak koadroan bakarrik eta justu, eta errietak eta negar berriak amaitu zirenean, semeak: Joxe, Estanix eta Pedro, txikiena, hirurek mahaian iraun zuten isilik, zoparen ondoren jan behar zuten haragia tomatearekin oraindik sutan ("sota, caballo, rey") eta bere inguruan Auxtina, ama Anttoni eta Maria txikia oraindik arrastaka, gizonen hirurak zerbitzeko zain eta goseak... Azkenean gela ireki eta banan bana hirurak irten ziren arte; aurrena, negarrez etorri zen emaztea; bigarren gero heldu zen senarra, eta azkenik gure aita Joxemari arartekoa..., hau dena amatxok esana..., eta ikusi zuten aita kalerainoko porlanezko eskailera labur batzuk jaisten, eta denak bakean, hala zirudien behintzat!, eta ikusi zuten aita Garmendiatarren ojalateria zegoen atarian irten zirenak bata bestearen ondoren, eta aparte oraindik, baina elkarrekin behintzat, eta isilik; lotsatuta, auzokoak... 'Xomorronekoak' eta besteak begira baitzeuden bere sototik eta ikuilutik, behiak bizi ziren eta orduan udaletxearen atzeko aldean...

Eta aitona Joxemari, igo zen.

"Jerman konfiteruak ere ikusiko zituen etxe aurretik, plaza kantoiko denda aurretik pasatzen", esan zuen aitona mahairatu zenean; amatxok ez zekien zergatik esan zuen hau...

Amatxok gogoan zituen, halere, hitz hauek oraindik...

"Gero"... esan zidan oraindik ohean oso gaixo zegoela, trumoiak zeruan, eta ni, Pedrotxo, han dena errejistratzen, "gero jan zuten lau gizonak, azkar, presa zutelako, kale nagusian erre zen etxe baten teilatua berritzen ari ziren, eta orduan baitzen arratsaldean jarraitzeko ateri zegoen tarte; eta amarik gabe geratu ziren hiru alabatxoek jan zuten, muki eta guzti, su gainean geratu zena eta ogia, bi puska handi!!, oraindik ez zen eta etxe hartan sei librako ogi lehorrik falta".

Han falta zena, amak hau eranstekeo betarik izan ez bazuen ere, neuk irakurri nion bekokian garbi-garbi: falta zena Ama Bixenta zen!

Aitona hil aurretik, anaietatik "ederrena", seme zaharrena, Joxe, hila zen oso gazterik. Eta orain berriz, hustu zen etxea.

Peli gero etorri zitzaion.

Amatxok esan zidan, gogoan dut!!, pentsatzen zuela beti, gizon maitagarri hau egun batean, gerrako bataila sonatu hartan zentzua galdu eta nor den ez dakiela oraindik mendietan, edo hiri handi batetan, galduta ibiltzea posible zela...

Ez zait sekula ahaztu amatxoren sentimendu hau.

"Gaixoa", esan zuen amak, eta negarrari eman zion.

Biak egon ginen arratsalde epel honetan negarrez aulki handian eserita... Eta nekatu ginenean, arrosa usaineko kolonia gozoa zuen sudur zapiatz nire malkoak txukatu eta gero, esan zidan irribarretsu berriz, egun dohatsu hartan: "Badakizu nola ezkondu ginen?"... Nik ezetz, noski, eta hau honela esan zidan, ia hitz berekin: Behin aitona Joxe Marik antzeman zionean harreman haiek luzatzen ari zirela, arduratu egin zen, eta etxetik irtetera zihoan igande arratsalde batez, euria gora-behera, esan omen zion alabatxoari: "Aizu, Anttoni, bizkaitar horrekin ezkondu behar al duzu?"... Amatxok, baietz, eta ez zela bizkaitarra, gipuzkoarra baizik, ondoko Andoain auzokoa zela, Urnietako pausotik hurren bertan zegoela... "Bai, bai", esan omen zion nire aitona izango zenak, "Andoain non dagoen badakit, baina hala ere 'bizkaitarra' duzu hori, alabatxo". "Eta hori txarra al da?", galdetu zion amak, eta aitonak erantzun: "Txarra, ez dakit, karlisten adar bat, nolana"...

Amatxok ez zuen horretaz ezer ulertu, eta aita Pelirekin ezkondu zen betiko.

Erretratu bat ere bada denek batera egina.

Familia eder bat hasi zela mundu honetatik adierazteko ondorengoei; niri, esate baterako. Zorte hau izan dut.

Arrosa lurrina nirekin dago oraindik.

Jermantxo konfiterua

Peli Andoaindik etorri aurretik, konfiteruaren semea hurbildu zitzaion amatxori.

Jermantxo konfiteruak gogoan du nola bere aitak eraman zuen behin eskutik hartuta udaletxearen azpian zegoen zurgindegira... Nire amatxori Jermanek berak esana. Sabai goi hartan esekita zegoen hilkutxa luze batek tiratzen zion bista, nonbait: pinu zuriz egina, berezko bi begi ilun beherantz begira zeuzkala, eta gozogile karlistak hatzez markatu zizkion, han garlopaz kizkur zuri-handiak ateratzen ari zen zurgin bizardunari, esanez:

"Hi, Joxemari, noiz egin behar duk bidaia handi hori?!"

Gogoan dut nola amatxok kontatu zidan Amabirjina egun handiko goiz hartan, Meza nagusiaren ordua jo zain geundela biok bakarrik gizonezkoak oheak genituen gela handian, dena hutsa... niri bota berriak, norbaitek emanak, jaztera etorri zen gaixoa... Ipuinak kontatzeko erabiltzen zuen ahots gozo eta argi harekin esaten ari zitzaidan, ipuin egiazkoa..., nola arotz bizarzurriak, bere aitaxok, nire aitona Joxemarik, egiten ari zena utzi, gorantz begiak jaso eta esan zion konfiteruari:

"Honezkero karlistek ez nauzue bigarren aldiz afusilatuko! Behin aihotzez burua erdibitu nahi izan zenidaten, gogoan diat ongi, ezagutzen duk hik belarrondoan harrezkero daramadan marka, eta beste batean tiro egin zenidaten Sorjineko kanposantuan ni akabatzeotan!... Alferrik!... Eta aspaldi honetan maiz hator ni bisitatzeraz, goiko hilkutxa horren bi begiek zer esan nahi duten, kuxkuxkari begi-luze... Ez baituzue zuen erregegaiak esaten duena besterik pentsatzen, ez zarete bestetarako gai; ba, esango diat: bi begi horiek pinuaren ernamuinak dituk, hortik jaio zituan bi adar, horiek ez ditek ezer ikusten,itsuak dituk, zuek karlistak bekoki ondoan dituzuenak diren bezalaxe... Oraindik gerran pentsatzen ari al haiz?"...

Jermantxo karlistaren semeak behin amatxori aitortu zionez, oraindik gogoan du nola bere aitak estutu zion orduan, unetxo hartan, eskuaz berea; lotuak baitzeuden aita-semeak maitasunez... eta aldi berean nire ama izango zenaz gustatzen! Hau amatxok sekretuan niri, bere seme bakarrari, hil aurretik esana; eta hala esan omen zuen oraindik, gora begira zegoen konfiteruak, airean dindilizka mugitzen zela zirudien kaxa estrainioari, 'simetrikoari', so:

"Gu begi-itsuak, bai, baina zuek, beltzok, Madrilen egindako kristalezkoekin besterik ez duzue ikusten!"...

Haserretzen zen amatxo Jermantxoren aitak Joxemariri, liberal "beltza" deitzen ziolako!

Ez aita, halere.

"Ez hadi haserretu", esan omen zion Joxemarik egiten ari zen lana utzita... "gu biok, betiko lagunak, haserretzen bagaituk aspaldi joana den gerra dela eta, zer irakatsiko zieagu geure seme-alabei..., hire 'Jermantxo mutil polit horri'?"... Bere aita isilik geratu omen zen gora begira

-Jermantxok esana- berriz hilkutxaren begi itu haiei so, eta gero esan ziola, zurgina garlopaz txirlora zabal zuri eta borobilak gorantz botaz ari zela... "Gauza bat

agindu behar didak, Joxemari: ni hi baino lehenago hiltzen banaiz, jantziko al didazue heuk eta hire seme-alabek ehun beltzez zerraldo hori bera niretzat?"... Joxemari izan omen zen gelditu eta begira geratu zitzaiona, barrendari, nire aitonaren begietako begirada urdin hura karlistarenagandik zintzilik... eta zurezko kurbi luzea bertan utzi eta inguratu zitzaigunean bere peto eta behean ia oinetaraino zabal, gerria jantzia eta zinta beltzez lotuta, nire aitona bezain luze, txapela txapelaren aurrean, begiak begietan:

"Hori nahi duk egiatan?", galdetu omen zion, eta bere esku zabala eta zuria luzatu zion Jermantxoren aitona karlistari... karlistak berea, karamelu eta kandela beroen markak zeramatzana, estutu egin zuen; biak, distantziarik galdu gabe, eskuetan besarkatu balira bezala, esan nahi dut, bakoitza berean, tinko, baina gauza handietan, gorenetan, betiko elkarturik sentitu balira bezala...

Eta ordua zen meza nagusirako... zeren eta bakarrik aurkitu nintzen neure ohean eserita, eta sentitu nuen amatxo deika gela handiaren atetik, ordua zela!, eta korrika joan nintzen beragana.

Ni loak hartu, nonbait, amatxo nire bota beltzak janzen ari zitzaidan bitartean.

Hala geratu zait pasarte hau gogoan.

Musikarako dohainak

"Pedrotxo", esan zidan bazkaritarako eserita nengoela atzetik belarrira, "jan ondoren zerbait esan nahi dizut"... eta nik burua itzuli nuenerako han zihuan prestu asko bere ohizko lekura. Ez nuen aza-babarrunak eta odolki zati hura ganoraz jateko lasaitasunik aurkitu... Zertarako ote! Ez zitzaidan sekula mahaira honela inguratu; presakako zerbait, nonbait... Nik amaitu eta zain geratu nintzen otoitz egin eta denak zutitu ziren arte, eta Joxek betiko aulkira iristeko denbora izan zezan galdu nuen neurea Sor Mariari platerak jasotzen. Eta han zegoen, kokotsa makilaren eskutokian, pentsati.

"Bazkaldu al duzu?", esan zidan.

Nik baietz, eta betiko begirunearekin geratu nintzaion zain ondoan eserita.

"Zuk badakizu, Pedrotxo, beti zure onerako asmotan dabilela nire burua, zure aitatzeko Pelirena balitz bezala"...

Nik baietz buruaz, eta honelakoetan nire begietako leihoetatik barrura begira jartzen zitzaidan bakoitzean arima osoa ikusten zidala iruditzen zitzaidan.

"Zuk inoiz ikusi nauzu makilaz konpasa markatzen?", galdetu zidan.

Nik baietz, parrokiako erlojuak orduak jotzen dituenean...

"Hori da bat, alabarderoarena, ohartu zara horretaz"...

Nik baietz.

"Ez nauzu inoiz musika banda jotzen ari dela gauza bera egiten ikusi?"

Nik ezetz.

"Bada, komeni zaizu; gaurkoz, hartzazu nire makila, jarri zaitetz zutik nire aurrean, eta nire besoen arabera marka itzazu kolpeak lurrean"...

Egin nuen esana, jarri nintzaion aurrean, metro batera, zutik, makila eskuan, zain eta adi.

"Nik neuk agintzean, segi zeuk konpasa", eta besoarekin gora eta behera hasi zen: "Bat, bi, hiru, lau!", behin eta berriz, eta nik jarraitu nion makilaz, urduri samar, baina tinko nire kemen guztiarekin...

"Alto!", esan zuen arnasa estutzen hasi zitzaionean: "Oso ondo!", eta Joxe Arretxeren irribarre polit hark poztu ninduen.

"Musikarako zentzu ona duzu, ikusten dut zure kemena, adorea eta indarra, batetik, xuxen eta erabakia kolpeak emateko, eta, batez ere, musikaren zentzua, erritmoa... alegia, zirt-zart!, baina musikaren konpasean, maitekero"... eta koroan zuzendariak egiten dituen keinu fin batzuk egin zizkidan!, Axentxio Xoperi behin egiten ikusi nizkion modukoak... "Baduzu dohaina... Alabardero izateko prest zaude. Baina ni gorago noa: zu, Bandan sartu nahi zaitut instrumentari bezala. Konforme?"

Nik baietz, baina ikasi egin beharko nuela... eta ikusi nuen neure burua tronpeta jotzen!... Gauza polita!... "Gauza berriak ikastea beti dut gustoko", ausartu nintzen esatera.

"Honetarako nago hemen; konpasak eta gero, notak erakutsiko dizkizut; badakizu 'Do' zer den?"

Nik ezetz...

"Do", esan zidan ahots gozoarekin... "Esan: 'do!'"

Nik: "Do!" ahal nuen berdintsuen...

"Oso ondo! Baina zortziak iladan esaten ikasi behar duzu: 'Do, re, mi, fa, sol, la, si, do'... Eta konturatu aurrena esaten duzun 'do' behetik, azpitik bezala, ahotsa igotzen joan behar duzula, pixkanaka, eta azkeneko beste 'do' goien jarri behar duzula". Eta berriz egin zidan: "Do, re, mi, fa, sol, la, si, do!!... Ea!"

Eta nik, gauza bera errepikatu nuen... (ez nion esan..., baina hau entzuna neukan kaletik berdura plazako goian egiten ziren solfeoko saioetan; eskerrak isildu nintzen, zeren eta kenduko nion aurkikuntza haren poza...)

"Oso ondo, baina ahots tinkoagoaz esan behar dituzu notak eta mailuaz jotako erabatekoak, eta banan bana: ta-ta-ta-ta... konforme?"

Nik denari baietz, eta egiazki gustatu egiten baitzitzaidan:

"Do, re, mi, fa, sol, la, si, do!"

"Garrasirik gabe, Pedrotxo... fina behar duzu izan musikan... baina oso ondo. Orain egunero hamar aldiz hori egiten saiatu behar duzu, komunean ahapeka!, esate baterako, edo mendian lasai, hemendik San Roke bidean zoazela, horko gaztainadian ez dizu inork entzungo, eta ona da ariketa hori biriketarako. Bitartean, nik hitz egingo dut musika bandako zuzendari den don Liboriorekin, gizon handia!; neuk gomendatuko zaitut bandan ofizial bezala sartzeko... Honelaxe ikasten dira ofizioak, konturatzen al zara? Honelaxe ikasi nuen neronek behiak eraisten morrontzako lana aitak aurkitu zidanean, eta bota nuen errepide erdian, Migel 'beltza' zen enkargatu!, sorbaldan neraman harri handi baldar hura!, eta gero bapo esnea jetzi, belarra eskobarearekin jaso eta beste lan arinetan ederki!"...

Nik baietz, eta esker onez!

"Gaur astelehena da, Santa Krutz egun bezpera, Zumean festak, larunbata arte zure ariketak zintzo egin"... Baietz, (eta gogora etorri zitzaidan Saldias ere musika maisu ona zela, Saldias zenak ere musika ederra jarri ziola Santakrutzen martxari...)

"Beste bat", jarraitu zuen maisuak: "Segi kontaktak praktikatzen, herriko geografia... Bastero, Urnieta, Hernani... Hernani ere bai, askok ez badakite ere, Andoain eta biak artzapeztegi berean egonak baitira, eta beti lotura onak gorde ditugunak, galdetu gurasoei zure otoitzetan..., egiten al dituzu?"

"Egunero hitz egiten dut amatxorekin"...

"Ba, eskumuinak eman".

"Mendiak"... nik.

"Belkoain, bai" segi mendiekin, gero...

"Historia Sakratua"... sartu nuen nik, hobe beharrez...

"Alto!..., hori apaizen kontua da"...

"Bai, don Martxelek"...

"Errespetu handia diot don Martxeli", ebaki zidan, eta txapela kenduaz jarrai, "jakintsua da don Martxel, eta Santua... Gaztetxo oraindik urruti ikusteko... zeren Historia Sakratu hori nahiko zaharkitua dago... amets asko sartu zuten hor barruan... Jakob gizarajo hura... Honetaz hitz egingo dugu hurrengoan, gaurkoz nahiko duzu!"

Eta han bukatu ziren egun hartako lanak.

Egiazko ametsa

Esnatu egin ninduten.

Hasieran, nire ondoan lo egiten zuen Baxilio zela pentsatu nuen, batzuetan deitzen baitzidan burukomin handia zuela eta mojari sendagaia eskatzeko. Aspirina bat ematen zioten eta loak hartzen zuen berriz. Baina oraingoan, Joxe Arretxe zen! Belarrira esan zidan nor zen, intsentsu usaineko arnasa bero-estuarrekin. Zer nahi zuen galdetu nion, eta hark, oraindik ez nuen ikusi, etortzeko esaten zidan, laguntzeko bere kuartoraino... Gela luzetik irten eta eskaileretara heldu ginenean konturatu nintzen, hemen, piztua uzten zuten ipurtargiak baino gehiago argitzen ez zuen bonbilatxo gorri baten argitan, ikusi nion Joxeri aurpegia izerditan, kaskoan txapela; berarekin lo egin ote zuen pentsatu nuen nahi gabe; txapel umeldua, eskuz eta sapaz umeldua, eta alkandora luzeaz jantzia eta oinutsik zihoan nire aurretik makila eskuan, eta azkar eta zarata handirik gabe goiko bere gelatxora eraman ninduen. Sarrarazi ninduen eta gero piztu zuen argia. Ez nintzen hemen inoiz egon; kanpotik banekien non zuen logela, goian zuela!, eta leihoa nora begira zegoen, atzealdeko sagastira, baina ez nintzen orain arte sartu. Eseri zen ohetxoan; baxua zen, eta bere galtzak ondo tolestatuta zeuden aulkian esertzeko eskatu zidan niri, mesedez; oso zegoen ikaratua, eta atea ixteko...

Oso txikia zen gelaska, oso pobrea.

Esertzera erori zen lurrera txano zuri bat, gauetan behean ere beste zahar batek, Anaxtasiok, erabiltzen zuen bezalako...

Ez zuen Joxek hau merezi, esan nion neure buruari, eta isilik, hark zer esan zain. Baina behatzen eta aztertzen... gizaixoa... izerdi patsetan zegoen, baita izerdi lainotan ere, esango nuke, lurrunaz inguratua sentitu bainintzen gelatxoan... Hemendik zetorkion Joxeri lurrin berezia... Bi eskuak pasatzen zituen behin eta berriz bere aurpegi bizartsu argal eta bustitik.

"Peli, zure aita, ikusi dut", esan zidan presaka...

Ni biztu ninduen honek!

"Non?", galdetu nion.

"Gerran".

"Nongo gerran?"

"Hemengoan... Hara, entzun"..., eta Joxe Arretxe nekatu egiten zen, nonbait, ohe gaineko ezarrera hartan, eta makila eskatu zidan, unetxo batean utzi berria zuen bazterretik hartu eta eman nion; hark berea zuen kokotsa eta makilarekin aurkitzen zuen hiru oineko oreka lortu zuenean, goiko bonbilaren eguzki hilari begira jarri eta gero hasi zitzaidan ahots ixilez ahapeka, zurrumurruan bezala, hizketan: "Lotan nengoela etorri zait gogora nola behin, orain dela urte batzuk, zure aitaxo bezala gerran ibili zen batek kontatu zidan... Oiartzungo baserrian nengoela etorri zitzaidan"...

"Nori..., zuri?"

"Bai noski!"

Eta haserretu egin zitzaidan pittin bat, baina logaleak nengoen gaueko tenore hartan... eta ziurtatu nahi izan nuen ea nire aitak zerikusirik bazuen hor... "Nor zen Oiartzunen?"...

"Peli, noski!", erantzun zidan bizi-bizi, eta niri igo zitzaidan buru barruan zerbait eta aditasun osoz geratu nintzen bere aho txiki haren zulotik labetxo batetik bezala lurrinduta irteten zirenak errejistratzen: ...eta heldu zitzaidan laguna baserrira, eta Biriaturun bildu behar genuela, eta berrogeita hamar lagun bildu ginen mugaz harantz eta Bidasoa gurutzatu eta Santa Kruz apaiza buru genuela"... "Aita Peli han al zen?", galdetu nion berriz..., eta hark baietz, haserre, eta ni neu nekatzen hasi nintzen, eta hala ere adi burua horretan, eta handik aurrera entzun nuena laburpen gisa geratu zitzaidan Joxe eta ni elkarrekin ginen honetan: Negu hotza egiten zuen, elurretan ere ibili ginen, baina urte berriarekin hasi zen apaizaren "goardia beltza" mugitzen: ixpiak hiltzen genituen bidean; bestela, salatarien eskuetan erori eta arerio beltzak hilko gintuelako probak genituenean... "Beltzak, liberalak"... Ez, goardia beltza, karlista... A! "Lizarraga jeneralaren aurka ere jarri ginen, baina aurretik berak Santa Kruz apaiza hil nahi izan zuelako. Sorabillako Patrizio Orkaiztegi apaiza, andoaindarra, gurekin zen"...

Neketsu zihoan hau dena, baina ez zen, gero, loak hartzekoa!..., ez bainekien sukarrak eragindako fantasia honetan nire aitatzok zerikusirik zuen... ikusten nuen Joxe gaixo zegoela, eta mojari deitu behar niokeela, baina ez zitzaidan Joxeri momentu honetan entzule gabe uztea ongi iruditzen... Endarlatzan egindakoa izugarria izan zela, baina, kainoi hura ezkutatu eta gero abiatu ginen eta hemen ere berekin kontrarioarenera zeramaten bat oinez zihoala guretako batek buruan emandako tiro batez hil zuela... Apaizak agindua? Santa Kruz ez zen Jainkoa, hark ere egingo zituen okerrak... gerra, gerra baita... sortzen dituenak du erantzukizun gehiena... eta esnatu egin nintzen, eta esan nion Joxeri ea Endarlatzatik aurreko bide horretan hil zutena nire aita zen!, ea non zegoen hor aitatzok, eta Joxe bera ere astindu nuen bere lozorrotik eta:

"Zer!", esan zidan, "zergatik jartzen zara honela, ikaratu nauzu...", eta lasaitu nintzenean esan zidan ezetz, Peli nire aita historia horretan Sorabillako apaiza, don Patrizio aipatzerakoan etorri zitzaizola burura, baina orain argitu zidan: Ba, esaten nizun bezala, Santa Kruzekin zerikusia zuen Orkaiztegi jauna, euskaltzale handia, hau lagun zutela 'Iztuitza txiki' baserrian, eta hemengo Joxe Mari izan zela Peli behin Francoren tropak nondik zetozen deskubiarta bat egiten ari zela... Joxe Mari eman ziola, bada, keinuz abisua, trenbidetik zetozeela Billabona aldetik bera eta bereak hil nahi zituztenak..., eta Joxemariri esker egin zuela eskapadarik handiena, harrezkero Andoaindik ihespidea hartu eta galdu omen zela...

Hau banekien nik ongi; Iztuitzako eskapada hori kontatu zidan herrian norbaitek; Joxemariren seme izan eta Toloxarenean nire ikaskide den Joxek, seguraski...

Baina Joxe Arretxe lo zegoen berriz bere makilaren gainean kokotsa zurrunka antzeko zitzu batean. Kendu nion kontu handiz makila, eta txapela kendu gabe, esnatuko ote zen beldur!, etzaten utzi nion gorputzari; argia itzali, alkandora hutsean pixka bat hoztu ere egin nintzen eta... Honetan kontu handiz ari nintzela, Sor Maria presentatu zen, agerkunde bat bezala!... isiltasun osoan, eta ni beheko ohera bidali...: "Jesus, Maria eta Jose!... hala, behera, behera!"... eta bultza ere egin zidan!...

Hemen ikusi nuen lehen aldiz Joxe Arretxe oso gaixo zegoela.

Duda-muda

Goiz hartan, neka-neka eginda esnatu nintzen; halere, ez beranduegi; aurrena Antton, gaizki esanda "buru-handi" esaten geniona; batzuetan goizean ere izaten zen parrokiari organo soinuarekin ospatzen ziren elizkizunetan, eta nola Antton organoko hauspoemailea zen, zangoekin ezker-eskuin, gurrpilik gabeko bizikletan bezala..., ba hura jaikitzen zen lehendabizi, ohitura zuelako; Antton jaikia zen dagoeneko, eta gosaritara sukaldera joana izango zen horretarako baimena zuelako; gero ni izaten nintzen beti bigarren, gosarirako baimen berezirik gabe, eta garaia heldu zenean joan nintzen jangelara, ea Joxe Arretxe ikusten nuen.... nahiz eta jakin honek ere bazuela goizeko baimen berezia, eta honek kontrakoa!, gosaria ohean bertan hartzekoa, baina, halere, ea ohizko ez zena suertatzen zen, nire bizian katramila asko gertatu bezala; ezin bainuen besterik egin, gelara joatea ezina nuelako, oso debekatua zegoelako... Urduri nengoen bart gertatutakoarekin... Gaixo zegoen, bistan zen... Eta jantokia hutsa zegoen oraindik, mahai luzea hutsik, katilu garbi eta guzti; kafesnea falta zen han, besterik ez, eta gosaltzera bankuetan esertzen ginen hogeita zortzi pertsona, gu, zahar eta gazte, ni gazteena. Atarira irten nintzen, bestela Sor Maria, moja, goizeko txanda aste honetan, hasiko zitzaidan galdezka, zertan nembilen berriz kuskusean!, gauean gertatutakoaz gainera!! Eta etxeko hormetan sortzen diren belarrak kentzen jarri nintzen nire gisa zerbait egitearren, zitekeen aginduari aurrea hartuz, beti listo ni!... eta denbora pasa pentsatzen, beti sortzen zitzaidan egonezin hau ezohizko erabaki bat hartu aurretik... eta berriz jangelara itzuli nintzenean han zeuden gehienak, nagiak ateratzen, alferrez, eta batzuk dagoeneko kafesnea zurrutaka hartzen, eta beste batzuk bezperatik gorde zuten ogi koskorrekin zopak egiten... Baina Joxe Arretxe, pertsonaia nagusia, falta zen, noski, beti bezala; eta ez nuen ezer galdetu!... Hau behin don Martxel apaiz jaunak erakutsi zidan: soldaduskan egon zen bere lagun batek esan omen zion bere aldamenekoari aluminiozko platera falta zitzaiola; "galdu" zuen norbaitek kendua, lapurtua, seguraski, soldaduskan galdu berez ez delako ezer galtzen, fusil bat gutxiago, baina ezta plater huts bat ere!...; eta don Martxelek esan zidan: "Zu egunen batean soldadutzarako harrapatzen bazaituzte, ez ezazu lapurtu dizuten hori denuntziatu, bestela gero sarjentoak badaki lapurtu duzula...; egin behar duzuna da zeuk deskuidoan dagoen beste norbaiti hartu... eta iltze batekin zure izena jarri!... eta kito". Eta nola?, galdetu nion, zergatik ez sarjentoaren bitartez gauzak argitu!, eta don Martxelek niri emandako lezioa: "Hara, Pedrotxo, ahal baduzu soldaduskara ez zaitez joan, ez da eta toki ona"... "Jende txarra?"... galdetu nion. "Batzuk", esan zidan diskretuki. Ni hor utzi beharrean, erantsi zidan, nire egoerak abantaila bazuela: "Zu ez zara joango, alargunaren semea zarelako"...

Eta, jontxo, min eman zidan honek, zergatik uste ote du don Martxelek nire aita hila dela, probarik ez dagoen bitartean, eta, gainera, pista on batzuk ere badaudenean...

Hau dena, denbora pasa ari naiz pentsatzen, askotan gertatzen zaidan bezala... Joxe noiz jaitsiko zain, baina ni aspertu, gosetu, eta gehienak gosaltzen ari zirenean, nik nekien zakutxo batean sobrantak gordetzen ziren bezperako opil bat hartu eta eseri

nintzen mahaian, gosaltzera. Paulak irribarre egin zidan pasatzerakoan, ezer esan gabe, beti baitzegoen Sor Mariaren bigilantzia..., arrazoirik gabe, baina tira!... Jaten ari nintzen martxa berean zebiltzan nire begiak Joxeren mahai-lekura noiz heltzen zen, nahiz eta nik jakin gosaria ohera ematen ziotela, zahartxo zelako eta errespetu hau merezi zuelako... eta halere baditut nik mania batzuk, dena niri komeni zaidan bezala egokitu behar dela pentsatzekoa, eta ez gauzak diren bezala hartzera konformatu!, huts handi hau ezagutzen dut, eta ostiraletan konfesatzera joaten naizenean esaten diot apaizari, don Martxeli, nahiz eta honek esan hori ez dela bekatu... ez dela!, nire hau falta txiki beniala besterik ez dela, dudala!... Ba, ez naiz konformatzen!, eta denbora pasa ari naiz pentsa eta pentsa leihotik kanpora begira, aspaldi gosaria hartua dut, ea Joxek atzeko irtenbidetik alde egiten didan... Argi egon behar dut, zeren eta bart egindako jaikiera eta guzti, eta neurez sekula egin ez dudana egiteko gogoia bultzaka dator nire atzetik... inork ikusten ez ninduen momentu batean eskailerak hartu eta goiko bizitzara igo nintzen, atea neuk ireki nuen kontu handiz, eta han zegoen Joxe Arretxe bere txano zuriarekin seko lo... nik uste, eta badaezpada ere gertuago joan nintzen arnasa entzuteko asmotan, eta Sor Mariak garrasi isil bat egin zidan nire belarri barrura: "Zer egiten duzu zuk berriz hemen?!", eta handik alde egiteko esaten ari zen bitartean nire txaketatxo beltzetik tiraka ari zitzaidan andrea, hura mojen terrenoa zela, eta zahartxoren bat edo beste bakarrik bizi zirela hor, gaez hobeto zaintzeko...

Pasilotik kanpora ninderamala, mojaren kemen harrigarria!, esan nion baietz, nire amatxo ere han egon zela...

Baina hizketan hasi orduko behean nengoen, zer egin ez nekiela; honelakoetan bruxula galtzen dut, banekien hau zela nire larrialdietan sufritzen nuen terremotoa... Halaxe hasi zait egun berri hau... Goizegi jaiki naiz!... Banoa sakristiara don Martxel heldu zain, meza laguntzeko, eta etorri zenerako, avemaria batzuk errezatzen ari nintzela, bazekien sor Mariak kontatutakoa.

"Zer zabilta zu goiko bizitzan", esan zidan goxo-goxo, oso leun eta garbi hitz egiten baitzuen don Martxelek... "ez al dakizu hori mojen pribatua dela?"... baina janzten ari zen kasuilari atzetik tira nion pixka bat, zimurra lisatzeko, bederatzia ziren dagoeneko.

Joxe ez zen mezatara jaitsi.

Gutxitan gertatzen zen hau, baina egun honetan gertatu zen. Meza amaitu eta sakristiatik azkena irten eta Joxeren tokia hutsik ikusi nuenean mina sentitu nuen barruan, zerbait txarra gertatu ote zitzaion!

Kaperatik irten nintzenean, Ama Mirakulutsuari Agurmaria bat esan eta gero, Joxek erakutsitako debozioa, Sor Mariak deitu zidan Aldabako amona aulkian esertzen ari zela. Hara joan nintzaion eta itxoin nion amonarekin amaitu zuen arte, eta gero eramanez ninduen sukaldara, eta ez zegoen inor, eta esan zidan sekretuan: "Aizu, Pedrotxo, nolatan igo zara goiko geure erresidentziara, klausurara!... Hori gure konbentua da, ezin da beste inor sartu, eta zuk badakizu; amatxo gaixotu zitzaizunean eduki genuen han, eta Arretxe jauna ere hor bizi da, osasunez ondo ez dabilelako, eta adinez aurrera... Zu igotzen zinen amatxo ikustera, baina... gainera handia, gizontxo, zara orain" ... Baietz aitortu nion, banekiela, baina Joxe Arretxe gosaritara jaitsi ez zenez gero, ongi sentitzen zen ikustera igo nintzela unetxo batean.

Ea ni zergatik arduratzen nintzen hainbeste, ez ninduela inoiz arreta horretan ikusi...

Isilik geratu nintzen.

"Ez da ezer", esan zidan nire estuasunaz kupituta eta lehenxeago nirekin hain gogor portatu zelako damuz Sor Mariak besagainean eskua jarritz, eta erantsi zuen beste hau, belarrira bezala: "Aspaldi konfesatu al zara?" Nik, ba, justu astebete, joan zen larunbatean... Ba gauza txikia da, baina ona izango zela gaur bertan egitea... Eta baietz esan nion.

Don Martxel larunbat arratsaldeetan jartzen zen konfesalekuan: andreekin saretxo bat tarteko, eta gizonezkoekin, eta batez ere nirekin, bere besoetan, semetxo bat legez izaten zen gure artekoa. Han pasatzen ziren zahartxo guztiak igandeko jaunartzetarako prestatzeko; askok ez zuen ezer esateko eta apaizaren onespina hartzera joaten ziren bakarrik, eta bakeleku polita zen. Ni azkena jarri nintzen, besoak gurutzatuta, zutik, besteak aulki zerranda batean eserita bazeuden ere... eta pentsatzen, Joxe ikusi nuela eguerdian, bazkaritan izan zela beti bezala, ez genuela hitz egin, behar ez zelako...

Eta ni nire txandaren zain.

Errutinako azterketa zela pentsatu nuen; dena errutina baitzen Etxe Handi hartan... eta, halaxe, ustegabeen don Martxelen ondoan belaunikatu nintzen bere eskuz nire burua hartuta... "Avemariapurísima"... esan zidan, nik neuk erantzun nezan, eta esan nuen...; galdetu zidan ea noiztik ez nintzen konfesatu eta nola nengoen, aitortzekorik zerbait banuen... eta isildu egin zen, nik zer esango... Neuk ezetz, ez nuela... betiko pentsamendu txarrak, burutik pasatzen zitzaizkidan horiek, beti bezala, baina ezer ez besterik; halaxe izaten baitzen aitorketaren errutina, eta don Martxelek beti lasaitzen ninduen: burutik pasatzen den txar guztia ez dela bekatu; bekatua izateko nahita pentsatu behar dela gaizki, edo gaizki dagoena egin...; baina gaur don Martxel zain..., zerbait egin ote nuen, nonbait... eta ni isilik, azkenean esan zuen arte: "Gaur goizean mojetara igo zara, klaustrora, gora... zertara?", eta nik atzera begiratu nuen, ea zain zegoen norbait ba ote zen han, batzuetan neronek ere entzuten bainituen nahi gabe atzetik hitz batzuk, ezer ez, baina... "Ez dago inor", esan zidan, "zerbait esan nahi al duzu?"... Don Martxelek ez zidan, beti hain xuxen eta diskretua, inoiz horrelakorik esan, pixka bat bultzatzeko, nire barruko kargaren bat banuen hantxe bota eta lasaitzeko, hori zen dena, eta nik bat-batean esan egin nion, nola bart Joxe nire bila ohera etorrita igo nintzen, hark eskatu bezala, eta abar..., hitzez hitz, zer pasa zen. Don Martxel harritu nuen neure konfesioarekin, bistan zegoen, eta nire buruan eskua jarri eta "Besterik ez?", galdetu zidan.

"Ez jauna"...

"Beno, ongi dago, egon lasai, eta orain berandu egin zaigu hitz egiteko. Baina bihar goizean, meza ondoren, nire gosari legea egin eta gero, sakristiara etor zaitez, hitz egin nahi dut zurekin".

Eta eman zidan bere esku bigunaz igurtzi bat buruan, eta "Zoaz bakean" eta abar, betiko agurra.

Ez zidan penitentziarik ere jarri.

Ni ongi sentitu nintzen gero; ez dezatela beste ezer pentsa. Zertarako joan behar dut mojetara. Errieta bila joan gabe ere nahikoa ditut Sor Mariak eta superiorak berak egiten

dizkidatenak. Inoiz ez gaiztoak, ez dut horren kexarik, baizik eta beti pixka bat bultzatzearren... Ni neu alferra ez banaiz ere, batzuetan zabartzen naiz, nire egitekoak suspergarriak ez direlako ere bai... Joxe Arretzek behin esan zidana, nire eginbeharrak denak aspergarriak direla, motelak, gogaikarriak, eta ez ni bezalako hamabost urte beteko dituen mutikoarentzat eginak!... Hamasei ere bete ditut dagoeneko harrezkero... Pentsabide hauek buruan pasatzen zitzaizkidan gauzez gehienbat, lo nengoela, eta goizean azkar eta txintxo gauzak egiten ahalegindu nintzen... sakristian aritu nintzen don Martxelentzat jantziak kajoitik kanpora atera eta janzteko prestatzen, aldarea ere bai, eta neu monagiloaren azpi gorria eta gaineko zuria tximurrik gabe atondua egon zedin, laburtxoia ere geratzen hasia zitzaidan; "Akolito" ere deitzen zidan bromatan don Martxelek!... Badakit apaizak ongi ulertzen ninduela, pozik zegoen nirekin... Baina urduri nengoen, ez dakit zergatik. Joxe ez nuen bere gelan geroztik topatu. Ikusi bai, baina ezta keinurik ere. Orain gogora etortzen zaizkit berak esandakoak, ez gaitzabela elkarrekin maizegi ikusi, mojek susmoak hartuko zituztela..., ez dakit zerena!... Arrazoi zuen, nahiz eta oraingo zertzelada honetan Joxek berak ni sartu... Hor zegoen mezatan, begiak behera begira, eta ni neu eginbeharretan; oso ongi egin nituen gauza guztiak, don Martxel pozik egon zedin. Batez ere nire erantzunak latin garbiagoan nahi zituen, ez hura zorrotza zelako, ez zorrozkeriaz, baizik eta nik latina ahoskatzen ikas nezan, nire onerako!... Joxe bera ona zen horretan!... "Ez itzazu hitzak jan", esan zidan behin kaperauak, ez: "quia tu es deus"... esan, baizik eta hitz bakoitzari bere zentzua ematen ahalegindu: "quia tu es, Deus, fortitudo mea; quare"..., eta abar nahi zituen, dena nire onerako, ondo baino hobeto ere erakutsi zizkidan eta aspaldi ez zuen kexarik... Apaizgorako nahi ote ninduen?!... Ba honela geratu nintzen sakristian berak mezatarako jantzia, kasuila, erantzi eta alkandora zurian gazteago ikusi nuen; sotana berriz, beltza, gerra tarteko zela eta nahikoa xahartua zeukan... Gero joan zen gosari legea egitera, gogorarazi zidan gure zita, eta ordu laurden bat barru hemen dator berriz nahikoa arin eta prestu...

"Beno", esan zidan sartu eta atea itxi ondoren bere aulkian eseri zenean, irribarrez, eta txalo bat bezala jo zuen bere bi esku zuri-gorri haiekin eta aurpegia argi garbia, masailak gorrixka politean koloraturik, hau zen bere osasuna... "beno, eser zaitez hemen" eta eskuz aulkitxo txiki bat bertaratu zidan... "Ez gara gehiegi luzatuko, hara, Pedrotxo, Pedrotxo Egiluz, hain xuxen..., esan behar dizut, hasteko, meza sekula ez bezalako puntuarekin notatu dudala, oso ongi dena... Sor Mariak atzo esan zidan, eta harritu ninduen, eta geroz zeuk aitortu didazu gertatua, zergatik igo zinen klaustrora... Bi gauza esan nahi dizkizut: bat, Joxe Arretxe jauna dela eta, eta Sor Mariak aipatutako puntutxo labur bat, bestea"...

"Joxe Arretxe", eta ni neu adi, don Martxelen begi argi haiei begira, "Joxe Arretxe meritu handiko gizona da; bere familiaz kontatuko zizun zerbait...", nik baietz buruarekin ... "eta Etxe honetan maite dugu; aukera handirik izan ez badu ere ikasia da, herri honetako gauza asko kontatzen ditu, eta nik neronek pozik entzuten dizkiot. Kontuan eduki behar dena da, adinean aurrera doala, eta gauza batzuk ahaztu, eta beste batzuk asmatu egiten dituela; gaur esaten dituen gauza batzuk, nahi gabe, e!, baina ez direla xuxenegi ebanjelioak bezala hartu behar. Hau ulertzen duzu, gaztetxo bazara ere, zerorrek, e?... Bai; gizakiaren gauzak honela dira"...

"Sor Mariak esan didanez, bestetik, Joxe Arretxe bart zure bila jaitsi eta bere goiko gelara igoarazi zaitu zerbait kontatzeko... Jakin al nezake zer esan dizun, oso sekretua ez bada behintzat"... eta don Martxelek irribarre gozoz esan zidan hau...

"Nire aitaren berri bat eman zidan..." eta kontatu nion laburzki zer gertatu zen, eta nola apaiz gerrilero bat...

"Aita Santakruz?"

"Bai", eta harritu ninduen hain xuxen igerri zuelako, eta ez zidan honen gerrileroa izan zenik esan, neuk galdetu banion ere, baina gerra martxan zegoela eta Andoainera euskaldunen kontrarioak sartzerakoan aita ia harrapatu zutela, Sorabilla inguruko baserrian Joxemari izeneko batek nola leihotik adierazi zion, kontrarioak hor zetozeela, baserriaren atzealdetik, nonbait, trenbidetik, eta alertatu zuela alde egiteko, azkar!, eta aitak zango arinak zituenenez lortu zuela garaiz itzultzea... Beraz, oraindik bizi zela, hara bizirik zegoen notizia!...

"Hori da dena?"

"Bai jauna".

"Eta zure ustez, honek esan nahi du zure aita Peli gerratik bizirik irten zela, ezta?"

"Horixe".

"Bada, adibide ona dut Joxe Arretxeren buruak nola funtzionatzen duen zuri adierazteko: Hara, Santakruz Apaiza, bigarren gerra karlistan ibili zen borrokan, joan zen mendean, orain hirurogeita hamar urte inguru... Eta zure aita... desagertu edo zen gerra, frankisten gerra, orain hamabi urte gertatu zen"...

"Ez al da gerra bera?"

"Ez bada!! Baina ikusten duzu Joxek nola gauzak, nahi gabe, e!, nahi gabe nahasten dituen; zer arrisku dagoen bere gaurko izaera ondo ezagutu gabe jaramon osoa egiten bazaio".

"Ez dit, halere, gezurrik esan"...

"Ez bada! Gezurrik ez, bere egia baizik, eta Joxeren egia ez da egia zehatza, anakronikoa baizik; bi aldi ezberdinetan gertatutakoak lotzen ditu zuri poz ematearren. Ulertzen?"

"Bai jauna".

"Ez iezaiozu hau Joxeri berari esan, haserretu egingo baitzaizu, asko, gaixotzea ere baliteke honelako haserre bat dela eta. Nik gauza bat egingo dut: zuri uzten joango natzaizu gai hauetaz hitz egiten duten liburu batzuk, edo zati batzuk behintzat. Irakurriko al dituzu?"

Nik baietz; eta bigarren puntura pasa zen apaiz jauna, baina ez zekien nola esan, ikusten nuen bere enbarazua... eta Sor Maria irten zitzaion berriz, eta esan zidan azkenean:

"Aizu, Pedrotxo, zu mutil azkar eta garbia zara... ezagutzen duzu joan den astean Ospitalera etorri zen mojai gaztetxea"...

"Bai", esan nion, "Paula"...

"Horixe..., mojak ikusi zaituzte honekin hizketan"...

"Bai, goizean ekartzen dudan ogia berari entregatzen diot orain, bera arduratzen baita eguerdirako mahaia jarri eta gauzak egiten"...

"Beno, badakizu, mojak arduratu egiten dira, baina nik badakit zu klaustrora gauez joan bazara, Joxe Arretxerengatik joan zarela, garbi-garbi, ez besterik, nahikoa da hau niretzat. Zu ez arduratu, neuk hitz egingo dut Sor Maria eta superiorarekin. Eta Joxe Arretxeren osasunaz arduratuko gara, sukar pixka bat zuen lehengoan, eta, bestalde, zuri esaten dizkizunak nola ulertu behar dituzun badakizu; neu arduratuko naiz zure irakurgaiaz, gizontxoaz egiten ari zara eta; ni pozik nago zurekin, estimatzen zaitut... Eta gaizki esanak barkatu!"

Hauxe esan zidan don Martxel gizon handi horrek, nik barkatzeko; zer barkatu behar diot bada apaiz jaunari?!

Susmoak

Susmoa, lore baten antzera ikusi nuen sortzen neure buruan; gogoan dut nola, zein tonutan eta nolako keinuz esan zidan behin Joxek: "Zuk ezagutzen duzu San Roke bidean dagoen lehen baserria, eta bertan lantokia duen Kasildo hargina"...

"Enterradorea?"

"Bai, ehorzlea ere bada, baina hilobietako harriak ere egiten ditu... Ba... hara", eta mintzatzeko tonua jaitsi zitzaion Joxeri doluetako triste beltzera...; harritu egin ninduen tristura hark... Euria ari zuen geratu gabe azken aste honetan; San Juanak ezkerro Etxe Handitik ez zen inor irten, janaren bila ez bazen, neroni ogi bila eta don Martxel Meza ematera, hau ogia hainbat behar genuelako, eta euri jasa berak iraun zuen igandeko goiz hartan meza entzun eta gero..., eta ez dakit zergatik egoera honetan aitatzeko etorri zitzaidan gogora bizi-bizi mementuan... Dena zegoen ilun; argiak piztu eta tximistak itzali zizkigun bi aldiz, orain luze, eta Joxe nire alboan, edo ni berean!, azkenetan balego bezala hizketan... "Gerra galdu zen egun hartan"... Joxe berean fijo: ..."arratsean, ni harriak lantzeko tailerrean nengoen Kasildorekin denbora pasa, itzalean baitzegoen gozo egun argi eta bero hartan, eta esan zidan Kasildok: 'Hiretzat Ospitalean afaritako ordua duk laster'...", eta Kasildo bera ere norbaiten zain, pertsona bat, hilarri baten enkarguarekin"...

"Nik hartu nion berehala indireta", esaten ari zitzaidan Joxe ilunbetan, "utzi nuen laguna bakarrik, honek hori nahi zuelako, eta jaitsi nintzen tapa-tapa Etxe Handirantz, nahiz eta jakin oraindik goiz zela, nire poltsikoko erlojuari begiratu ere ez bainuen egin behar egun hartako eguzkiari Buruntzako itzalaren ordua antzemateko, eta nik elegante, haserretu gabe, agur esan harginari eta sukaldean bere andreari, eta patxaran beheraino abiatu nintzen. Baina zuzenean beherantz jaitsi beharrean, bideko gaztainadira sartu nintzen..., entzun, Pedrotxo?, ikasi maliziak!..., ni itzal handiaren babesera, hozgirora!, ibilian, orain baino azkarxeago!, Ospitalera gainaldetik xuxenean gora, nire gelara sartzeko... Eta oinez eta burua lanean neramala... ni geratu..., ikusten, Pedrotxo?, ni gaztainondo zaharrak duen zain handien aurrean geratu, planto!, eta bertan eseri, denbora pasa...; eta, hara noizbait eskuineko begiarekin begiratu gabe ere non ikusten dudan ertzetik presaka zihoala, zein eta urlia"...

"Nor da urlia?"

"Urlia esaten dugu, egiazko izena esan nahi ez dugunean..., ulertzen?, 'halako' esatea bezala; ulertzen, Pedrotxo, malizia...?"

"Bai" eta ni isilik geratu nintzen, Joxek zer esan zain; hark ezkutatu baitzuen izen sekretuaren atzean norbait; hark jakin eta nik ez; ni nintzen hemen biluzik eta desanparatu, umezurtz, geratu zena... Isilune luze eta kupidagaitza izan zen hura, eta kupida behar zuena, Joxe izan zen, eta berak eman zuen amor: "Biharamun goizaldean entzun ziren 'Garagorri'ko kaxko aldean tiroak erreskadan, eta azken grazietako bakar bakan batzuk... Ospitaleko isiltasun handi hartatik dena entzuten, batez ere nik, leihoa zabal irekia eta kilkir soinua besterik ez airean..., eta halere ez zen nahikoa, nik gehiago jakin nahi nuen... gerra amaitu zuten hartan nola irabazi zuten nazionalek, ekarri

zituzten galdu zuten gorri batzuk bakoitza bere herrira, kupidaz, bertan hiltzeko grazia izan zezaten... Hau izan omen zen leku batzuetan zuriak gorrienganako erakutsi zuten erruki bakarra... Eta hemendik bila nenbilen goiz ilun hartan zure aitaxoren bidea zeren eta bezperatik etorri zena horretara etorri zela, zuloak enkargatzera; hau ez da nik bakarrik jakin nuena, baizik eta herri osoan zabaldu zena. Zenbat ziren? Ez genuen ezagutzen izen bat ere... Gero"... , eta Joxe bere tonu hartan!... Eta, bestalde, nola egun batzuk lehenxeago oso gaixo egon zen, beldur nintzen halako euri jasako trumoi hots batek hantxe akabatuko ote zidan gizona egongela handiko bazterrean, ia nire besoetan!, baina falta zena esan gabe...

"Eta..." esan nion neuk, erne jarri zedin, oso ahopez ari baitzitzaidan hizketan eta euriak zarata handia egiten zorrotenetako gangalaketetan..., eta nire zirikadari...:

"Hark, baietz"...

"Baietz, zer?!" altxa nion ahotsa, eta jarri zen azkenean bere onean hizketan, bizkortu nuen...

"Goiz hartan bertan meza eman zuen don Kosmek, don Kosme Odriozolak, orduko kaperauak, bere monagiloari, Joxe bera baitzen!, neroni!, esan zidala 'Ondarreta' baserriaren aurrez aurre, parrokiarako maldan zegoen lau bizitzako etxe batean bizi zen norbait etorri zela bere bila hilei kontsolamendu apur bat eman ziezaiela eskatzera, zeren eta bere eliztar gaztetxo bat, ikusten ari zela leihotik, zirrikitutik!, nola ari ziren kanposantuan gizonak tiroz bota eta bota eta multzo bat egiten!, herrikoak ziren ala ez ezin zutela esan, argitxintak ez baitzuen bereizketak egiteko bezain garbi erakusten, eta nolana ere kristauak zirela, zeren besoak gurutzean zabaltzen zituztela, kupira ez alferrik... eta mutikoa aitortzera joaten zen apaiz gazte hau etorri zitzaiola apaiz zaharrari etxera esatera eskandalu handian, negarrez... ea zerbait egiten zuen norbaitek, herriko norbaitek!, bederen, baina adina zuen apaiza ez zela gaztetxoa baino gehiago izan, ez zela ausartu kanposantura inguratzen..., eta esan zion gaztetxoari, bere lagunak ziren apaizak ere bota zituztela honela orduan baino lehen ere Hernaniko auzoan... Enteratua zegoen apaiza, hara!", esan zuen Joxek...

Haurrak ez zekien hainbeste, baina argia izan balu nahikoa erretratuak ere aterako zituzkeen Mausek dagoeneko buru muinetan sartua zuen kamararekin!

Goiza luzea egin zitzaigun!

Joxe eta biok geunden arnasestu batetik arnasten...Nik aitaxoren segurantz nahi nuen, hor zutela, edo ez zutela!, akabatu, baina Joxek ezin zuen ez zekienik esan... Utzi behar izan nuen bere hartan, bakean, ea arnasa lasaitzen zitzaion... Joan ginen esertzen bazkaritarako mahaian, eta ardorik gabe izan bazen ere!, aldatu zitzaigun pixka bat umorea. Joxeri begiraten nion urrundik, kidekeria ilun baten argitan, baina ez zituen begiak plateretik altxatzen, ez zidan begirada bat ere bota.

Nola esango zidan, bada, itxura horretan, amatxok niri isilka esandako izen hura!... Eta honetan neure babarrunak jaten ari nintzela tximistak jota bezala jaitsi zitzaidan zerutik don Martxelen oharra!

Begiratu nion honen begiekin, eta Joxe berean ari zen, jaten, inoxente, eta orduan berrikusi nuen neure buruan jaiotzen lehen sortu zitzaidan arrosa lore hura bera...orain zimeldua.

Akabo berriz esperantzak!

Fedea

Meza lagundu ondoren, don Martxel gosaltzera joaten zen mojetara, behean, bere jangela txikira. Beti bakarrik hartzen zuen kafesnea; opil, gurin eta guzti. Joan izan naiz enkarguren batekin. Egun honetan don Martxelek berak eskatu zidan:

"Hemengo lana amaitzen duzunean joango al zara gosari txikia hartzen dudana gelara?"

"Bai jauna", nik. Eta hala, jaso nituen gauzak aldarean, eta besterik gabe jo nion atea; Paula pasa zen hartan eta irribarretxo bat bota zidan; ni, serio, badaezpada, eta sartu nintzen apaiz jaunaren baimenarekin eta eseri nintzen berak seinalatu zidan beraren aurreko aulkian, mahaian bertan...

Nire burua mila jirabiratan, zer ote? Kafesne usain gozoa sumatu nuen hango kandela usainaren gainetik...

"Oso pozik nago zure portaeraz, Pedrotxo", esan zidan ezustean.

Ez nuen espero. Ez haserrerik ere, hau da egia; ni ongi portatzen ahalegintzen bainintzen, eta kaperau jaunak beti izaten zuen niretzat irribarre gozo bat, gozoa baitzuen don Martxelek irribarre oso, eta aitaz galdetzen zidan noizbehinka, baina ez ninduen inoiz, Joxe Arretzek esango lukeen modura, "audientzian" hartu...

"Esan nahi nizun hau, gauza batzuk formalki adierazi ere egin behar direlako. Oso argi eta prestu egiten dituzu esandakoak. Zure amatxo begira balego, poztuko litzateke. Astean hirutan eskolara joaten jarraitzen duzu"...

"Bai jauna, herriko eskolara"...

"Toloxa jaunarenera".

"Bai jauna".

"Adi ezazu, Pedrotxo, gure artean"... eta malizia pixka bat erantsi zion bere irribarre gozoari "makila pixka bat dantzatzen duela egia al da?"

Nik baietz.

"Badakit, bestalde, gure Joxe Arretzek musikako eskola batzuk ematen dizkizula..."

"Bai jauna".

"Badaki, badu maina, eta ongi nahi zaitu, zeren eta Musika bandako direktore eta parrokiako organista den don Liboriori zutaz oso ongi hitz egin baitio. Bazenekien hau?"

"Bai, jauna", esan nion prestu asko.

"Oso ongi iruditzen zait, eta hau bera esan diot direktore jaunari, mutil argia zarela; gaztetxoa, noski"...

"Hamasei urte egingo ditut laster"...

"Oso ongi, Komunio Handia egin zenuela bost urte badira!, hau ere esan dit Sor Mariak; zure inguruan inor ez gara konturatu gizontxoa egiten ari zarela, eta moja jatorrak dira honelako kontabilitateak ematen dituztenak... Goi mailako eskola ere badator, batxileratoa ikasteko gogorik bai?"...

"Bai, jauna, ahal izanez gero, ni neu pozik; eskola asko gustatzen zait"...

"Badakit otoitzak ongi egiten dituzula, errosarioari ez diozula hutsik egiten. Meza laguntzen neronek dakit argi eta pronto ematen dituzula erantzunak. Orain, zerbait gehiago erakutsi nahi dizut, eta nork daki noraino joango zaren"...

Eta irribarre gozo batekin ireki zidan buruan nire etorkizunerako bidea.

Hartan geratu zen egun hartakoa.

Egia esan, apaiz egiteko gogoia izan dut beti, eta honez gain, itxaropenik ere izan dut neure barruan, ezin hau uka.

Gero, astean bizpahiru aldiz deitzen ninduen goizean, eta ordubete edo biko klaseak eman zizkidan gozo asko don Martxelek.

Gogoratzen naiz behin nola hitz egin zidan Fedeaz.

Ez zait sekula ahaztuko:

Kristauaren fedea Kristogandik dator. Jainkoa gizon egin eta gu bekatutik salbatzeko gurutzean hiltzea eskaini zena; zertarako?; gero geuk zeru baten itxaropena izan dezagun, hemengo sufrimenduak, nik nire ama galtzea bezalakoa, aita non dagoen ez dakidala bizi behar izate hau, onartzeko gai izan nadin.

Eta, egia esan, nik nola eramango nuke ama betiko galtzea, gero ikusteko daukadan itxaropena norbaitek eman ez balit; nik aita egunen batean, ahal bada hemen, baina nolabait bestela hil eta gero zeruan aurkituko dudala ez baneki?

Eta hitz egin zidan, oso bikain eta argi, irakaskintzaz, maisuek eta apaizek duten erantzukizunaz.

Don Martxelek hau esaten zidan argi asko, badela gauza guztiak ikasteko adin bat. Haurtzaroan ereiten eta itsasten direla ongi jakintza batzuk, gaztaroan ere badirela garaikoak; gizona heltzen denean ere oraindik beste gauza batzuk sartzen direla, giroa horretarakoa delako, esperientzia hor dagoelako, eta zahartzeron ere ikasten dela oraindik gauza asko, baina beste asko ez.

Gauza hauek esan zizkidan egunean argi bat biztu zitzaidan buruan.

Ez zait geroztik itzali, garai onean ereina izan zelako, gariak ereiteko bere garaia duen bezala, eta patatak egitekoa beste bat; aza-loreak, bestea.

Gero, noski, ikasitako gauza eder horiek, Komunio Handia egiteko unean ereindakoak fruitu asko eta onak eman dizkidan bezala, kezka berriak ere sortu dizkirate gero, batez ere... Ni neu hasi nintzen neure buruari galderak egiten, eta don Martxeli egitera ez nintzen ausartzen. Esate baterako, nire kezka zen: nik egindako otoitzak nola banatzen ziren zeruan? Nik amari bidaltzen nizkion eskabideak nola iristen ziren hara, eta aitarentzat eskatzen nituenak, elkarrekin egiten banituen, gertatzen zen bezala, nola zatitzen ziren nire eskaintzak. Meza bat, esate baterako, askotan eskatzen zioten don Martxeli purgatorioan zeuden arimen alde, zein erreparto modu egingo zen han eta nola? Gauza hauetaz hasi nintzen arduratzen. Kasu bat: nire amaren alde eskatzen nuen, eskatzen dut oraindik, egunero, eta nire amak, ona zelako eta delako, horren beharrik ez badu, beste norbaiti lagunduko ote dio, ala galdu egiten da?

Behin ausartu egin nintzen, eta don Martxelek, irribarre gozo harekin, esan zidan horren ardurarik ez nuela izan behar, kontabilitate hori goian ondo eramaten zutela!

Barre txiki bat ere egin zidan.

Ez ni mintzearren, baizik eta nire arduetatik kezka hauek uxatu nahi zituelako.

Eta uxatu nituen aldi batean; baina gero, askotan lo nengoela!, sartzen zitzaizkidan barrura.

Eta pentsatu ere egin nuen: hau Joxe Arretxeri galdetu behar nioke.

Mirariak zeruan

Joxe Arretxeri behin harrapatuko aurrea eta, zeharo nahastu ninduen.

Batxileratoa ikasteko erlijioaz ere prestatu behar nuenez, don Martxel ematen hasi zen klaseen berri eman behar nion Joxeri. Ausartu egin nintzen.

Konturatu zen Joxe pixka bat harrotu ere egin nintzela, ikusi baininduen apaizak emandako klasea berari ematen hasteko nuen jite harekin. Joxe Arretxek entzun egin zidan bota nion guztia, isilik eta arreta handiz; gero, urteak geroago, konturatu naiz zein txoro aritu nintzen egun hartan, eta zein duin, maisu, portatu zen Joxe! Baina naizen honetan aipatu nion fedea zer den, zein zoriontsu garen hau etxean jaso dugunok, eta hasi nintzen nire otoitzetan pentsatu nuena esplikatzen..., alegia zerura egindako otoitzak nola egokitzen ziren han goian... Nire teoriak!

Hamasei urte bete ez zituen haur baten harrokeriak, hirurogeitik gorako aitona jakintsu bati kontatzen ari zitzaion ipuin astakirtena.

Itxaron zuen, bere begi zorrotz mantsotu haiek zeruari begira, esan nizkion guztiak amaitu ziren arte, eta hustu nintzenean, kaperauaren hitzalditik errepika nezakeen guztia, horretan memoria ona baitut nik, hara mezako latin guztia zein arin ikasi nuen!..., beno, ba, arnasarik gabe geratu nintzenean joan zitzaidan gorputzeko odol guztia oinetaraino Joxe Arretxe jaunak hain duin eta patxadan esan zidanean:

"Bai, Pedrotxo, ulertzen dizut ongi, eta zoriondu behar zaitut hain azkar hainbeste ikasi duzulako... Hori ongi dago. Misterio handiak dituzu oraindik zeure bizitzaren aurrean. Orain arte sufritu dituzunak, eta oraindik aitatxo dela eta sufritzen ari zarenak ez daude haur guztien esperientzian. Ongi enkajatu duzu orain artekoa. Hemendik aurrerakoa ez da errazagoa izango. Zure kasu honetan don Martxelek hain ondo erakutsi dizuna, ez da bakarrik zuk errepikatzen ikasteko; hori, 'ikasi', loritoek ere badute ahalmen hori, pertsonak, zeu bezalako pertsona azkar eta sentiberak, buruz ikasiz gainera ikasitakoaren zentzua lixiritu egin behar du..."

Nik zer esan zain, nire onera etor nendin denbora ematen, baina ez nintzen gauza arnasa ganoraz hartzeko ere, estutu egin nintzen asko.

Lasaitu nintzenean, ez lehenago, jarraitu zuen:

"Zuk pentsatu dituzun gauzak, bai, pentsatzekoak dira... Nik esango dizut misterio horiek ez direla haur baten buruan jartzekoak, zeren eta oso astunak baitira... Zeruan gauzak nola doazen hemen eta gaur zeure bizitzako esperientziarekin pentsatzen jartzea gehiegi da. Don Martxelek esan dizkizunak ez ziren, segur naiz, horrelako bidetan jartzeko esanak... Erantzukizun handiko gizona da, apaiz handia, gotzain ez bada, ez da horretarako meriturik egin ez duelako, politika dela eta jazarpen handiak sufritu dituen gizona delako; aitatxo bezala ibili da eta dabil oraindik ere don Martxel, zuk jakin dezazun, eta hau ez diozu, gero, inori esan behar!"...

Nik, buruarekin, ezetz, harriturik!

"...Gauzak honela dira... Don Martxel apaiz on eta handi bat da, ez zaitu zu estutu nahi izan; saio batzuk egin dizkizu, beharbada, zure onerako pentsatuak...; neronek ez dut hori bera egingo"... Ni nirera etorri nintzen ordurako eta hainbeste miresten nuen

gizona, Joxe Arretxe, ari nintzen nire gainean, goian, ikusten, eta esaten hasi zenak oraindik gehiago liluratu ninduen, zeren Joxe bera ere nire miresentzen aurrean handitu egin zen, gora igo zen oso... "Ikusi zertan aritu den nire buru hau pentsatzen, zeruko gauzak!, pentsa nire amatxo, Markesak ni egindakoa, gajoa gaztetxo zela ni jaiotzen, ni haur nintzela hil baitzitzaidan, zuri zeurea bezala... esan dezagun... hogeita bi edo hiru urte zituela hil zenean, nik bost bat urte, justu ezagutu nuen, gogora datorkit oraindik amatxoren aurpegi polit fin hura, ia haur bat!, eta ni hara gora joaten natzaionean, Jainkoak nahi duenean, egin dezagun hemendik bost urtera, hirurogeita hamar izango ditudanean..., joango natzaiola bastoi eta guzti nire hemezortzi urteko amari!! Zer esango dit amak ni hain zarpail ikusitakoan, hain polit eta haurtxo hemen utzi zuen bere seme kutuna Markesak arras abandonatua!!"

Niri begira geratu zen Joxe, orain bera!, zuri pasatua, ia berde geratu zitzaion aurpegia!

"Ikusi, Pedrotxo", esan zidan kinka larri hura pasa zitzaionean, "nola diren hemendik, lur triste honetatik, zeruko gauzak hemengo katalejuekin harropuzkeriaz, begira hasten garenean... Eta gauzak ez dira hala izango, hango neurriak ez ditugu ezagutzen, eta patxada osoan hartu behar ditugu hemen pentsatzen jartzen garenean. Hau pentsatzen jartzea ez da bekatu!, baina neurritz; batez ere zu bezalako hamabost urteko haur bat denean"...

"Hamasei egingo ditut", esan nion.

"Halere, Pedrotxo, gazteegia zara oraindik sarerik gabe zirkoko komeria horiek hain goian egiten hasteko"...

Santa Kruz apaiza

Agindu bezala, don Martxelek irakurgai bat ekarri zidan; mezondoan bere gosarian bildu ginenean, patrika handi haietako batetik liburu polit bat atera zidan. Dotrinatik kanpo lehen eskaintzen zidana. Kafesnari zopak egiten ari zela, bere irribarre polit hura ahoan esan zidan:

"Liburuxka hau zuk irakurtzea nahi dut; euskal idazle jator eta gozoenetako bat dugu; ez duzu 'Orixe' ezagutzen"... Nik ezetz... "Ba, irakur ezazu presarik gabe... baina lo hartu gabe!"... eta barre egin zuen... Eskuetan neukan liburua, lehen aldiz niri irakurtzeko eskainia, nahiz eta benetan nirea ez zela jakin, baizik eta don Martxelen liburutegikoa... Eta liburuari begira nengoen bitartean begien bazterretatik apaiza gosaria jaten ikusten nuen, soseguz eta gusto handiz ari zen jaten... Honek gogorarazi zidan behin nire amatxok kontatu zidana, aitak esandako gauza bat; aitatzok berak nola dotrina ikasi zuen: Hamar urterako alga donerara joaten zen bere aita Gregorio (orduan Subijananeko zurgina) eta arrebekin, hauek oihal fabrika lan xumeak egitera, denak lanean; eta hala, behin aitona Gregoriok esan omen zion aitatzori: "Aizu, Peli, Komunio Handia egiteko adina baduzu eta 'Kapoiamera' joan behar duzu alga doneratik atera eta gero"... Hala kontatzen zion aitak amatxori nola egoten ziren Jaunartzeko kintako seiak, ilunabarrean Maindiko iturria dagoen ondoko etxe txiki batean, han bizi zen 'Kapoi' ezizenekoaren sukaldean lurrean eserita, kapoia bera esne zopak jaten ari zela haurrak goseak amorratuta, maisuak galdetzen zituenei erantzuten, banan bana, erreskadan..., baina beti ezpain-xokoetatik esnea zeriola dotrinako galderei xuxen erantzuten ahalegintzen...

Haiek ziren aita Pelik amatxori aipatutako haurtzaroan izan zituen "klase partikular" bakarrak. Honetaz ari nintzen pentsatzen ni orain, neu, Pedrotxo, hemen, don Martxelen aurrean, beste era batera!, zeren hemen ni gosaldia nago, jan ditut nire esnezopak, eta bakarrik nago, liburua eskuetan, dagoeneko irakurtzen dakidalako, eta irakasle ona den apaiz jaunaren ardurapean; zein gozoki ari zaidan apaiz jauna esaten liburu hori irakurtzeko uzten didala, lasai, denbora dudanean, gauez, oheratu eta argiak itzali bitartean... Ez du beste inork Ospitalean libururik irakurtzen, askok ez dute liburu bat ikusi ere egin, aldareko handia eta urrutitik ez bada, eta neu izan naiz apaiz jaunak bereizia Aita Santa Kruzen bizitzaz irakurtzeko parada polit hau izan dudana, eta gainera, don Martxelek esan didanez, egile handi den 'Orixe' honen eskutik idatzia datorrena.

Nire zoritxarrean gauza onik ere badut Etxe Handian! Don Martxelek amaitu du txukun asko bere gosaria, mahaizapia ongi tolestatu eta guzti egin eta esaten ari zait, irakurtzeko ariketa honek bi eginkizun dituela, bidea hobeto irakurtzeko eta bestea hobeto hitz egitekoa ere, eta: "niri gustatzen zait gauzak ondo esatea", esan nuen konturatu gabe, nire baitan ari bainintzen, eta don Martxelek entzun, arreta nigan jarria zuelako...:

"Pozten naiz, Pedrotxo", esan zidan, "gogo hori izatea, eta zuk ikasiko duzu! Jainkoak lagun dagizula" ...

Honekin agurtu ninduen apaiz jaunak, eta berehala ohera joan eta liburua burukoaren azpian gorde nuen.

Geroxeago, eginbehar batzuk bete eta gero, tentazioak eman eta bertatik hartu eta atzean genuen basora sartu nintzen, Joxe Arretxe esertzen zela esaten zidan tokian (orain paseoan zen) jarri eta hasi nintzen irakurtzen; hasieran mantso, hitz batzuk ez nituen ondo ulertzen eta, baina bazkaritara joan nintzenerako hiru orrialde irakurri eta ulertu nituen osorik.

Hau izan zen aurkikuntza!, etxe ingurutik irten gabe Santa Kruz Apaizarekin abenturan sartzeko modua izatea; mendian bere taldearekin ibili banintz bezalaxe sentitzen nintzen!...

Eta oraingoan Joxeri ez nion ezer esan!

Ulerkuntza

Pedrotxo ez zuten lehen bezala Etxe Handian han-hemenka nahastari ikusten; goizeko mezan han zen, txintxo asko; otorduetan ere bai, baina eskolatik piper batzuk egiten zituen bakoitzean norbaitek don Martxeli galdetu balio mutikoa zertan zebilen, apaizak gordeko zion sekretua; halere ez zekiena zen irakur-laguna aurkitu zuela. Santa Kruz apaizaren liburua irakurtzen ari zela, astiak eta argiak ematen zion ahalbide guztiaz baliatuz, Joxe Arretxe eta gaztetxoa askotan biak aritzen ziren, gazteak irakurri eta zaharrak zuzendu, hau zen liburua egiten ari zen zerbitzua.

Nola apurtu zen hain erraz Pedrotxok Joxe Arretxeren tentazioan gehiago ez erortzeko bere baitan hartu zuen erabaki sendoa?

Erraz.

"Pedrotxo", esan zion Joxek arratsalde batez, "goizean zure bila nintzen eta ez zaitut aurkitu; liburu bat aipatu dit Sor Mariak, baina elizakoa hor dago aldare gainean, eta besterik ezagutzen ez dudanez Etxe Handi honetan, pentsatu dut mojak ere hasi direla gezurrak zabaltzen"...

Pedrotxo, ni, neu, ez nintzen ongi sentitu, eta aitortu egin nion bekatua.

Joxek ulertu ninduen ongi... Arazoa da Joxek letra handia bakarrik irakurtzen duela, txikiak ez ditu ezagutzen... Horregatik latinak buruz ikasi zituen, beste gauza asko bezala..., eta hala, gaztetxoak III. atala irakurri zuenean maisuaren aurrean, Joxek esan zion mutikoari: "Pedrotxo, irakurri duzuna ondo dago, baina zer jartzen du tituluan?... Utz iezadazu hau niri irakurtzen", eta silabak banan bana irakurriaz, Biblia balitz bezala, esan zuen: "GERRARREN SORTZEA; JAUNGOIKOA; EUSKALERRIA; ERREGEA..., honek esan nahi du, eta tituluak du beti arrazoi, honetxegatik jartzen dute hasieran eta letra handiarekin..., esan nahi du: gerraren sortzea Jaungoikoaren gauza santua dela, eta Euskal Herriaren erregea Jainkoa Bera dela".

Mutikoa ez zen konforme, baina hala geratu zen egun hartakoa.

Ezinbestez.

Ordurarte ez zuen Pedrotxok Joxe salatu, baina argitu nahi izan du hau don Martxelekin hurrengo gosaritako dotrinan. Eta hain soseguko gizona zen don Martxel asaldatu zenean esan zidan Joxe Arretxeri nik nion begirunea ona zela, baina neurri batetik gora, letraz eta irakurketaz, jakin behar nuela dagoeneko Arretxe jauna baino aurreratutago nengoela, eta Santa Kruz apaizaren liburua irakurtzerakoan, nire metodoa zela egiazkoa, zientifikoa, letra handiak eta txikiak, biak irakurri behar direla liburua ulertzeko, eta orain adierazten ari zen kasu honetan, Pedrotxo gazteak zuela arrazoi, neuk, eta ez urtez eta esperientziaz zaharragoa zen Joxek.

Eta, mesedez, jarrai nezala liburua bakarrik irakurtzen, eta nituen kezkek apaizari berari galdetuz, argituko zizkidala ilunak iruditzen zitzaizkidan pasarteak.

Hara nola hainbeste miresten nuen Joxe Arretxe mailaz jaisten hasi zitzaidan.

Handik aurrera, aldiero, galdetzen zidan apaizak ea irakurketa nola zihoan, eta behin, liburuan aurreratuta nengoen batean galdetu egin zidan don Martxelek, ea zein zen gehien gustatu zitzaidan pasarteak. Konturatu nintzen azterketa moduko zerbait zela,

eta arduratu nintzen, apaizak jakin nahi zuela zenbaiteraino ulertu nuen liburua eta zein izan zen nire aukera... Halaxe, esan nion:

"Bat, Andoaingo jendea aipatzen duen zatia markatu dut, eta nahi badu, jauna, irakurriko diot..., eta kolkotik liburua atera eta irakurri nion don Martxeli: 'Lizarragak, batez ere Ayako erasoan ez zion lagundu agindu bezela. Lizarragak, Gerra-Batzarre nagusirako zula ta bereganatu nai zun apaiza: baño ark igarri zion, etzala artarako. Karlista nagusien adieraziz joan zitzaizkion Santa Cruzei Berara, Luziano Mendizabal jauna, Patricio Orkaiztegi jauna ta Andoaingo Larreta gazteena, arren, zetorrela Lizarragaren menpera, eta batean geigo egingo zutela.' (hau 90. orrialdean)".

"Beste hau, polita delako, eta Santakruz apaizaren agudezia nolakoa zen erakusten duelako: 'Orain Oyartzunen, gero Ernion, dagoeneko Oñatin dantzatzen zan apaiza. Bearko, karlistai biotz pixka bat emango bazien. Jakin izan zuen Santa Cruzek, karlistak Amorabietan utzi zituzten armakin, Bergaratik Mondraura zijoazela liberalak, beren mutil-sailentzako. Bide berriaren bi aldetan pareta zegoan da, an izkutarazi zitun Santa Cruzek bere mutilak, eta bera arontz-onontza asi zan, etsaia noiz etorriko. Bazetorren bada urbil, eta artetik igarotzen, Santa Cruzen keñu batera, tiro jasarekin bere biziko zalaparta ateratzen zutela, izutu eta aizatu zituen liberalak. Ogeita bost lagun ziran Prantzitik atera ziranean baño bederatzi geiago. Santa Cruzek agindu zien oju-zalaparta aundia ateratzeko, asko zirala usteko zutela-ta. Lenengo tiro-jasa entzun-orduko, laisterka igesegin zuten liberalak zamak utzita, bertantsu zegoan etxe batera, Santa Cruzek, aiek utzitako armak artu bizkarrez bere mutilekin, eta aldegin zun. Berrogeita bat eskupeta, iru kutxa bete balarekin'... (41-42. orrialdean dago)".

"Oso ongi", esan zidan don Martxelek txundituta. "Zuk ikasi duzu, Joxe Arretxek baino hobeto, Santa Kruz apaiza nor zen eta zer egin zuen. Orixeri esker, noski, baina baita zure irakurtzeko gaitasuna, oso polita, eta zure adimena lastotik garia bereizteko gai zarelako, dagoeneko. Gaurko dotrina eman dugu!"...

Eta han ikusi nuen don Martxelen bihotza noren alde zegoen!

Nirearekin batera.

Hegoak eramana

Joxe goiz oheratu zen.

Hau zen hurrengo goizean esan zena, Sor Mariak garrasi hura egin eta gero. Bitartean Etxe Handia lo zegoen. Goizeko seietan, egunero bezala, Antton hauspoemailea esnairik zegoen, gizonezkoen gelako zurrungen gorak eta beherak bere pedal eraginak sortuak balira bezala, hau izaten zen bere ametsa beilan zegoela, ez baitzuen kankailuaren buruhandi hark lorik behar erne egoteko; alboan zeukan Pedrotxori sarri esaten zion bezala, oheratzen zenean begiak isten zituen, besteek bezala, eta besteak loak hartzen zituen berehalaxe, eta Antton bera ez... berehala hasten zen hau entzuten ilunbetan, lehendabizi zurrunga txikian, txitoen modukoan, gero oilaskoen eta oiloen eta handiagotzen joaten zen oilategi osoko loaren arnasa handi hura..., batzuk laster burrunba luzean eta gero ziztu batzuk han-hemenka, treneko makinaren baforeak bezalatsuko bafadekin, batzuk goiko ziztuan, martxa handian, eta beste batzuk, bazekien Anttonek nortzuk ziren, Exteban eta Austin, eta beste batzuk beherantzeko zurrungetan, Justino 'harginak' bereziki, hargina izanak... eta hau nik, Pedrotxok, ere egiten nuela esaten zidan Anttonek... jauzika egiten nuela lo, esna eta lo, esna eta lo, eta batzuetan garrasitxo bat edo besterekin nahastua, lo nahasia!, eta amari deika eta batzuetan berarekin hizketan ere bai aritzen nintzela, lo nengoela hizketan... Hau omen da nik lo egiten dudana modua. Anttonek esplikatu bezala. Bestela, ez nuen sekula jakingo nolakoa zen nire loa... Honetan berezia zen Antton hauspojolea, oso goiz jaikitzen zena, baina jaiki arte ere gaua esnairik, erne!, pasatzen zuena... Parrokiako erlojua zuen hark buru barruan sartua, komaidios, eta barkatu, Jauna, zure izena ahotan alferrik hartua... Elizako organua bezala entzuten omen zuen gauetz gela handian; hainbeste haize, huts, putz, putzaldi eta uzker tarteko oso gauza bitxia omen zen gauetz Ospitaleko gela handian adi egotea...

Eta, esan bezala, dena parrokiako erlojuarekin kronometratua...

Hau belarrira esaten zidan, lotsa ematen ziola eta, baina egia izango zen uzker nagusiei koloreak ere ikusten zizkiela! Galdetu egin nion, kuriositatez, ea Ramuntxorenak, nire ezkerreko ohean lo egiten zuenarenak, zer koloretakoak botatzen zituen, eta "berdeak" esan zidan bi aldiz pentsatu gabe; Jeronimorenak ere berdintsuak berde-muskerrak... Nireak, galdetu nion, "hik ez dut uzkerrik botatzen, antsiak baino", esan zidan. Uzkerrik!, Baxiliok botatzen ditik gorriak!, Ixakek bezalakotsuak; txurixuriak Sinplixiok, ez dik ezer jaten eta!...; beltzak, Andrex handiak, baina gelari buelta osoa ematen dioten horietakoak gero!..

"Txuribeltzak?", nik galdetu, sinistu ezinik.

"Txuribeltzak andreek botatzen omen ditiztek, baina nik ez diat horrelakorik inoiz ikusi... Horiak, Xeferinorenak, etxeferoak bezalako "plaxta" txiki batzuekin, oso barregarriak...; urdinak... nork uste duk hik urdinak botatzen dituela?"

"Urdinak...", goiz batean honetaz ari ginela, "urdinak, Maximinok, oso politak; beltzaranak, grisak, berriz, Mattin aroztikiarenak, oso diskretua baita"...

Barre egin genuen biok! Ez dakit amatxoz hizketan triste samar ni ikusi eta niri barre eginarazteagatik atera zuen orduan gai hau, baina ez genuen koloreaz gehiago hitz egin. Ni egon nintzen behin zerbait ikusten ote nuen, baina ez nuen babarrunen tiro hotsa besterik entzuten, eta loak hartu ninduen berehala.

Ez dakit zerk eraginda, noizean behin buruko minez kexatzen zen, eta ni izaten nintzen goardian zegoen mojarengana aspirina bila joaten nintzena, eta horrekin pasatzen zitzaion berehala.

Gauza bat ez nion Antton hauspojtzaileari sinesten: gauez goiko bizitzan lo zegoen Joxe Arretxeren arnasa entzuten zuela esaten zuen. Gehiegi iruditzen zait!... Baina egia dena da, Sor Mariak zazpiak laurden gutxitan egin zuen garrasia entzun baino hamar minutu lehenago Anttonek esnatu ninduela eta esan zidala belarrira:

"Pedrotxo... Joxe Arretxe koroketan zegok"...

"Zer esan nahi duk?"...

"Arnasestuan, hiltzeko zorian dagoela"...

Tonu isil eta lasai batean esan zidan belarrira gauza izugarri hau...

"Erotu al haiz!"... ohean eseri nintzen, galtzak janzten hasi ere bai..., baina Antton niri begira ikusi nuenean, ez zitzaidan bere onean zegoenik iruditu... "Nola dakik hik?"... galdetu nion, eta isiltasun haizetsu hartan, zeren eta hegoa zebilen bezperatik zitzuka teilatu eta leihoetako zirrikituetan..., hauspoemaileari horrelakorik entzutea, honen zoraldietako bat iruditu zitzaidan eta erantzi galtzak eta ohean sartu nintzen berriz...

"Zer ordu da?", galdetu nion Anttoni...

"Laster zazpiak"... esan zidan...

Orduantxe entzun zen garrasi karrankari labur bat Etxe Handi guztian!!

"Hara, Sor Maria duk"..., esan zuen Anttonek.

Eta hor piztu ziren Etxe Handian negarrak, eta bertoko apopiloak, andre eta gizon, denek batera gora igo nahi zuten, mojen nagusia bera, Sor Luzia, arduratu zen pazientzia handiarekin; ardiak artegira bezala bideratu zituen agure gizarajoak, bakoitza bere heriotzaren beldur, egongelara, eta han eserarazi, eta laster, bosteko taldeka, gosaltzera joan zitezen bere ohiturako bakean. Gehienek negarrez jarraitu zuten, baina apurka-apurka baretzen joan zen Etxe Handia. Goian Sor Maria eta bi emakume, Anttoni "Karrera" eta Jexuxa "zesterua", lagun zituela, Joxe Arretxeren gorpua janzten ari ziren bitartean, don Martxelek eman zuen ohizko meza ohizko ez zen orduan, egunerokoak ez ziren negar zotinak lagun, eta Pedrotxo, oso hunkitua, latinak aldrebes eta batzuetan apaizari erantzuteko indarrik gabe, ahal zuen bezala mutikoa meza hunkigarria laguntzen; mezerdian juxtu, Joxe Arretxek berak neurtu balu bezala, entzun zen parrokiako kanpai handiaren dunbada lehorra eta mantsoa, herri osoan denbora berean entzuna heriotzaren iragarle, oraindik norena zen jakiterik ez bazuten ere, baina ahoz aho ordu erdi bat nahikoa izango zen Irulegi eta Txitxaraindik Sorabillako azken baserriraino hila Joxe Arretxe zela jakinarazteko.

Mojak eta don Martxel bera ere, denak, norabidea galdu eta eguneroko ordenua hautsi zen etxean, eta Joxeren gela txiki eta apalaren bake xuri eta haizetsuaren inguruan tximeletak argiaren ingurutik irten ezinik bezala geratu ziren denak.

Joxe Arretxe zen harrezkero Etxe Handiko erdigunea.

Herri osoak ere sentitu zuen tirada.

Mojek esan zuten aurrena, harritu egin zirela Joxe hain goiz oheratzen sentitu zutenean, eta gainerakoek hori bera errepikatu zuten, "ora pro nobis" bezala.

Pedrotxok, nik, isilik egin nuen negar. Ikusi ahal izan nuen Joxe oraindik bere txapel zuria, lotarako txanoa, buruan zuela, maindirea leporaino igoa, besoak gordeta, gora begiratzeko jarreran, baina begiak itxita. Sor Mariak jaitsi omen zizkion betazalak, zeren eta bizirik zaudenean bezala islatzen omen zuten leihotik sartzen zen argia..., goiko izarrak kontatzen balego bezala... Baina honen aurretik plastako!! handi bat entzun zen Ospitaleko bazter guztietan, entzumenaren arabera, noski, denek ez baitute entzumen bera; adinak badu zerikusirik, eta leihoaren plastada ikaragarri hura egiaz entzun zutenak, Antton hauspoemailea eta Pedrotxo izan ziren, ezer esaten ez bazuten ere.

Pedrotxo ez zen oraindik gertatutakoaz osorik jabetu, ez zion zaratari egiazko ondoriorik antzeman, ez zion gorputzari izpiriturik igerri... eta Sor Mariari galdetzen zion behin eta berriz nola ikusi zuen gertatua, eta mojaren esanetan, beronek sentitu zuen zerbait mugitu zela hegoaren txistuarekin Joxeren gelan; sargoriarengatik honek irekia utzitako leihoa zen haize-bonbaren pizgarria... eta Sor Mariak leihoa isteko asmotan gelako atea ireki zuenean leihoko bi leihatilak danbadarekin itxita zeuden dagoeneko, Joxe Arretxeren joan aurreko zarata handiko adioa:

"Agur, denei!"..., esan nahi izan balu bezala.

Pedrotxo, ni, ez nago honetan mojurekin konforme; Joxe Arretxek ez zuen honelako teatrorik egin beharrik uzten zuen hutsuneari musika txarreko danbada jartzeko; nahikoa zuen joatea. Diskretuki joan zen bezala. Agur.

Gertatu zena da Hegoak eraman zuela!

Eta Hegoa beti da burrundari.

Sor Maria izan zen goiz hartako aldi batez Etxe Handiko topaleku, denak galdezka zer nolako danbada hotsa izan zen hura, seinalea!, harrezkero hasi baitzen hego epel kementsua txistuka, "ai"ezka, eta ez lehenago.

Inork ez daki, eta ez du jakingo, Antton buruhandi eta Pedrotxo izan zirela adio honen zain egon ziren bakarrak.

Arratsaldean jarri zuten Joxe Arretxe Hernanitik ekarritako zerraldo beltzean frantziskotarren hiltorrarekin jantzia. Estanix barberoari eskatu eta han etorri zen bizarra egitera. Pedrotxo, ni neu izan nintzen bere ondoan luzaro egon zenetako bat, eta, egia esan, nik neuk ez nuen Joxe sekula hain aurpegi onarekin ikusi; kolore horixka hark ere zurigorriago zirudien... zeruko kolorea hartzen hasia, seguraski, hau inori ezin esan banion ere. Zerraldoaren inguruan jarri zizkioten kaperan Etxe Handiko aulki guztiak, errosariora herriko jende asko etorriko zen eta. Badaezpada ere, bertokoek, etxeok, hartu zituzten lehen lerroetakoak, eta afaltzera deitu bazuten ere, denetarako baitzegoen denbora!, ez zituen inork preferentziako aulki haiek utzi nahi izan. Mojek egin zituzten ahaleginak, orduak ere ondo markatu zituzten, denetarako denbora eta tokia izango zutela bermatzeko, baina gutxi izan ziren arrats hartan afaldu zutenak.

Seietan afaltzen zen Ospitalean, zazpi t'erdietan hasiko zen errosarioa.

Bazen denetarako denbora.

Alferrik!

Zazpietarako Ospilateko kapera bete zen. Pedrotxo lehengo lerroan, gorpuaren eskuinean eseria, ni. Aldarean sei kandela zeuden piztuta, eta barneluzeko hiru bonbilak; jende asko zen, gizasemeak gehien!, ilunez jantzita etorri zirenez gero, eta emakumeak buruak mantilaz estaliak, ilun ikusten zen Joxe Arretxeren ingurua, aldareaz aparte, eta bere eskuinean gau eta egun piztua izan zuen oliotako tximeleta-argitxo gorri polit bat, gorpua bera argitzen zuela. Isiltasuna ez zen osoa, Etxe Handiko apopiloak berak ziren berritsuak, batez ere bere terrenoko etxe barruan sentitzen zirelako, eta hila ere berak jarria zelako, dena zen konfidantzan prestatua. Don Martxel aldarean agertu zenean isildu zen marmarra, mugitu ziren aulkiak, eta Pedrotxo bere jaurlekutik zutitu eta inguratu zitzaion apaizari zerbait esanez... gezurra badirudi ere, hemen neu honelaxe ikusten nintzen goitik, gorputzaren gainetik, jaso banenbil bezala..., eta irten egin zen, kaperaua zerbaiten bila geratu zen bitartean; orduantxe sartu ziren Ospitaleko lau mojak eta Paula eta aldarearen aurrean zeuden lau aulkitan eseri ziren..., eta hor dator alboko atetik Pedrotxo, ni neu, makila eskuan dudala!, eta inguratzen naiz Joxeren zerraldora eta jartzen dizkiot, begi guztien argitan, aurrea txapela bularraren gainean eta gero bere eskumakila ezaguna kontu handiarekin zerraldo barruko eskuinean, luzeran!!

"A!"... luze bat entzun zen; Sor Luziaren "xist" batek itzali zuen hotsa.

Pedrotxo lehengo tokira itzuli zen.

Don Martxel, aldareko eskuinean zegoen aulki xume batean eseri eta eskuak belauen gainean lotuta zain geratu zen, pelota partiduetan apaizak Aitagurearen ordua iritsi zain egon ohi diren antzera; eta bitartean oinak txinalka bezala hona eta hara, ez dakit nor!, hainbeste zarata; inor ez baitzen gehiago kapera kabitzen, baina jendea sartzen zen nonbaitetik erdi ilunbe hartan, leihoetatik edo!

Agian Joxe Arretxeren arima oraindik penatan.

Denek (burua jiratu zutelako) ikusi zutena sartzen eta mojen ondoan egin zioten tokitxo batean eseri zena zera izan zen, norbaitek esan zuenez, Sorabillako palazioan bizi izandako amonaxo bat.

Kandela usaina besterik ez zen sumatzen kapera, lore batzuk aldarean ageri baziren ere, eta beroa, hegoa lasaitu bazen ere.

Parrokiako erlojuak zazpien hurrengo bi laurdenak jo zituen bezain laster, don Martxelek eman zion behe aulkiari jira eta belaunikatuz hasi zen Errosario Santua aulki, zapata, apreta eta txinelen zarata handi eta luzez inguratua... Apaizaren sarrerako latinak entzuten ziren "zaratamundu" eta "pronobis" horien gainetik, azkenean apaizaren ahotsa gainditu eta hitz irmoz nagusitu zen arte, gainerakoa, konpainia zen murmurio eten eta ezberdinetan, hotsak bloke batzuetan eginak izan balira bezala, hori entzuten zuen Antton hauspoemaileak bere baitan, begiak itxi eta atzean zeukan amonari aldare guztia tapatzen ziolako protesta isilean, baina, gero Pedrotxori, niri, esan zidan bezala, elizkizun ederra izan zen, polito apaizak esana eta polito herriak erantzuna, sentimendu handiarekin, hori ere antzematen ziolako berak elizkizunetan noiz eta nola jendeak esaten zuen "Ora pro nobis" a maitasunarekin.

Gero, Joxeren zerraldo eta gorpuaren aurretik mundu hura banan bana pasa zenean, bederatziak jo zituen parrokiako erlojuak Antton hauspoemailearen buruan, eta mojak ahalegindu ziren gero etxeko zahartxoak oheratzen.

Ez ninduen, ez, loak hartu!

Hurrengo egunean, larunbata, egin ziren parrokiak hiletak. Mundua izan zen Andoain eta Urnieta-Hernaniko auzoetatik oinez, peregrinazioan bezala, etorria. Zurezko gurutze eder bat jarri zioten zutik, lurrari zuzenean erantsita, han lurperatuta zegoena nor zen jakinarazteko norbaitek dotore beltzez pintatuta, eta begira nengoela azkena geratu nintzela konturatu nintzenez neure buruari esan niona: Aita Peli hemen izan bazen egun hauetan berak bere eskuz egingo zion gurutze eder hau, aitona Gregoriori bere eskuz egin zion bezalakoa, eta ni oso haurra nintzela, amatxok erakutsi zidana ni gomuta nadin egunen batean, gaur, esate baterako.

Joxe joan eta gero, bakarti, lehen baino bakarrago sentitzen naiz munduan.

Halere, eta hau da hileta hauen guztien gauzarik harrigarriena, hilerritik itzulian nentorrela esan zidan norbaitek, ez dakit nork: "Peli ikusi diat kanposantuan!", jendartean botea, eta hitza norena zen jakin nahi izan nuenerako alde egin zidan!... "Agertu al da?"... entzun nuen oraindik haize epelak belarrira presaka ekarri balit bezala...

Gerra amaitu zela hamar urte

"Pedrotxo" Ospitaleko laguntzaile nagusia zen hamasei urterekin, dagoeneko egun handi hau sortu zenerako. Aldarean, meza eman ez beste guztiak bere esku egoten ziren. Hau eta sermoiak ezin zituen egin, beste edozer gauzatarako gertu sentitzen zen, eta don Martxelek ere konfidantza guztia jarria zeukan beragan. Joxe Arretxe falta zitzaion behar zituen kontseilu... ezkutuak jasotzeko. Don Martxelekin konfidantza osoa zuen, eta hainbat aldiz joan zen beragana aholku eske, eta beti xuxena jaso, noski. Baina, halere ezin zen ba neska kontuekin apaizagana joan!, aitorketara ez bazen behintzat... Joxe bere baitan sentitzen zuen oso maiz, lotan ere agertzen zitzaion eta!, baina ez zen lehen bezala zuzenki eta noiznahi zeukan kontseilari berezia... Hari esker zegoen musika bandan finko, soldata eta guzti. Gutxi!, baina hileroko sos batzuk. Barkileroaren bezero zen igandetan, musikako deskantsuetan, Tronpoleonenean ere bazegoen gustatzen zitzaion karamelu mota bat, eta betiko Alonsoneko malbabiskokoak. Honetan joaten zitzaion soldata eskasa eta, egia esan, baita don Martxelek ematen zion propinarean bat edo beste ere. Ez zuen ura besterik edaten, Joxek erakutsi bezala, eta ez bere musika bandako alproja batzuek egiten zuten antzera... Ba, heldu zen egun hau, berebiziko sonarekin prestatu zuten bandan, elizako kantuetan ere egin ziren saioak; parrokiako apaizak ahalegindu ziren, ikusten zituen eginahalak berak, Pedrotxok, neuk, lanean, elizkizunak prestatzen. Don Martxel ez zen arduratzen jai handi honetaz, bere irakurketa eta estudioak, hizkuntza zela, artea zela, denetik zekien gizon handi honek!, nahikoa zituen hark, Berrospeko kapilak eta Ospitaleko mojek lanak ematen baitzizkioten.

Behin galdetu nion, mezondoan, sakristian jantziz aldatzen ari zela, ea berak, don Martxelek, ez zuen zereginik Parrokiako jai handi horietan..., ez bainuen hau inoiz han goian ikusten.

"Zertarako nahi duzu ni hara joatea, han dauden apaizak nahikoa direnean?", esan zidan... Eta gainera erantsi zion, askotan asko pentsatutako gauzak mantso-mantso botatzen zizkidan bezala:... "Badira jaiak eta jaiak, apaizok baditugu gureak direnak, geuri dagozkigunak, Eliza barrukoak, eta badira besteak musika eta fanfarria!...", hala esan zidan, hitza jaso eta guzti, "fanfarriako jaiak direnak... Ez dut esaten elizgizonok ere sentitu behar ez ditugunak direnik, baina ez bereziki gureak, edo orokorrean elizgizonok ospatu behar ditugunak... Ulertzen, Pedrotxo?"... Nik baietz, beti arrazoi izaten baitzuen kaperauak, batez ere eliz arazoetan, noski, baina ez nion ongi ulertu.

Gero egon naiz askotan pentsatzen nik gehiago eutsi izan banio goiz hartan itaunketari, beharbada funtsezko zerbait esango zidala.

Baita Joxe bizi izan balitz ere...

Baina heldu zen ba egun handi eta bero, eguzki gehiegizko hura; banderaz josi zuten herria, Hernaniko Agustinetatik hasi eta Urnieta barrena Etxeberrieta eta Sorabillaraino, herri guztia. Bandak bildu behar zuen meza nagusiaren ondoan goiko plazan. Nik bateria jaso nuen garaiz mataderian eta Elixondoneko taberna barruan utzi nuen, meza nagusia abestera joan behar bainuen korura, don Liborioren zuzendaritzapean, eta organua, Anttonek eragiten zion hauspoa eta guzti. Nik ez nituen nota beltzak, txuriak

eta borobilak besterik ezagutzen, eta kortxea abestu behar zenean, belarriz ibiltzen nintzen; honetarako banituen bi edo hiru abeslari onak zirenak, eta haien ondoan abesten nituen presakako nota txirbil horiek!... Noizean behin begiratzen zidan zorrotz samar don Liboriok, baina nola asko ginen, batailoi bat ginen koruan abesten egun hauetan, ez zien direktore jaunak antzik ere ematen nire hutsei... Hala, elizkizuna zoragarria izan zen, eta abestiak onenetakoak; sermoia ere berezia izan zen, erretoreak berak esan baitzuen, eta Bilbo, aitatzok ihesi egin behar izan zuen alde hartako gerra, hamar aldiz aipatu zuen, kontatu nituen!, nork neuk adina motibo izen hori kontuan eramateko!, eta egon nintzen zain aitatzok aipatzen ote zuen ere... herrikoa eta desagertua zelako bederen, baina ezta behin ere.

Egon nintzen hau norbaiti galdetzeko, ea zergatik aipatzen zuten Bilbo eta nire aita ez, baina ez nintzen ausartu, harrokeriatzat hartuko zuten agian eta...

Meza nagusiaren atzetik prozesioa egin zen, isila eta solemnea, entierro handi baten antzekoa. Galdetu ere egin nion txintxina jotzen zuen Joxe Luix lagunari, ea zergatik hainbesteko isiltasuna, eta erantzun zidan haserre:

"Hilak, babua!"

"Zein hilak?", ausartu nintzen belarrira galdetzen.

"Caídos"...

Orduan konturatu nintzen nire aitatzok sermoian ez aipatzea, ez baitzen erori, ez baitzen hil, bizirik irtendakoa izan zelako...

Amaitu ordurako nire bateriaren bila joan nintzen, eta hau bizkarrean nuela heldu nintzen kontsejupera; lagun batek, Babilek, esan ere egin zidan: "Bonboa hi baino handiago duk, motel!", nik barre egin nion, zer egingo nion bada instrumentu honek bateria izena zuela ez bazekien, gizarajoa... Hemen biltzeko agindua genuen. Laster hasi zen jendea plaza nagusian prozesio berezi antzeko zerbait prestatzen, eta hemen bai banderak eta banderak, neskak txapel txuriekin, gizonok, gure bandakoak ere bai, txapel gorritz... Baina izugarria!, txapel beltzak debekatu balituzte bezala!... Eta: "Bateria!" deitu zidan don Liboriok, banda formatzen ari zen eta... Azkenean don Liborio bera aurrean jarri eta "Txunba-txunba" hasi ginen jotzen, eta maldan behera abiatu ginen, gure aurretik, ni konturatu ez banintzen ere, mundua zihoan, bandera gorri-horiak, txikiak eta handiak, asko, eta gero estandarteak ere bai... "txunba-txunba-txunba, txin!!", belarria gainezka, eta meza nagusitik irten zen jendea bidean genuen gu ikusten, espaloietan, eta ¡Viva!, ¡¡Vivaaa!! handiak non-nahi, andre, neskato, mutil, gizon, denak, batzuk militarrez jantzita, kolorezko arropekin eta beti txapel gorri, borla hori, eta zarata izugarri hartan bagindoazen beherantz, Ondarretatik behera Basterorantz, zaratak hautsak edo laino batek bildu bagintu bezala, "Txanpa, txanpa!!"... ni neu atzera samar, bateriak gauza gutxi ikusten uzten zidala, bateriaren gainean papera ere bai bainuen neuk behar ziren notak jotzeko, oso erraz egiten nuen hau... Eta maldaren beheko muturra, Basterora, heltzeko orduan hor dator Tolosako tranbea txistokitik barrena, zarata ikaragarri harekin eta "tin-tin-tin"... kanpaitxo soinu harekin barrena, eta gure manifestaldiaren buruan zihoan gizon handi batek besoa jaso zuen ezpata batekin eskuan... geratzeko!, tranbea zetorrela, alegia, eta don Liboriok ere besoak jaso eta "Alto!", eta seko geratu ginen denak martxan eta musika jotzen ere bai, ez baitzen tranbearen zaratarekin musikarik entzuten!... Eta azkenean tranbea pasa zenean, don

Liborio bazihoan banda martxan jartzera tranbearen atzeko isilune berri hartan, eta ezkerreko aldean izkina egiten zuen etxe handiaren goian balkoitik gizon batek garrasika dei egin zuen... Alkatea izango zen, edo agintea zuen norbait, behintzat, eta hau hasi zen, han goitik, balkoitik, kolpeko isilune hartan hizketan, garrasirik egin gabe, nagusigoa, manua zuen norbait zen, ikusten zenez, balkoitxo hartan kabitzen ziren bizpahiru pertsona zeuzkan ondoan, autoridadea zaintzen bezala, eta hauetako bat uniforme urdin batekin, eta gizonak hitz batzuk esan ondoren urdin honek besoa luzatu zuen, eta seinale bat izan balitz bezalaxe Basteroko gurutzean bilduta zegoen jendetza guztiak gauza bera egin zuen, besoak luzatu, eta garrasi batzuk bota ere egin ziren, eta "Viva España!"..., "ba!, ba!"... hau da nik ezagutzen nuen bakarra, eta gero balkoiko gizonak eskuaz zuzenki ni markatzen ninduela iruditzen zitzaidan, eta nik ez nion kasorik egin, zeren eta askotan gertatzen baitzitzaidan niregatik ari zirela pentsatu eta beste zerbaitez aritzea, hau korriente egiten zitzaidan, baina nire ondokoek ere, musikariek berek ere esan zidaten:

"Hi, Pedrotxo, hi markatzen hauela"...

"Ni, zergatik?", ez nuen ulertzen.... baina bai, gainontzekoak, denak, niri begira jarri baitziren, eta zerbait gehiago esan zuten balkoitik, nik ezer ulertu ez banuen ere, eta etorri zitzaidan belarrira bonboaz ari zirela, nire bateriaz, ez dakit zergatik, eta don Liboriori begiratu nion eta baietz esan zidan honek... jaisteko bateria, jaisteko... Nik jaitsi nuen isiltasun apartsu, murmurgarri, hartan eta begiratu nion don Liboriori..., eta hau nigana zetorren eta lau pauso egin zituen hartan entzun nion balkoiko gizonari:

"Fuera ese chico del bombo, fuera!"...

"Fuera!!!", erantzun zuten garrasika denek, eta denek nire kontra: "Abajo el enemigo, abajo Peli Egiluz!..., traidor a la Patria!"... Eta bonboa kendu zidaten esku artetik, hartu zuen ni baino zaharrago eta txapel gorria zuen beste batek..., Ramon Ollero, kanpotarra, ezagutzen nuen, nire ondoan maiz jartzen zen igandeean bandarekin nik bateria jotzen nuen bitartean..., ikasteko berak!, antzeman nion, eta uniforme kakia zuen beste borladun batek, gizon egina, nik ez nuen ezagutzen, hartu ninduen gogorki, pintza batekin bezala, besotik eta atera ninduen kale erditik espaloiraino, eta espaloian bultza, ostiko bat eman eta esan zidan:

"¿Por qué no has levantado el brazo?"..., ni isilik, ez bainuen ezer ulertzen, eta: "¡Al Hospital, por ahora!"...

Niri ez zitzaidan negarrik irten, ez bainuen negarrik botatzeko mementu honetan; lotsatua nengoen, eta barrutik irakiten haserre, gauza guztiaren zergatia ezagutzen ez nuelako....

Aitatxo zergatik aipatu behar zuten, elizan ez eta prozesioko jai hartan! Zergatik bere aurka irainak!... Maldan gora nindoala hasi zen berriz musika eta zarata eta deiak, gorak, beherak!...

Hau don Martxeli kontatu behar nion dena,

Honek defendituko ninduen, eta Etxe Handian, denek, mojek eta guzti.

Ai!, Joxe Arretxe begira balego!

Bonborik gabe

Egun hartan ez, hurrengoan, eguerdi-eguerdian agertu zen Ospitalean pareja, Sor Luzia, mojen Nagusiarekin hitz egin nahi zutela.

Neronek ikusi nituen ailegatzen.

Ez nuen sekula santan, hau don Martxeli ikasitako adierazpena nuen!..., ez nuen pentsatuko inoiz bi goardiazibil haiek nire bila zetozenik, eta neronek deitu nion Sor Luziari. Gero, bazkaltzera eseri nintzen besteekin. Justu otordu ordua zelako, eta babak bero-bero platerean neuzkala etorri zitzaidan moja, ni ikusi nahi nindutela... eta bidean galdetu zidan zer egin nuen, eta nik ez nuela ezer egin, eta orduan larritu nintzen egiazki!... Bi goardiak, txapel txarolatu eta guzti, han zeuden zutik ezkaratzean, eta biak aurrean zutik utzi eta moja bera eseri zen gela txikiko mahaitxoaren atzeko aulkian...

"Este es el joven que dicen"... esan zien.

"Pedro Egiluz, ¿es usted?", esan zidan zaharrenak, bibotedun, porzierto, eta ni neu burutik oinetara dardaraz... "¿Es usted el que provocó el incidente ayer en la manifestación?"

Nik baietz...

"Bueno, Pedrotxo, zer egin zenuen? Esan"...

"En castellano, por favor, Sor Lucía"...

"...¿qué hiciste?"

"Lo de la batería, Sor Lucia, ya dije"...

"¿Qué batería?", galdetu zion biziki goardiak, kainoiak aipatu balitu legez.

"Me quitaron el bombo".

"Vamos a ver", esan zuen goardiak: "Hay denuncia de la autoridad superior que en el momento solemne de alzar el brazo de saludo a la bandera y al himno, el acusado irrespetó las dos cosas, absteniéndose de hacer la señal de rigor..., ahora haga el favor de abandonar este local", esan zion mutikoari, niri, "y espérenos a la entrada del Hospital", eta Pedrotxo irten zenean esan zion goardiak mojari: "Lo que no sabíamos es que el acusado era un muchacho"...

"Esto es, cabo Gutiérrez, que tiene dieciséis años, y tampoco es de demasiadas luces; es un huérfano que fue recogido aquí cuando el comienzo de la guerra. Ha entrado en la banda de música, está loco de contento con el bombo; ayer lloraba cuando nos contó que se lo habían quitado; seguramente no se dio cuenta del saludo que le tocaba hacer"...

Eskerrak Sor Luziari, arazoa konpondu zen.

Hala zirudien; zer egingo zuten goardiek legearen aldetik adin horretako mutikoarekin?

Kabuak esan zuen, ikusiko zuela hori konpontzen zuen; erabakia herriko agintarien esku zegoela. Honexegatik espero zuen mojak, herritarren artean, zuzenduko zela gauza. Baina hurrengo egunean bertan, arratsaldean, etorri zen udaltzaina ofizio batekin, ikusi berria zutela Ospitaleko zerrenda, eta aspaldidanik agertzen zen Pedro Egiluz, hiru urte zituela sartu, ama bertan hil, bai, baina dagoeneko mutila gaur hamasei urterekin lanerako modukoa eta oraindik han lo eta jan egiten zutenen arteko nominan zegoela.

Irregularitasun hau nolabait zuzentzeko, gai hau zegokion zinegotzia joango zela mojen Nagusiarekin hitz egitera lehenbailehen. Agurrak eta formalitate guztiak berekin zituela uzten zuten moja bere gisa zain. Alkatea.

Sor Luziak bere mojen artean zioena: ia semetxea dugun mutiko hau nola utziko dugu kale gorrian?

Goizean meza ematera etorri zen bezain laster ohartarazi zion Sor Luziak kaperauari, mezondoan hitz egin nahi ziola, ahal bazen Pedrotxo gehiegi alarmatu gabe. Egin zuten biek honetarako ahalegina. Gurutzatu zituzten mezuak, eta don Martxelek jakin nahi zuena zera zen, zinegotzia ohizkoa zen, ospitalarekin zerikusia zuena ala ez, eta honek zer esaten zion; laguntzeko biderik balego honekin, Aldaberekin, hitz egiteko, alderdi honetatik izango litzateke bidea...

Arratsaldean bertan etorri zen Aldabe jauna.

Mojari eman zion gertakizunaren aipaera ofiziala, eta mojak azaldu zion bere jarrera, ama baten erregua; baina laster konturatu zen erabakia hartua zegoela. Auzia ez zegoela, noski, haurraren karga ekonomikoan, betiko "prezedentean", honela aurrerako sor zitzakeen baldintzen aitzakiatan, baizik eta honen aita zenak-edo gerraurrean eta gerran izan zuen jarreraren baizik. Agerian, politika jokoa. Haur baten kasuan ere bai?!, arduratu zen moja, eta aitortu zion zinegotziak, baietz, eta ez bere jarrera pertsonala honetan zegoelako, baizik eta udal osoaren jarrera ofiziala adierazteko eginkizuna ekarri zuelako. Gau hartan bertan joan zen Sor Luzia gordespenean don Martxelekin hitz egitera, zinegotziaren erabakia hilaren barruan betetzeko agindua zuelako.

"Berri txarrak"... esan zion don Martxelek moja etxean hartzerakoan.

"Bai... esandako berak"... eseri zen kaperauak eskaini zion aulkian, eta berau zutik geratu zen, besoak gurutzatuta, sarri egiten zuen moduan:

"Zer egin genezake?"

"Nik pentsatu dut berorrek dituen harreman eta tratuek leunduko gintuzketela Kolejioren batean, seminarioan, ez dakit... zerbait lan egin dezan mutikoak, bizkorra da eta, eta bide batez ikasten jarrai"...

"Herriko maisuak beti ongi hitz egiten dit, mutil saiatua dela eta irudimen handikoa..., eta nik ere hala uste, hala uste, beharbada gehiegitxo"...

"Ez harritu, don Martxel, mutiko horrek izan duen zoritxar eta gabeziekin"...

"Bai, eta oinarrizko hutsune isil-handiak ditu mutikotxo horrek bere barruan, Sor Luzia...; zeuk asko lagundu diozue!"

"Bai, geu ordezkoko pobreak gara, don Martxel"...

"Eta zeuk nigan uste duzuna...; hara, berehala esango dizut bide honetatik aurrera joan baino lehen: atzo bertan etorri zitzaidan norbait hona, zure aulki horretan egon zen eserita, eta ni hemen zutik, oraintxe bezala... Niri abertimendu bat egitera etorri zitzaidan, egitera ez, botatzera!, nire berri ongi dakien bat etorri zen, maliziaz betea, mutikoaren portaerarekin neronek zerikusirik izango ote nuen galdezka, alegia... bai, egon zaitez sor Luzia..., neroni mutikoa gaiztotzen ari ote naizen, ea eskarmenturik ez dudana!, oraindik hamarkada bat besterik ez geuk hainbeste gaiztakeria egin genuen gerra gaizto hura amaitu zela... omen, eta konbentu baten babes santuan gordeta urteak egon, bizia salbatuko banuen, beste apaiz batzuek bezala garai berean galdu orde, eta ez

dira nahikoa nire bi eskuak kontatzeko!, nire anaia eta lagun maite haiek, eta nik babes santu, bai, santua, izan nuelako kexa zen gizon hori atzo bertan hemen"...

"Ez da posible"...

"Bai, posible da; beraiek hasitako gerra ez dute oraindik amaitutzat eman; eta arazo hau isilik eta prestu erabakitzen ez badugu, neronek irten beharko dut hemendik, botako naute, lehengo desterru berera, Herritik kanpo, 'berton kalterik ez egiteko moduan' utziko nautela esan dit, hitz horiekin berekin".

Eta don Martxel moja izutuaren aurrean eseri, bi eskuak amorru santuz lotu, eta geratu zitzaion, begietan bakea, hala ere, Sor Luziaren aurrean.

"Ez dugu ahalbide xumeenik ere"...

"Zerbait egiteko gauza izango ahal gara, halere... baina mugak aurrean jarri nahi izan dizkizut, eta zerorri aurretik jakitun zarenez gero... hemendik aurrera nire ahaleginak kalte egingo lioke mutikoari; honek maliziarik jartzen ez duen edozeri erantsiko lioke malizian dabilenak nirea. Ikus gertatua! Seminarioan, Kolejioetan, denetan dituzte horiek salatariak. Bide eskolatuetatik alde egitea izango da onena, oraingoz behintzat, datorren higidura"...

"Bai, hala dirudi"... dio Sor Luziak, "hona begira dauden bitartean beste nonbait mugitu behar genuke, eta ez zure bidetik, guretik baizik... Ez ahal digute guri, mojei,... gorri, separatista..., honelako ezer erantsiko!"...

"Ez genioke bere jokoari gehiegi jarraitu behar... Esan nahi dut: alde batetik, ezin gara elbarrituta bezala geratu. Haurra atera behar dugu aurrera, eta hila amaitu baino lehen, ez dezaten aitzakia izpirik izan... Ezin gara Espiritu Santua jaitsi zain hemen geratu. Baditugu egun batzuk"...

"Hamasei"...

"Hamasei egunetan jaitsiko ahal zaigu zerbait"...

"Nik baietz uste".

"Nik ere bai, Sor Luzia; eguneroko lanetara eta adimena piztuko da. Lanera!"... altxa zen don Martxel!

Izuak hegoak luze

Egun hura markatua geratu zen herrian, zeren harrezkero ez zen Pedrotxo ez ezer jakin, ez Ospitalean, ez Kaletxikin; huts honetaz lehen ohartu zena okindegiko Alberta izan zen, ez baitzen goizean ogi bila, eta bere opila!, jasotzera etorri, eta Goardia Zibilaganako amorrua eta dardarra erraz zabaldu zen ogiaren bidetik herri osora... Herritarrek, esatera ausartzen ez baziren ere, pentsatu bai egin zuten goardiek eraman zutela. Nora? Auskalo!... herri xehearen irudimena aberatsa baita. Sor Luzia bera joan zen kabua ikustera, ezaguna zuenaren konfidantzan eta don Martxelen burua ezertara behartuko ez zuelakoan, hau zen bere ardurarik handiena!; eta Gutiérrezz kabuak, egiatan!, esan zion, ez zela Komandantziako ekintza izan, Udalak berak hartu zuela arazoa bere baitan..., eta, isilka aitortzen ziola... lekuko politika nahasi zela hasieratik... Baina, kontuz!, une honetantxe!, mojak mutikoaren falta komunikatzen zion une berean, arauzko zela, erreglamentuko ordenu baten agindua, une honetan bertan sartu zela bere alorrera, kabuaren terreno bera ukitu zuela, eta hemendik aurrera, edozer gerta, Komandantziako peskidak martxan jarriak zirela... Sor Luzia ikaratu zen! Ezin zezaketen oharkabe salatari bihurtu (haurra berez nonbait gordea bazegoen, bere aukera errespetatu nahi zuen...; baina gauza batzuk ezin dira atzera bota, batez ere Goardia Zibilaren gurgil hortzduna tartean sartzen denean)... Mesedez!, ez zezala konfidantza hura beste modura erabil!... Baina goardiaren txarolak islatzen zuena ilundu da dagoeneko, begirada ere aldatu zaio... Moja irten da berehala don Martxeli nahasmendu honetaz kontu ematera, eta apaizak mundua baduenez lasaiago hartu du eta trankildu du Sor Luzia..., ezin dela denetan asmatu, batez ere armada tarteko bada... Nork mobilizatua, eta Pedrotxok!... "barre pixka bat ere egin behar da eta, Sor Luzia"...

Eta gauza zabaltzen ari da, Pedrotxo bera berriak iritsi duen arte. Iztuitzako Joxe bere eskolakideak esaten dio hurrengo goizean goardiak bere bila hasiak zirela: galderak okindegian, gero haurren artean itaunketa serioak... bere lehengusu bati, Nikolaxi, galdetu ziotela... Zergatik?, Pedrotxok ez zuen ulertzen baina Joxek bai, zeren adin berekoak baziren ere, Iztuitzako familian entzundakoaz gehiago zekien Ospitaleko mundu itxian marmiatutakoaz baino, eta bazekien haurrak galtzen zirela mendian, askotan itota... karteroaren semeari Lizarkolan gertatu zitzaion bezala: bizikletan zihola ibaira erori eta harri biribil handi haietako baten kontrako kaskarrekoarekin konortea galdu eta oinak bustitzeko lain ur zuen putzutxo batean nola ito zen; bestea, Plaentxiko mutilzaharra, honek harria lepoan zuela Islaneko zentrala baino beheaxeago bere buruaz beste egin zuela, hau nahita, jakin zen bezala, eta Leitzaranen bertan oraindik, hor bertan, gauza bera gertatu zitzaiola Liberto Malintxurinekoari trenbideko zubi handitik bere burua ibaira botata, eta honek papertxo bat eta guzti utzi zuela barandan, beste mundurako zerbaite nahi zuela eske oraindik...

Eta, zinegotzi zenez gero, Peli, "hire aitak", jaso zuela han goian...

"Eta hik nolatan dakizkik kontu hauek guztiak eta neuk ez, eta nola gertatuko zituan bada hirurak inguru txiki horretan?"...

"Baina ez garai berean!", dio Joxek, "baizik eta urtetan zehar, eta zoritxar berak herriaren buruan kordatuta etortzen dituk gauza hauek... Gertatzen diren gauzak... Bitartean, hi Bilboko gerran gurasoekin, aita galduta... eta amatxo eta hi Ospitalean, herriko beste muturrean... hara herriko berririk ere ez dela heltzen... ez zekiat bada"...

"Eta zergatik lotzen duk nire ezkutitze hau itomen hauekin guztiekin?!"

"Beste kasu hauetan ere peskisa berak egin zituztelako... Etxez etxe bila hasi badira, oso urrun gaudek hemen, eta nondik nora etorriko dituk palaziora? Hau dena hondatua zegok eta bazekitek hemen ez dela inor bizi"...

"Hemen ez bada bizi Señoritua, non bizi duk bada? Ez duk hil"...

"Nik dakidala ez"...

"Eta nola hilko duk bada zuek jakin gabe? Ez al duk itxia geratzen den gela horretan egongo, gero?!... Hik ezetz esaten duk baina, kanposantuan lurperatu ez badute, eta hor ez duk ageri bere izenean hilarrik... orduan, heriotzaren berri zuek, eta herri osoak, jakin ez badu... Eta niri Joxe Arretzek, gizon serioak, hemen bizi zela esan bazidan, nondik nora nahi duk bada jauregitar honetatik irtetea... sistema bakarra, Joxe Arretzek kontatu zidan trena hartuta... gela horretan egongo den geltokian trena hartuta joana izatea... Gela hori nahi diat ikusi, atetzar hori palankarekin bota behar badugu ere!"...

"Hik hortik alde egin nahi al duk?"

"Noski!"

"Nola, ordea?... Ez al duk ikusten hortik irtenbiderik ez dagoela! Leihorik ere ez zegok eta!"

"Bost axola leihoak, hik ez dakik niri Joxe Arretzek kontatutakoa... Esango diat, hara: Azelaingo Señoritua hemen bakarrik bizi zela hamar eta hamabost eguneko bidaiak egiten zitian... hemendik irten gabe!"

"Hemendik irten gabe?!"

"Hemendik irten gabe, zeren eta Iztuitzan badakizue, eta han izan duzue beti hemengo kontrol guztia, hire izebak zaintzen zuenean..., ez al da hala?!... Orduan, Joxek esan bezala, Señorituak zinea egiteko makina zian, espeziala!!, eta bazitian pelikulak, bereziak hauek ere, egiazkoak, alegia, batzuk itsasoz egindako bidaiekin, besteak trenez, hauek maite zitian gehien, eta filme hauetako batzuetan, Señoritua bera zuan protagonista eta beste norbaitek hartua"...

"Señoritua zineko artista?!"

"Ez artista-artista, baina bere bidaietan zihoala zine-makinarekin hartzen uzten zena"...

"Bai, nire izebak ikusi izan zitian pelikulak Señoritua trenera igotzen, baporean zihoala..., hori bai!"...

"Ba, hori duk bada, zinea ematen zuen hemen, palazioan... eta hori izango duk!..., hemen gela hori montatu zian, makinekin, aparatu bereziekin, geltoki bat bezala, ulertzen?... Ba orduan jartzen zian pelikula martxan, eta musikarekin, hori esaten zian Joxe Arretzek, diskomusika jartzen zuela, filmeari zegokiona, trenean bazihoan, trenaren doinua jotzen zuen musika, trena martxan!, hori, eta orduan pelikula eta musika elkarrekin jartzen zirenez martxan, Señorituak zituen aparatu horien bitartez... apa!, salto egiten zian trenera, traka-traka, eta han zia!!, han zia!!, agur, agur... eta harrapazak!! Konturatzen al haiz?!"...

"Konturatu, zer?!"

"Señorituia trenean joan dela".

"Nora?!"...

"Pelikula egina zegoen tokira: Parisera, Erromara Aita Santua bisitatzerara... Agur!"

"Nola joango zuan bada pelikulan?!"

"Joanez!"

"Erotu al haiz?!"

"Ez duk sinesten, e!"

"Nik ez".

"Ez diat orduan ondo esplikatatu... Joxek esplikatatu izan bazian xehetasun guztiakin makina hauek nola funtzionatzen zuten, hik ere ulertuko eta sinistuko huen... Bestela, esan iezadak: nora joaten zuan palaziotik, hemendik irten gabe, falta zenean?! Bota"...

"Hori bai ez dakidala"...

"Hori ez duk erantzuna; eta Joxe Arretzek erantzunak ematen zitian, eta erantzunak ematen erakusten niri, Pedrotxori"...

"Hori nahi duk nik esatea?"...

"Hori esplikatzen badidak isilduko nauk, baina nola horrek ez duen erantzunik"...

"Sekretua duk, ordea"..., jaitsi zuen Joxek ahotsa.

"Bai, horrekin engainatuko duk Joxe Arretxeren 'ikaslerik azkarrena', hau esaten zian berak. Sekretua bada, bota; bestela, atea botako diagu zerraldo bat bezala palanka batekin, eta akabo atearen aurreko gure eztabaidak, bestela goardia zibilek hementxe harrapatuko gaitiztek eta! Zer egin behar diat nik orduan?! Sorabillako kronikek esaten ditek bertan bizi dela palazioan, baina ez duk gaur hemen bizi"...

"Ez"...

"Beno, hik galdetu etxean, jakingo ditek eta... Hik esan didaan gauza bakarra duk nola mutil koskorrek harrika egiten zioten hemengo kristalera balkoi luzean eguzkitan paseatzen zebileanean, ikaratu eta joan zela... Nola joango zuan bada hemendik irten gabe, nik esaten dudan aparatu horretan ez bazen?"...

"Nik ez zekiat hori"...

"Baina pentsa ezak, Toloxa maisuak galde izan balik, makila eskuetan duela, hortzak estututa...: 'Iztuitzako Joxe, non da Azelaingo señorituia?!', zer esango huke?!"...

"Nik neuk esango diat sekretua, baina hitza eman behar didak, ez nauala salatuko, ez dioala honetaz inori hitzik esango, hau hi lasaitzeagatik egiten diat, agintzen al didak sekretu hau gordeko duala eta honetaz ahaztuko haizela?"

"Bai".

"Etorriko haiz nirekin iluntzen duen bezain laster, ordu pare bat barru"...

Halaxe geratu ziren bi lagunak, goardia zibilak nondik nora ibiliko ziren kalkuloak egiten, zain. Pedrotxok ez zuen inolatan ere goardiaren eskuetan erori nahi; bestalde, ez zuen Ospitalera agertu nahi, Sor Luziari arazo berriak ez sortzearren...

"Zer egingo duk orduan?"...

"Ilundu dik, hik esango duk nora goazen"...

Ikaskideak irten ziren Azelaingo baratzetatik barrena, nahikoa utzia zegoen ortua!, eta Oria bazterretik Sorabillarantz igoaz, erretore etxetik pasa ziren...

"Hor zegok, hor bizi duk, bakarti, goiko bizitzan...; hemen ilunbetan jarrita ikusiko diagu argia piztutzen duenean, ilunbetako gizona duk".

"Baina egia al da gizon handia izan zela, Joxe Arretzek esan zuen bezala?"

"Noski, Andoaingo alkate ere izan zuan, Sorabillako elizari asko lagundutakoa, han zeukak patronatuaren aulkia... Palaziotik atera behar izan zuenean, Azelain galduta, gotzaina izan zuan Sorabillako erretore jaunari eskatu ziona bigarren bizitza hori bera lasai eta bakean bizi zedin uzteko... Ikusten al duk..., ikusten duk kortinatxoak korritzen?"...

"Ez zioat aurpegirik ikusi... Bixarra bai! Ai, Joxe Arretxe hemen balitz gurekin... Baina hobe honela, ilusio harekin joan zuan, eta orain goitik begira badago... Hi, goazen elizara, erakutsiezadak patronatuko aulkia"... eskatu zion Pedrotxok.

Eta joan ziren biak, eliza huts eta isilean sar eta Patronatuko aulkiaren aurrean zeudela etorri zitzaion bada Pedrotxori betiko bere bidaia mirakulutsuak egiteko joera:

"Hara, zer ederki hainbeste merituko gizona hor eseri eta errezatzen dagoen bitartean, gaur gauean bertan, zerura zuzenean igotzeko aparatu miragarria!"...

Desagertuaren semea banitu da

Joxek ez du laguna ahaztu eta zortzietako meza entzun ondoren ohi zuen bezala etxekeekin sukaldean esne-zopak gosaldtu, ganaduari jana eman eta zuzenean Azelainera jo du, sorgin zubitik eta jauregiko baratzatik barrena; Balastraingo Laxaro tranbelaria zihoan bere igandeetako lan txanda egitera eta agurtu zuen; ez zen beste inor ageri; gainera normala zen Iztuizako Joxe baratza alderdi hartatik ibiltzea, hauek baitziren han aspalditik tratua zutenak, eta besoaz agurtu zuten biek elkar, eta Joxe ohizko tokitik sartu eta eskaileretan gora zihoala: "e!"..., esan zuen, "Pedrotxo!", eta kolkotik taloa atera eta lehen solairuko ateari bultza egin zion, eta besaulki handia hutsik zegoen, burusi zuri-gorria berton botea eta besterik ez, lagunik ez..., ireki eta sartu zen beste gelara, eta hutsik; irten eta itxia zegoen bestaldeko gelarantz abiatu zen behatokiko korridore luzetik kristal hautsien gainetik eta gela misteriozua hor zegoen, itxita, ate hura kolatua bezala zegoen, jotakoan ez zuen ate hotsik ere egiten, atzean pareta balu bezala, eta inguruetan inoren aztarnarik gabe...; jaitsi zen presa handiz eskailera handitik eta arakatu zituen behaganean ongi ezagutzen zituen bere haur jolasetako gela ilunak, morroien gela, baratzako erremintak eta zaldien hederia eta beste trasteak esekita zeuden ganbara..., eta ez zen sagurik ere mugitu...; baratzara irten eta bertoko txokoak eta Señorituak neguan eguzkia hartzeko egin zuen kristalezko txabola ere... eta ez zen ageri!... Orduan, zera pentsatu nuen nik, Joxek, nirekin jolasean hasi zela Pedrotxo, batzuetan jartzen baitzen haur bat balitz bezala; bazituen honelakoak, eta ni, nekatua nengoenez, etzan egin nintzen sagarrondo baten azpian, hark ni jauregitik inondik ikusteko modurik ez eta nik igande eguzkitsu haren gerizpetik jauregiaren aitzinalde guztia bai, behatokian geratzen ziren beirak eguzki-sutan baleude bezala eta harriekin hautsitako zuloak nabarmen itzaliak, eta balkoi, leiho eta guzti... ea inor mugitzen zen...; batez ere behatoki luzea arakatu nuen bistaz... Pedrotxoren mugimendurik harrapatzen ote nuen, hor egon behar zuen eta!, ziur nintzen horretaz; hor utzi bainuen bart eraman nion ogitarteko batekin, eta izuturik, nik uste, goardia zibilen araketa haiekin kezkatuta... Esan nion, ez bere bururik inondik erakusteko, igandean jende asko ibiltzen zela, kalekumeak mendirako bidean, auzokoak mezatarata...; neu etorriko nintzela goizean talo bero batekin... Eta agindu zidan, baietz, eta zinez, ezagutzen baitut ongi eta ez da etxetik kanpora erraz ibiltzen den mutila; bestalde, noraezean aurkitzen denean berton fijo geratzen besterik ikasi ez duena!... Baina denbora pasa eta ez zen jauregiko aurrealde zabal handi hartan ezer mugitzen; harrika xehatzeko asmotan zirenek Señoritua hortik uxatu zuten gero ez zion frontoi handi hari arretaz inork begiratzen...

Zutitu nintzen eta berriz egin nuen arestian egindako araketa berdina.

Orain ez, ordea, lehengo begi eta buruarekin... Orain mekanikoki igo eta jaitsi eta sartu eta irten egin nituen lehen bezala, baina burua beste nonbait nuela... Ospitalean, eta hango kezkek nolakoak izango ziren, zer pentsatuko zuen don Martxelek bere monagioloaren berririk gabe, eta mojak, herri guztiaren ahotan zegoen mutil hura honela galdu zuten honetan, desagertuaren semea banitu zela ezin sinetsirik, seguraski!... Hemen inguruan egon behar zuen Pedrotxok, beharbada ni pixka bat izutzeagatik,

jolasean, ezin bestela izan!... Zera etorri zait burura, nik badudala erantzukizunik orain eta hemen, zeren eta ni naiz honetaz zerbait dakien bakarra, eta apaizaren aurrean ere neuk erantzun behar dudala; baita goardia zibilen aurrean ere!; honek beldurtzen nau orain gehien, horiek herria arakatzen ari diren honetan!, eta etxean bart zioten bezala, ohi duten bezala Oria ibai bazterrak eta gorago Leitzaranen Lizarkola eta Islaneko zentralaren inguruak, trenbideak eta zubi handia, herriak memoria duen heriotza tragiko guztiak hurbildu dituen desagerpen honen berri... nik neuk dudala erantzun beharra!... Lehenengo aldiz etortzen zait hau burura!... Eta bestalde balitz?... Pedrotxo hemen bakarrik gauez egoten izutu eta Ospitalera itzuli balitz?!... Hau izan daiteke, hau da seguraski!, gertatzen ari den gauza ximplea!!... Hala balitz ere, eta honexegatik, nire erantzukizuna hurbiltzen zait nirekiko, zeren eta Pedrotxo ospitalean orain gosaltzen ari bada, edo don Martxeli meza laguntzen, Etxe Handian denak pozik, eta ni hemen txorimaloarena egiten!...

Nik egin behar dudana da etxeratu eta amari gauzak diren bezala esan... etxekoek ezer jakin baino lehenago... Eta banoa jauregitik kanpora, etxerantz, eta larri... baina zubi gainetik pasatzerakoan ur hori apartsu zikin eta kiratsa dariola mantso doala sortzen zait bestaldeko kezka: Pedrotxo ez bada ospitalera agertu, beste norabait joan bada, ezin ninteke ni lagunaren ihesa salatzen jarri, goardien zelatari arrunta eta azpisuge bat bezala, eta hauen eskutan jasan beharko ditut galdeketa zorrotzak..., eta Iztuitza aldera jarraitu beharrean itzuli eta Azelainera noan berriz azken araketa egitera, Pedrotxo itzuli ote den zain geratzera... beharbada berton dago orain ni etorri zain!...

Eta hemen nago, bart Pedrotxo utzi nuen gelan... elizako erlojuan eguerdiko hamabiak jotzen ari diren arte, eta alferrik...

Bazkaltzera agertzeko ordua!

Noan etxera; banoa, dardaraz; zango bat aurrera eta bestea atzera botako banu bezala sentitzen naiz aurrean etxea dudala, sar ez sar, anaia txikiak:

"Hemen dago Joxe, ama!"..., esaten duen arte, eta ama isilik errietan ari zait, ea non ibili naizen, mahaian jarrita daudela denak eta aita haserre!...

Hemen, denen aurrean, etxekoak eserita eta ni zutik, esan behar izan dut egia guztia.

Hau da nire nekaldiaren hasiera.

Treanean agertzen da

Joxe Arretzek iragarri zion "Tren txiki" nazionalean doa Leitzaranean gainera, mendibasoetan zehar, satorra balitz bezala tunel zuloetatik barrena Pedrotxo, ni.

Bakarrik.

Aitatxo bezala desagertua, banitua.

Orain badakit aita nola sentitzen den, dagoen tokian dagoela: txori bat bezala, libre. Inoren loturarik gabe. Inork ez baitaki, Joxe lagunak bart gauetz Azelaingo Señorituaren jauregian utzi ninduen gero, Pedrotxo non den. Goardia zibilak, datozela bila! Nondik nora jakingo du fusila kargatzen besterik ez dakien inork desagertua non dagoen!... Ba, aitatxo gerratik bezala noa ni ere, haren semea, zibilengandik ihesi! Etxe Handiko mojak bila badabiltza ere; don Martxel Jainkoari erreguka ni nonbait ager nadin bizirik eta osasun onez, ni nagoen bezala... Hor joango dira zibilak putzuz putzu Leitzarango leku tragikoek markatutako gurutzetatik, murgil hemen, murgil han, gorpuaren bila, eta trenbideko zubi handira igo eta handik behera, Libertok arranoaren begi zorrotzekin arakaka behera begiratuko zuen bezala... Datozela! Pena bakarra, eta hau handia, sentitzen dut don Martxel eta mojak, batez ere ia moja den Paulak, orain sentitzen ari diren atsekabearengatik, eta nahi gabe Joxe ikaskideari eman diodan minagatik... Baina nola pentsatuko nuen bada nik Señorituak gela hartan hartu zuen tren hutsegina nuela ikusi nuenean, eta gauetz elizako aulki hartan bi ordu egon eta dena alferrikakoa zela konturatu nintzenean, Joxe Arretzek errebelatuko zidala, hark niri askotan aipatutako tren beste egiazko batekin lotua zegoela, Plazaolako tren nazionalarekin!, hau zela klabea, hark, Joxe Arretzek, don Martxelen parabolak bezala, utziko zidala nire barru ezkutuan hazi baten antzera kokatua... Tren txiki euskalduna zela nire irtenbiderako adierazi nahi zidana!

Nik nerorek ere ez dut jakin, Sorabillako elizan izan nuen estualdian aurkitu nintzen arte!

Nola joango nintzen ustel bat bezala goardia zibilen besoetara?!... Ni erne, eta Joxek unetxo honetan agindu zidan bezala, tren hutsegina egin eta elizako aulkia mugitzen ez zela konturatu nintzenean, hor bertan jakin nuen Arretxe handiaren mezua zein zen, nolakoa zen!, aitaren bide bera zela nik ibili behar nuena, eta hemen, unetxo honetan, "Mentxaka" izena piztu zitzaidan argi biziz burmuinetan... eta bere lagun onaren bila abiatu nintzen... Hamaikak ziren Sorabillako parrokiak, Iztuitza ingurutik trenbideko karril internazionala, Madrilekoa, hartu, eta gainez gain, Etxeberrietako, Zumeako, Basteroko, herri guztiko ipurtargiak behean ikusten nituela ilargiaren argitan geralekutik eta Kaxtro zenaren kaxetatik pasa, tunel handian ikara handiz sartu..., ez nuen beste erremediorik!, eta inortxorekin topo egin gabe xuxenean Plazaolako hiru bizitzako geltoki garaia Moleda fabrikatik gora eskubitan ikusi nuen arte.

Argi bat zegoen behean piztua.

Dena hila, ordea...

Baina ni, Joxe Arretxeren argia barruan nuela beti! Argi hau barruan heldu nintzen aldapa baten kontra egin zegoen hiru bizitzako etxearen oinera; piztua zegoen beheko

argiak ilundu egin zidan etxea bera, ez zegoen inor, eta ateburuan zegoen letreroa irakurri nuen: "Andoain a Plazaola"; burutik pasa zitzaidan nik ilunbetan gurutzatu nuen gizona hemendik jaitsiko zela... eta arineketan harrapatu nuen ilargiaren argi xumetan handia ikusi nuen tipo beragana heldu nintzenez, arnasbeharrean galdetu nion:

"Barkatu, geltokia itxia al dago?"...

"Bai, baduk ordua; zer da, presa...?"

Ez nekien zer esan, baina irten egin zitzaidan: "Mentxaka jaunari enkargu bat eman".

"Mentxaka lo zegok, motel, bihar goizeko erreleboa dik eta...; bihar emango diok".

"Zer ordutan sartzen da?"

"Lehenengo merkantziarako; zazpi t'erdietarako hemen izango duk"... eta jarraitu zuen...

Nik gora egin nuen berriz, eta pentsatuz ez ninduela ilargitan ia ikusi ere egin, eta beste ezer esateko astirik eman gabe, gorantz abiatu nintzen; ez nuen bidean pistarik utzi behar!... Orain ez nintzen geltokiaren aurretik pasa, badaezpada ere, eta trenbidean haraxeago zeuden bagoietara hurbildu nintzen, itzalaren babesean, goardaren bat egon zitekeen eta... Egon egin nintzen alditxo batean, eta inguruan ezer mugitzen ez zela ikusi eta gero makinari egin nion ingurutxo, eta gero atzean zeuzkan hiru merkantzi bagoiak arakatu, itxiak zeuden. Joxeren malizia beti aurrean nuela, ezin nuen sinetsi hura dena zaintzailerik gabe egon zitekeenik!, eta ez nintzen lokomotore-makina gertuagotik ikustera ausartu... Eskerrak!, zeren eta handik puska batera pausoak entzun nituen isiltasun hartan, eta hor dator, karriletik, arestian hitz egin zidan gizona..., eta pentsatu nuen, seguraski berau zela zaintzailea!...; eta hala izan, zeren eta makinara igo eta han etzan zen eserlekuan, nonbait, nik uste, laster zurrungak entzun nituen eta, eta ez ziren nireak!, erne asko bainengoen ni gertakari honetan..., eta nekea sentitu nuen bertan, zutik ere lo hartuko nuen nik seguraski ke usaina zuen gau epel hartan horretara jarri izan banintz, eta ezin nuen, Joxek eragiten zidan nonbaitetik, eusteko, burua argi!, eta pentsatzen jarri nuen burua denbora pasa eta etorri zitzaidan kaskora, goarda hau bere lana utzi eta Martzelinaren tabernara joango zela seguraski baxoerdi bat edo kopa bat pattar hartzera... Eta eskerrak, beti sinistu behar baita batek jakin gabe barruan daraman aingeru goardakoan!..., eta zurrunga haien babesean mugitu nintzen atzealdean, eta hiru merkantzien atzean, apartalekua izango zen hartan bazeuden bi bidaiari-bagoi beste makina bati lotuak, eta zuzenez igo nintzen hona eta bertoko makinistaren eserlekuan eseri!, ai zer deskantsua!...; lo ere egingo nuen seguraski, zeren eta esnatu nintzela gogoan dut, eta udazkeneko eguna hasia zen irteten Xoxoka aldeko nonbaitetik, eta argi hau dela eta ikusi nituen aurrean neuzkan merkantziak gertuago! Erne jarri ninduen honek eta jaitsi eta larrean erraz ezkutatu nintzen... Zain nengoela parrokiako ordu laurden eta erdiak jarraitu nituen neketsu, seietatik zazpi t'erdiak arte, zeren eta hor ikusi nuen presarik gabe zetorren gizon luze mehar bat balantzaka karrilaren gainetik jostatzen bezala, ekilibristarena eginez!... berehala konturatu nintzen Mentxaka zela, Joxe Arretzek deskribatua gorde bainuen neure buruan: aurpegia zurbil iluna, lokomotoraren keak urtetan halakotu izan balu bezala, txapela xuxen... "Hau duk", esan nuen nirekiko, eta kolpetik, egindako kalkuluak alde batera utzi eta Joxe Arretxeren

mezua eman beharrean, isilik geratzea erabaki nuen nire baitan; martxa handiz dena buru barruan!..., ez bere itxurak orain mesfidantza sortu zidalako, patxara eta leialtasuna zerion gizona iruditu baitzitzaidan, baizik eta aurreko makinan lo zegoenari hartu nion fidagaiztasuna barruan gordea neukalako...

Mentxakak berak esnatu behar izan zuen, eta makinatik jaitsiarazi...

Ni, geldirik eta zain, zer gerta ere.

Mentxaka, iratzarlearena egin eta gero, geltokiko bulegora joan eta berehala itzuli zen eskuetan paperak zituela, eta "Rufino", hala deitu zion gizonari, merkantziak irekiarazi, alferra nagika beraietan sarrarazi eta honek banan bana barrengo bulioen berri eman zion, Mentxakak lapitzarekin jaso:... "bost zaku"... eta honek bestea irten aurretik... "Konforme?", galdetu zion Rufinok barrutik, eta Mentxakak: "Konforme".

Hau izan zen usarioko zerbait balitz bezalako egiaztapena.

Oraindik ez zen bidaiarientzako trenik, nonbait, ez zen geltokira inor agertu behintzat eta; Mentxaka makinara igo, makina piztu eta kea zeriola hamar minutu egon zen gutxienez, ordua jo izan arte nonbait, eta kasketadun geltokiburua bandera gorritz irten zen bezain laster txistua jo eta irten zen mantso-mantso burni zarataz "klin-klan" inguratuta goizeko merkantzia... Ordurako alde egin zuen Rufino galtzaundiak gaueko lanak lehertuta etxera lotara balihoa bezala... Ni oraindik geldirik, zer gertatuko zain!, ihesi egingo zidan trenak!..., eta orduan egin behar izan nuen, inoiz egingo ez nuela ustean bizi nintzen Pedrotxok, elbarritu banintz bezala nengoen hartako zirkoa... Hara, Mentxakak trenari txistua joarazi zionean geltokiko jefeak bandera gora jaso eta niretzat izan balitz bezala jauzi bat eman zuten nire zangoek, eta trenari ezker aldetik aise aurreratu eta merkantziak eta nik geltokiburua pasa genuen hartan bi bagoien arteko krokaduraren gainean eseri nintzen!..., eta han ziak Plazaolako trena Pedrotxo desagertua daramala... Ez nuen arnasarik hartu denbora luzean, begiak itxi egin zitzaizkidan, eta ireki nituenean zeru goitik bezala ikusi nuen bailara guztia, baserriak... "ttuk-ttuk-ttuk"... zoragarria zen dena... Ni zoratuta bidaiaria harrigarri hartan, liluratuta, pasako ziren minutuak, ez dakit zenbat, ni denboraz konturatu ere egin gabe..., baina ustekabean geratzen hasi zitzaidan trena! Oharkabekoa izan zen, Joxek ez ninduen honetarako prestatu, eta pentsatu ez nuen zerbait egin nuen... jauzi egin nuen... eta trentxo aurreraxeago geltoki batean geratu zenean ni aurrera oinez, eta oinez nindoala ikusi nuen non geratu zen: "Elduayen" jartzen zuen, eta han Mentxakak zerbait utzi eta hango baserriar batzuekin hizketan ari zela, nik pasa nuen trena, jarraitu nuen inora begiratu gabe..., bertokoa banintz bezala..., ez zen inor konturatu ere egin eta ni aurrera bihurtu gunean... eta geltokia desagertu zitzaidalda uste nuenean atzera begiratu eta trenbidetik irten eta bestaldeko laharretan ezkutatu nintzen... Eta nola diren gauzak, Aita Santa Kruz eta bere ekintzak etorri zitzaizkidan burura!... Halere pentsatu nuen, hark bezalaxe karrila gurutzatu egin nuela, eta ezkutatu azkar... merkantzien ateen beste aldera ematen baitzuten..., trenaren eskuinaldera... Halere beste minutu batzuk pasa ziren txistua entzun nuen arte, eta gero "ttuk-ttuk", "ttaka-ttaka-ttaka" tren txikia martxan jarri zela sumatu nuen arte, eta ni zain, urduri eta erne, ea deskarga egiteko iriki zuten atea ongi itxi gabe uzteko zorterik badudan... eta hala gertatu!, zirrikitu lasai bat!... eta trena gora zihoala nik atzetik harrapatu eta igo egin nintzen..., bai, baina Mentxakak ikusi!, eta txistua jo zidan, niri, ezagutzen ez zuen norbaiti!, zeren eta jakin

izan balu Joxe Arretxeren laguna nintzela hartu ere egingo ninduen trenean! Ez, seguraski ni ez nintzen hau egin zuen lehenengoa izango, baserri haietako mutikoek behin baino gehiagotan egingo zioten hau... Halere, eta orain, bai, urduri jarri nintzen egiatan, zeren eta honelako pauso txar batek galarazi ziezadakeen hainbesteko sekretuarekin egindako balentria, eta nire sekretuarekin askatasunerako oraindik dudan kemena, eta aita aurkitzeko bidearena ere bai, hark urteetan lortu zuena lortzeko gauza ez bainintzen izango... Derrepente hiru txistukada entzun nituen eta aurrean tunel baten zuloa ikusi nuenean itxaron egin nuen lokomotora eta berarekin zihoan kea desagertu ziren arte, eta ezer pentsatu gabe jauzi egin nuen belarretara!..., uste nuen horretan akabatuko zela nire ihesa!, baina ez, besoan bakarrik sentitu nuen mina, eta adio trenea eta Mentxakaganako sortu zitzaidan beldurra...

Besoa hautsi nuela uste nuen.

Baina ez zen hala izan, Joxe nirekin zegoen, eta gainbehera egin eta ibaira jaitsi nintzen. Hemendik aurrera, gorabidea jarraitzea nahikoa zen, eta goseak eta nekatua banangoen ere, hautsi zen Mentxakarekin izan nezakeen loturaren arriskua; egia da aurrena gizon leial honen laguntza eskatzea izan zela nire asmoa, baina gauzak bideratu ziren moduan, Etxe Handiarekin lotu nintzakeen arrisku honen ekintza bertan behera uztea erabaki nuen.

Honela heldu nintzen Berastegira oinez, eta bi aldiz, nire lotsarako, eskean ogiartekoa lortuta heldu nintzen gauez Iruñera.

Hemen lortu nuen, errukiz hemen ere, lotarako lastozko ohea.

Iruña

Ilunpe beltza besterik ez zen hiria nik bere muraila izugarriaren kopeta ikusi nionerako. Epel eta gozoa zen ilunabar hura, baina lehertuta nengoen, eta apreta beltz haien bizarretatik ageri ziren behatzak handitu eta gorrituta... Zaldi gurdiak eta automobil eta kamioiak ere lautadetan eta beherakadetan patxada ederrean bazebiltzan ere, gorakada handi eta biragunetsu haietan ez ziren lasai joaten... halere, ni baino azkarrago bai, eta ez zen inor nitaz kupitu.

Azken malda luzea kosta zitzaidan igotzen.

Gain hartan egin nuen lehen gauza esertzea izan zen, bailarara begira dagoen behatoki antzeko balkoi erraldoi hartan ikusi nituen aulkietako batean eseri egin nintzen. Ez nituen nire oinak senti, eta honela geratu nintzen ilargitan ikusten nuen lurralde handira begira, elektrargi bat edo beste, gutxi, eta maldan gora zetozen mugikor batzuk ere bai, eta esaten nuen nirekiko, hemendik aurrera solaskide bakarra izango zen honi, esaten nion hor zetozen bidaiariak ni baino lasaiago igo zirela eserita, eta seguraski bere etxerantz!... Eta hozten hasi nintzen, hotzikara sentitu nuen alkandora zuri izandako haren barrutik eta oinak ziren batez ere hozten eta pisu hartzen hasi zirenak, berriz bakarrik hizketan... hor geratzen banintzen ez nintzela ibiltzeko gauza izango, gogortzen hasiak baitziren zangoak belaunetan... Kosta zitzaidan zutitzen, eta gero oinak bata bestearen aurrean jartzen, hiriko lurra orratzez josia zegoela iruditu zitzaidan... Sartu nintzen kalea zabala zen, eta bonbila handiz argizatua... Gurutzatzen nituen pertsonak, ez asko, niri so, lotsagabe, eta jaun batek, korbata eta guzti, geratu eta galdetu zidan ea ondo nengoen... Nik baietz, eta ia arineketan hasi nintzenean, gizona ez zen gutxi harritu!... Erabaki nuen argi gutxiagoko bideak hartzea, eta lehen kalegurutzean ezkerretara hartu nuen, eta gero beherantz, oso argi xumeak zeuden hartara, iluna eta maldan behera zegoelako... "Nora zoaz hain presaka", esan zidan emakume zen norbaitek etxe arteko hormatik, eta ahotsak nire atzetik jarraian zetozela konturatu nintzenean, presakatu nintzen berriz ere... eta ahotsa nire belarriaren gainean, uste nuen kosk egingo zidala, eta bat-batean niri pegatu zen norbait nirekin batera aurrera, nik hitzik ere ez... eta hark... ia gaueko hamaikak zirela, eta segi nire gainean, eta kolpetik besotik hartu ninduen, lagunkiro bada ere, eta sentitu nuen orain emakumearen ahotsa ahula zela, gaztea, eta ni mutu!, ezin bainuen hitz egin, oineko minez eta ahuleziak jota eta... negarrez hasten ez naiz bada!..., ez dut nik negar erraza, baina xamurtu egin nintzen barrutik, eta azukre koxkorra uretan bezala urtzen ari nintzela sentitu nintzen...Orduan gerritik ere sentitu nuen besoa eta eskua, eta aurrera biok gindoazela, ez dakit nola, ilunbe hartako paretaren zulo batean sartu ninduen... neskak, usain gozoa inguratutako neska gazte bat ikusi bainuen hark atarian argia piztu zuenean, ni baino zaharxeagoa, baina ez asko, eta aurpegia nahiko pintatua eta irribarretsu, esn zidan berak lagunduko zidala, hor bizi zela eta... igo genituen zurezko eskailera labur eta zaratatsu bateko mailak eta atea bultzata ireki zuenean jendea zegoen lekuan aurkitu nintzen, gizon eta emakumeak inguru guztian eserita eta barrezka, algaraka, eta beren artean eserarazi ninduen nire lagun berriak... Denak niri begira..., eta atso handi baldar

bat inguratu zitzaigun hango trapu-zulo batetik irtenda, ea zer zen hura, mutiko hori nola sartu zen, nork sartu duen...

"Zu izan zara, Merzeditas?"..., orain gozoago eta gelaren erditik, buruaren gain-gainean bonbila urdin bat piztua zuela..., "ea, esan"...

Ni harri eginda nengoen, eta dardarka, hotzak!... "Bai, izeba"..., eta morroskana hark neskari besotik heldu eta gortina gorri batetik eraman zuen...

Eta ni bakarrik orain, gainerakoak maiteminduak baleude bezala jarri ziren laztanka eta barrezka, irri bizian!... Eta ni ez nintzen neroni senti, denak ikusi eta entzuten nituen baina ni han ez banengo bezala, begi bakar bat bihurtu banintz legez, eta hartu ninduen berriz lehengo ahots apalak, neska gazteak, eta gela berriko argia piztu zuen arte ez nuen ikusi neure burua, eta ikusi, armairu handi baten ispiluan ikusi nuen beste bat banintz bezala!, eta ohean eserarazi ninduen neskak, krabelin kolonia usainetan, apretak kendu eta nengoen bezala sartu ninduen ohean, hortzak dardar topeka zarata handiz eta ezin geratu...

Neskak utzi ninduen, itzuliko zela esanez..., eta loak hartu ninduean, berriz hemen nuen ondoan eta eserarazi eta kafesne beroa sartu zidan ahotik...

Esnatu nintzanean, norbaiten ondoan nengoela somatu nuen; eta hau lo zegoen, bart hartu ninduen lurrin bereko neska zen, eta isilik geratu nintzen leihotxo batetik sartzen zen argitan gela txiki hartako armairuari eta azpil bati begira..., eta paretan zeuden argazki batzuk, eta gelako pareta zuri zikinetan aurkitzen nituen marrazkiak balira bezala buruak eta begiak eta animaliak... Une honetantxe etorri zitzaidan gogora aspaldiko zerbait balitz bezala nire Etxe Handia... lixiba usain garbiko pareta txuria, garbia...

"Esnatu al zara?"..., esan zidan aldamenen neukan neskaren ahots apalak...

Eta niri Paula etorri zitzaidan bat-batean gogora.

Orradre

Iruñea, egunez, beste hiri bat zen.

Egia da, nire oraingo begiak ere ez zirela sartu nintzen gauekoak, zeren eta ilunbe hartatik atera ninduen Mertxek ekarri zizkidan alkandora, galtza eta apreta berriak, lurrin gozoko xaboiarekin dutxarazi ninduen, eta Pedrotxo nintzen hari jaten eman eta lau egun etxe hartan bizi izan eta gero, munduari alderantzizko beste aurpegia ikusi banio bezala sentitu nintzen.

Eta beste pertsona bat.

Orain Joxe bainintzen, eta "zer gehiago" esan zidatenean, nire apelidua, alegia, nik nahi gabe eta barrendik irten zitzaidan: Egiluz, esan nuen; behin amatxok bere jatorriko izenak erakutsi nahi izan zizkidanean niri hau geratu zitzaidan gogoan, ez dakit zergatik...

Dagoeneko hasia zen norbait nire pauso hau prestatzen. "Joxe Egiluz", esan nion Mertxeri ohean geundela galdeketa honetan hasi zitzaidanean. Mertxek ez zuen bere izena besterik ezagutzen; haurra zela galdu zituen honek ere gurasoak, eta bere egiazko izeba galdu zuenean izeba-edo zen doña Auxilia honek jaso, nonbait, zortzi urte zituela, hau zen etxe honen nagusia, eta hemen Merzeditas deitzen bazion ere, ez zuen honek bere amatxok jarri zion izena ahaztu, eta honela deitzen hasi nintzen ni neu gure artean. Hemezortzi urte zituen, gaztexeagoa bazirudien ere, eta orain hiru bat urte hasia zen bere bizimodua irabazten, kale gorrian, gaixoa. Ni neu ez nintzen konturatu kaleko gaulanak zer balio zuen "izebari" sosak irabazarazteko, baina laster jakin nuen, Mertxek berak esan eta erakutsita... Nik ez nekien zer pentsatu! Zertan nenbilen lizunkerietan sartuta! Don Martxelek zulo batetik ikusi banindu, zer esango zukeen; eta Joxe Arretxek berak!, eta mojek!... "Inuxente!", deituko zidaketen... Edo ez zidaketen sinistuko... Ni neroni hasi nintzaion Mertxeri galdezka, nire monagilokeriak esaten... Ez zitzaiola gustatzen, esan zidan Mertxek, batez ere zahartxoak etortzen zitzaizkionean. Ni bai! Eta infernua non hasten zen ez zekiela ikusi nuen, nik neronek bezala orain, baina etxe hartako negozioa hori zenez gero, laster jarri zela ikusten zuenera, "ahatetxoek amaren atzetik joaten ikasten duten modu berean"... hau berak esana.

Pena handia hartu nuen Mertxek zer egiten zuen jakin nuenean.

Eta Paulaz pentsatu nuen berriz, eta zer irudituko litzaidakeen niri hau gauza bera egiten ari zela jakingo banu... Eta Mertxe niri hizketan, ofizio hartara lehen aldiz hain gaztetxorik erakarri zutena!..., eta hain goxo begiratzen zidan, hain ona izan zen nirekin, maitemindu ere egin nintzen. Halere, musukatzen ninduen bakoitzean Paula etortzen zitzaidan gogora!...

Ezin ahaztu.

Eta ez moja sartzeko zen Paulari musurik eman niolako, bai zera!, baizik eta honen aipamena egin zidaten bezain laster begi berriekin ikusten hasi nintzelako, hain txukuna, hain garbia, eta gozoa hizketan, sekula purrustada bat inori egin gabe... Eta dena zen egokia, eta belarritako urdin-orlegi haiek hain ziren politak...

Gauza asko ikasi dut hemen geroztik!

Halere ez nuke nire egarri apal eta garbi hura, oraingo haragizko titiengatik aldatuko.

Gainera, hauen ondoren gaizki sentitzen nintzen! Bekatari! Eta Mertxe, ez.

Zergatik zen hori?... Ez dakit.

Esan nion Mertzexi, bere izeba edo zen hark begi txarrez begiratzen zidala, eta joan behar nuela.

Ea nora.

Egia esan, ez zekien Joxe Egiluz bekatariak nora joan. Burua honetara jartzen hasten nintzen bakoitzean galtzen nintzen. Ustekabean Mentxakaren bidera erortzen nintzen, Plazaolak Iruñean zuen geltokira joan eta harekin topo egin, Joxe Arretxerekin nuen nire adiskidantza aipatu eta..., eta hemen amaitzen zen nire bidea, berehala antzemango zion-eta ni neu nintzela banituriko Peliren seme desagertua!..., eta adio nire sekretua eta askatasuna... Nire liberazio berria kartzela bihurtzen hasi zitzaidan!

Non ote zegoen aita Peli une honetan!

Beharbada, Iruñean bertan.

Auskalo.

Eta honetan nengoen batean esan zidan Mertxek lantxo bat aurkitu zuela niretzat. Poztu nintzen, etxe hartako giroa ezin nuelako gehiago jasan:

"Badut harakina den lagun bat, Batista, eta ezagutu nahi zaitu, okela etxeetara banatzeko lana: mantenua, ohea, bizikleta eta guzti, eta hilean mila pezeta"... Dirutza handia! Baietz esan nion, zerbait laster egin behar nuen eta... Arratsaldeko hirurak ziren, eta prest nengoen zere berehala irten ginen. Kastillo plaza deitzen zioten inguruan zen, hiri erdi-erdian; euri lanbroa ari zuen eta Mertzexeren aterki azpian, hark niri besotik helduta, joan ginen... Bidean esan zidan, jertse bat erosi behar zidala, zeren udan ere egun freskoak egiten zituela Iruñean eta... Norbait sentitu nintzen berriz, zeren sekula ez zidan inork ezer erosi; mojek, jasotzen zutenetik ematen zizkidaten jantziak, baina niretzat diruaz erostea, ez zitzaidan hau inoiz gertatu... Eta jende artean gindoazela:

"Hara", esan zidan, "Kastillo plaza hor dago, kanto horren itzulian..., ba hemendik, gauden tokitik, ikusten da harategia, begira", eta hatzez erakutsi zidan denda txiki bat, bonbila argiaren azpian gizon lodikote bibotedun handi bat ari zen okela, mailuka ari balitz bezala, hezur-haragia ebakitzen, zanpatzen!... entzuten genituen kolpeak, "tak-zap"... bi emakume aurrean zain zeudela; "hori da Batista, goazen"...

Ez dakit zergatik, ez zitzaidan tipoa batere gustatu. Baina sartu ginen, Batistak irribarre egin zion Mertzexi, bere lanean ari zen bitartean, niri ere zeharkako begirada bota zidan...

"Kaixo", esan zuen, eta jarraitu zuen, eta akaso pentsatzen bere harategitxoa bete geniola, ez zela han beste inor kabitzen... Baina jarraitu zuen lanean, gu isilik, eta bi emakumeak beren haragiarekin irten zirenean geratu zen zutik Mertzexi bere lantoki goren hartatik behera irribarretsu begira, eta Mertxek eman zuen lehen pausoa, nik atzetik neurea, eta esan zion:

"Hara, hau da Joxe", eta esku leunez besotik har eta emanarazi zidan neskak niri beste pauso bat.

Niri ez zitzaidan hitzik irten.

Harakina izan zen niri begiratu eta hitzak airera, gora, bota zituena:

"Hau da mutikoa!"...

Nik buruz baietz, eta berehala nire nagusi izango zenak esan zidan arineketan bezala:

"Mertxek esango zizun: mila pezeta hilean, eta jana eta ohea"..., bere atzean zegoen ate marroiari bultza egin, argia piztu, eta denda baino gela txikiago batean ikusi nuen burdinazko ohe txiki bat maindire nahasiekin, mahaitxo bat eta armairu altu bat sabairaino... bata bestearen gainean, gainezka, baleude bezala... Leihorik ere ez zegoen...

Hotzikara pasa zitzaidan burutik oinetaraino.

"Konforme?", esan zuen harakinak.

Ni geldirik eta isilik geratu nintzen, eta isilaldi luzeegia zela konturatu zenean, Mertxek esan zuen:

"Beno, ikusi duzu, Joxe... eta bizikleta ere baduzu lanerako, ezta?"...

"Bai, bai", esan zuen eskuak oraindik odoletan zeuzkan Batistak, "orain pentsatu egin behar duzu, Joxe, eta bihar emango diozu erantzuna..., konforme?", nik baietz, handik lehenbailehen alde egiteagatik... konturatu bainintzen zer zulotan sartuko nintzen, eta ohe txiki hura bientzat... nik ez bainuen... ni izutzen baininduen!...

Eta eskerrak bezero bat sartu eta guri begira zegoela, zeren eta bestela ez dakit zer gehiago esango zuen harakinak, eta nik hitzik ez erantzuteko... Eta neu izan nintzen, "Agur" esan eta handik irten nintzena, eta Mertxe berehala... "Bustiko zara... ez zaizu gustatu"...

Ezetz nik, eta espaloi estuan geratu eta esan nion: "Ohe hori da harakina eta niretzat?"...

"Bai"...

Ni isilik abiatu nintzen berriz eta hark, neskak, niri: "nahiago al duzu nirekin oheratu, e!?", esan zuen algaraz, eta nik esan nion: "bai, noski"..., ez barrez, zeren eta Ospitaleko ohe gozo hura niretzat bakarrik ikusten nuen buruz, sala handi eder hartan, lagunez inguraturik...

Ez genuen itzulian hitz bat gehiago egin.

Baina banekien azken gaua izango nuela Mertxerekin, honi izebak agindu baitzion, "kapritxo" hark ezin zuela jarraitu, eta ilobak ere bai. Lehen bizitzara igo eta bere gelan sartu ginen bezain laster ireki zuen kolpetik atea norbaitek, eta izebatzarraren ahotsa entzun genuen haserre bizian:

"Azkeneko gaua duzu hemen, e!, moñoño!!"...

Eta atea, plasta!, itxi zuen.

Biak ohean eseri ginen gogaituak... Eta Mertxek Joxeri eskua hartu eta hitz egin zion lehendabizi:

"Ez zaizu lantokia gustatu, badakit..., eta ulertzen zaitut, baina zer egin nahi duzu?" Eta Pedrotxo, Joxe!... isilik... "Nik lagundu nahi zaitut, baina zuk lagundu behar didazu zuri laguntza hau ematen, ulertzen?"

Agerian zegoen Joxek ulertzen zuela, baina irtenbiderik ez zuen aurkitzen bere baitan... Eta azkenean, hazi bat bezala bere buruan ernetzen hasia zen asmoa erakutsi zion:

"Niri landa eta baserria gustatzen zait hiri handia baino gehiago... nik banuen lagun bat behin Nafarroako herri bat aipatu zidana, asko maite zuen, eta haraxe joango nintzateke morroi edo lanera"...

"Zein herri da?"...

"Orradre".

"Nik ez dut herri hori ezagutzen... Baina galdetu nezake. Hona herri txikietakoak agertzen dira sarri, han aurkitzen ez dutenaren bila; herri txikietan, badakizu, gauzak ez dira hirietan bezala aurkitzen... Ezagutzen dut baserritar bat, hirira etorri eta hemen hargintzan ari dena, Laxaro"... "Beno"... Eta presa zuen zerbait zenez, biharko irteera prestatzeko, erantsi zion esandakoari: "gera zaitez hemen, nik arinago egingo dut joan-etorria eta bere lantokia urrun ez dagoenez, laster naiz hemen... Izeba ez da etorriko, baina etorriko balitz ere zuk ez ezer erantzun..., edo bihar zoazela lagun baten etxera, eta kito", eta irten zen..."

Ni, Pedrotxo, Joxe!... urduri nengoen. Berriz bide berria, jende berria, ezaguerarik gabeko mundua oso da estua, orain konturatzen naiz, eta gorria!

Nola egin ote du aita Pelik urteetan honela, galdua, bere kasa eta bakarrik irauteko?

Edo egiazki hila balitz!

Azkarregi ari naiz ni urduritzen! Egun batzuk Ospitala utzi nuela, eta badirudi urteak direla bakardade gorri honetan aurkitzen naizela. Eta Mertxeri esker! Neska ona hau, ni bezalako ezezagun baten ardura honela hartzeko... Kezkatuta nago, izebatzar hori hemen agertzen bada berebizikoak botako dizkit eta izutuko nau... Ez nekien zer ordu zen ere... Hain txikia eta hutsa dago gela hau, ez dirudi bertan bizitzeko prestatua dagoenik... Hemengo kolonia lurrina higuigarri zait. Eta herrira joan zitzaidan irudimena eta han izandakoak eta oraindik bizi direnak buruan nituela sentitu nuen atearen krisketa, eta oraindik ohe gainean eserita nagoenez jauzi bat egin dit barruak eta negar antzeko muelle zaratatxo bat irten da ohe barruko lastairatik... Mertxe da, zutituta aurkitu nau:

"Izeba etorri al da?", galdetu dit, eta nik buruaz ezetz esan diodanean, jarraitu du orain nire aurrean zutik: "Egon naiz Laxarorekin, eta ezagutzen du herrixka, ez dago hemendik hain urrun, baina han ez da inor bizi, hutsik dago..., hemengo beste herri asko bezala"...

"Inor ez?"

"Ez, elizatxo eta guzti dela herrixka, baina hutsik".

"Neronek ikusi nahi nuke hori".

"Ba, joango gara; autobusean joan gintezke..., herrixkako ingurutik pasatzen da bat, oinez egingo dugu zerbait..., baina ez dizut bakarrik joaten utziko, gero, bakarti, zer egingo duzu han, desanparo hartan?", eta eseri egin zait alboan, eta niri ezkerreko eskua hartu, eta... negarra irten ez zait bada!..., lehengoan bezala!... Hemen erakutsi dit berriz bere bihotz ona...

"Ez ezazu negarrik egin, hamasei urte beteak dituzu eta!, ez zara haur bat, kontxo!"..., halaxe esan dit, "kontxo", Paulak behin esan zidan bezala, eta nik ogiak zakutxoan eskura eman beharrean, keinada egin eta nire eskuinarekin berea hartu niolako!, harrituta, nola ausartu nintzen bere eskua ukitzen, eta harrezkero haserre

agertu zen nirekin bizpahiru egunetan, gero betiko irribarre polit hura erakusten bazidan ere... desagertu nintzen arte!

Zer pentsatuko du Paulak nitaz?...

Pedrotxo nintzen ni orduan!

Eta bitartean Mertxe nire alboan hizketan, lagundu nahi zidala... irtengo garelara bihar goizean, bederatzietako autobusean; dena bidean erabakita etorri zitzaidan lagungarri Mertxe, eta unetxo hartan Paula estali zidan.

Joxe Egiluz bilakatu nintzen berriz.

Gau hartan kosta zitzaidan niri lo hartzea.

Eta seietarako esnai nengoen; luze egin zitzaidan sukaldean kafesnea hartu eta gero, etxea lotan utzi eta Mertxe eta biok hiriko erdialdera joatea, honen takoi hots, "tok-tok", nabarmenen pausoa medio; Batistaren harategi aurretik pasa ginen, elkarri begiratu genion ezer esan gabe, eta nik pentsatu nola alda daitezkeen gizonaren bideak une batetik bestera... eta ni pozik, lagunak bart erosi zidan jertse eta guzti nolabait aitona Joxemariaren jatorria zen herrirantz gindoazela! Autobusa irten zain zegoen, igo egin ginen, eta azkeneko lerroan eseri. Mertxe joan zen txoferrari ordaintzera eta hizketan geratu zen... Hau ere ezagutzen zuen, arraioa!, eta burua jiraka hasi zitzaidan... Laguna itzuli zenean gogoan nuena zuzen bota nion:

"Batista harakina, larrugorrik ere ezagutuko zenuke zuk, ezta?..."

Algara irten zitzaion..., gero belarrira esan zidan: "Eta zergatik egiten didazu galdera hau orain eta hemen? Zer!, jelsiaz ari al zara?, zer poza!"...

Ikusi nuen txoferra atzerantzko ispilitik begira zegoela, eta modu berean, belarriko zulotik isilik galdetu nion, ea gizon hori ere ezagutzen zuen...

Mertxek baietz, orain serio.

Ez genuen presarik, bidaiariak uzteko geratu eta hasi, behin eta berriz, ia bi ordu iraun zuenean geratu eta guri txoferrak seinale bat egin zigun arte... Han ez zegoen etxerik. Leku bakarti batean jaitsi ginen. Eta orduan esan zidan Mertxek, maldan gora zihoan gurdibide hau, geure aurrean zegoena, zela gure bidea; eta egia, hantxe sasi artean letreroa ikusi genuen: "Orradre/Napal". Malda gora abiatu ginen, leku bakartia hau. Laharra ugari eta txoririk ez... Laster Orradre herrixka agertzen zaigu ezkeraldera: hiru etxetxo zahar oraindik zutik, eta aspaldiko elizaxoa ia bakarrik, eta hutsa. Atea ere irekia dago, ez da nonbait lapurren beldurrik. Eta inor ageri ez den herrixka abandonatua pertsona bat hurbiltzen zaigu, ez dakit nondik irtena; Mertxe konturatu da aurrea eta ukondoko batekin eman dit abisua. Artzaina dela esan digu... hau oso paraje idorra da, hor Napaletik jaisten den Orradre izeneko erreka dela hemengo odol bero bakarra, eta zaharra, seguraski honek emango zion eta herrixka sortu zenean izena. Ardi batzuk ditu. Igo gara elizako eskaileratik kanpairik gabeko kanpandorrera, artzaina aurretik dugula, eta nik inguruko haitz bat eskuz seinalatuz, zer izen zuen galdetu diodanean, "Ugarra" dela esan dit, eta orain gutxi igo nahi izan zutela, baina ezina zela, sasiz estalia dagoela; gero, balkoi hartatik begira gaudela artzaina berez hasi da izendapenak egiten: batzuk "Idokorri-Ugarra" deitzen diote, baina hemengoek Ugarra bakarra... "Hemen belar-zelai gutxi dago, ardientzat janari gutxi; ahuntzentzat gehiago, eta itzal gutxi beroak jotzen duenean, ametza, zurbeltza, eta erraminta-kirtenak egiteko

ederra eta gogorra den ezpela... Hemendik ikusten direnak, Arangoiti eta Leire... eta inguruko mendiak Rakas-etik Txutxarrondorainokoak dira"...

"Jende gutxi", esan diot...

"Denak Iruñera joan dira lanera, edo gerrak eramanak ditu, eta ez dira itzuli. Napalen bada norbait".

Ea hara goazen, galdetu digu...

Ezetz, guk, egia baita.

Gizona hizketan, bakarrik bizi denaren afizioa askotan hauxe baita. Eta nik neuk jarraitu nahi dut. Jaitsi eta elizan geratu zen banku erdi batean eserita geratu naiz. Baina Mertxek antzeman dio nire gogoari aspaldi, eta han errorik bota ez nezan, ez lagunik egin, esan du bat-batean, honezkero eguerdia laster dela eta gusto bazuen..., artzainak, gusto zuela..., eta Mertxek bere poltsatik bi otarteko handi atera eta baten erdia Roman izena omen duenari eskaini eta niri eman dit bestea, eta berak hartu bigarrenaren zati bat eta jaten jarri gara gogoz hirurok...

"Urdaiazpiko hau gozoa dago", komentatu du aho betearekin artzainak, eta Mertxek ardo tanta bat falta zaigula esan duen bezain laster, artzaina zutitu eta badatorrela esan digu, eta bost minutu geroago hemen dator zahato biribil batekin. Ah!, gure ongietorria...

Oraindik beste ordu pare bat aritu gara hizketan; elizatxoaren barruan eta sasi inguruetan, eguzki gozoan, eta bere ardi batzuk ere ikusi ditugu han-hemenka, baina Mertxe eta biok jaitsi egin gara etorri garen bidetik, bakoitza berean, eta nire laguna da orduan geratu eta niri begira-begira jarri eta esan didana:

"Aizu, Joxe, zu ez zara honako asmotan jarri!" Ezetz esan diot buruaz, baina gezurra da.

Aiztoaren ahoan

Mertxe eta biok Orradretik autobusez egin genuen Iruñerako bidaiaria hura isila izan zen.

Bakoitza berean zetorren motor eta balaztarte zaratatsu hartan. Nik joan-etorriak buruz ondo grabatu nituen. Konturatu nintzen bidean ikusten genituen lurak Andoain ingurukoak baino zuriagoak zirela, eta herrixkak eta baserriak han maizago agertzen zirela tranbeko bidean. Plazaolako trenean egiten hasi nintzen hartan ere orlegi bera zen nagusi... eta oinez gauza bera ikusi nuen Iruñeko bidean gauak paisaia ilundu zidan arte... Hemen noa Mertxeren alboan, bere hegalepean bezala, umezurtz, ama hila, aita desagertua...

Adorea galduta.

Orain arte beti gorde dut, nekatua banentorren ere, itxaropen argi bat barruan; baina gastatzen joan zait, xaboi zati bat banintz bezala sentitzen naiz neskaren urak aparretan jarri eta zulo batetik banindoa legez, ez dakit nora... Konturatzen naiz, aitaren agerpenean nuen fede hura ere makaltzen ari zaidala, niregan Joxe Arretxek sortu zuen konfidantza, uste ona, ahultzen, eta orain aitona Joxemariren deituraren jatorria hain zahar, baliogabe eta hustua ikusi dudanean, gure jatorriarenak egin duela uste dut...

Zeharka Mertxeren oin zapatadunak eta berna polita belaunetaraino ikusten dizkiodan honetan, eta gure eskuak hurbil... Batistaren itxura odoltsua, ingurune ilun eta zarpaila datorrit burura, eta aurrean bi beso zaintsuekin autobusaren bolante handia maneiatzeko erakusten duen maina eta kemena adierazten duen txoferra, biak nire maitalearen titi politen nagusi, jabe, ordaintzeko sosik duten guztietan!... Nora noa ni, Etxe Handian hainbesteko errespetua erakutsi zidaten haurra, ia gizon eginda orain...

Nahi gabeko begiratu itzurkorra ikusi dit Mertxek, eta eskua hartu dit, maitaro estutu, eta niri malkoak irten zaizkit, berriz!...

Eskerrak autobusean bidaiari gutxi, eta hauek aurrealdean eta aitzina begira daudela; zer pentsatuko luke ni planta honetan ikusten nauen edozeinek... Eta alboan dudan neskatila eta ia emaztegai dudan honek, ez pintatu ez mozarrotzen duen aurpegian, baizik eta nitaz errukitu den bere barru txukunean, ni bezala umezurtz den errugabe honek..., jakingo balu, bere ondotik oraintxe ihes egiteko asmotan nabilela, eta ez esker txarreko mutila naizelako, beste aukerarik ikusten ez dudalako baizik...

Gorde dut orain arte nire nortasun ezkutua, sortu dut berria... baina nora doa orain Joxe Egiluz bide mehar eta etorkizunik ez duen honetatik?!

Ofiziorik ere ez dut eta!...

Autobusa norbait uzteko edo bidaiari berria hartzeko geratzen den bakoitzean, berton geratzen zaidan atetik jauzi bat egin eta berriz desagertzeko gogo sortu zait orain gutxi... Baina lehen ere egin nuen jauzia! (oso laburra, porzierto!) eta egun batzuk gero lehen bezain desagertua, galdua, zertarako da ona?! Ogibiderik aurkitzen ez dudan bitartean ez naiz nire buruaren jabe izango... Niri Joxe Arretxek erakutsi zidanak, musikak, ez dit balio hemen, bandako direktorearentzat bitartekorik ez dudalako, eta dudan goxo hau, Mertxe, ez dudalako egokia... Honek ez dit balio monagilo izateko ere!... honetarako latinak ikasiak badituz ere, eta maisu on-onekin!...

Joxe Arretxeren argia piztu zait bat-batean... Esperientzia duen monagiloa ez da hain aise aurkitzen, baina nondik datorren esan gabe inon aurkeztea ez da erraza izango... Zirrikitu honetatik begira jarri naiz Joxe Arretxeren laguntzarekin, maiz egiten diot dei lagun honi!, aspertzen den arte..., bistakoa da hau... Baina entzuten jarri zaidan honetan probetxua atera behar diot... Joxek nire kasuan egingo lukeena zera da: "ez neskaxa polita eta ona atsekabetu orain jauzi mortala emanaz, jarrai bere ondoan eserita"... hitzez hitz entzuten diot Joxeri hitz egiten didan bakoitzean!... "gero behar den bezala agurtu, esan biharamunean halako tokitan itxarongo diozula, Castillo plazan, esate baterako, eta honek kantoi asko dituen ez, ez duzuela topo egiteko modurik izan, eta kito!"... Nik, "konforme", eta hartu dut erabakia...

Orduantxe bertan esaten dit aho goxo-beroaz belarriko zulora:

"Non egingo duzu lo?"

Egia esan, ez naiz honetan pentsatzen jarri ere, banuen aurrekorik, jauzia egin ala ez... Ez dakit zer erantzun, eta hala esan diot lehen etorri zaidan hau:

"Elizako arkupean"...

"Hotz handia egiten du, hobe duzu eliz barrura sartu, eta emango dizut burusi bat"...

Neska honek badaki zer pentsatzen ari naizen... harritu naiz... Eta Joxe Arretxe bitarteko jarri ez ote den pentsatzen ari naizela, ausarta ni!, baietz esan diot, "beno" batekin; baina nola utziko didate eliz barruan geratzen, lapur bat izan naiteke eta!... Honetan hasi gara hirira sartzen, eta isildu gara.

Jaitsi eta belarriak oraindik autobus zaratez beteak ditudala, oso bainaiz belarrietatik minbera... gerarazi nau espaloian, eta arropa-denda baten erakusleihoaren aurrean:

"Entzun, Joxetxo", esan dit goxo-goxo, "asko kostatzen ari zait zu hemen bakarti eta babesik gabe uztea..., ematen dit gogoia zurekin lotu eta izebatzarragana ez gehiago itzultzeko"..., nik buruarekin baietz, baina buruaz pentsatuz ez zait egokia iruditzen gu bezalako bi errugabe eta malerus elkartzea, lotzeak ez liguke... -eta Joxe Arretxe hizketan- onik ekarriko; Mertxeren ofizioa dela medio oraindik okerrago! Eta jarraitu du nire neska lagunak zentzu onez... "baina ez dut uste asmatuko genukeenik, neu ere ofizio gabekoa izanik, eta egiten erakutsi didatena ez oso santua... ez zaizu gustatzen"...

"Ez", esan diot garbiri, honek lotsatu banau ere... "Arrazoi duzu Joxetxo, maite nauzun seinalea da, ezagutzen dut marka... Hara", esaten dit presaka, "hemendik ordu laurden batera hemen nauzu itzulian burusi batekin, eta erakutsiko dizut zein elizatan gauden lasai pasako duzun hotzik gabe...; neronek pasa izan dut behin baino gehiago eta!"... Eta alde egin dit arineketan.

Ez dakit, presa horrek zer esan nahi duen: 'Joan zait bitarte honetan, niretzat zailagoa izango da bestela' ala 'itxaron, gaua nola pasa erakutsi nahi dizut, eta bihar ikusiko zaitut berriz'... Honela geratu naiz hemen, nagoen bezala, jendeari begiratu gabe, bakarti, larrituta..., hau da une erabakigarria, Joxe, Pedrotxo!..., baina egurrezkoa banitz bezala galdu dut gorputzaren zentzua, elizetako santuen irudi handi horiek bezala zurez eginga, santutasuna kanpo!... "Hemen nago", heldu zait berriz ahots gozoa, eta besotik hartu nau eta hemen narama espaloitik beherantz eta gero eskuinera hartzen duen kaletik... aurrean ageri da eliza handi eder bat, oso zaharra dirudi kanpotik, eta sarrerako harri ederrak ere halaxe dira, antzinakoak... hemen sartu gara ilunbean... begiak barruko

argira egin diren arte... Eliza erraldoi bat da, Andoaingoak eta Hernanikoak ez duten zabalera eta altura, eta honez gain, albora beste eliza oso baten lekua eta aulki erreskada, eta gainera etxaurrea dirudien aitzina, leiho eta balkoi zabalak izan daitezkeen behalekuak; Azelaingo jauregia bezain handia bada, baina eliz barruan eta barne aldera begira; batek ez daki eliz barruan ala kalean dagoen... Argi gutxi, iluna nagusi, misterio zaharra, eta argi horiak eta motelak han-hemenka... eta etxe-aitzin hau dena harrobi batean edo harkaitz batean landua, barrurik gabe eginak izan balira bezala... Konturatu naizenean, Mertxe niri begira harrituta dago, zer dela-eta nik hainbesteko lilura elizatzar honetan...

Meza ematen ari dira aldare nagusian, eta aulkietan badago jenderik entzuten, baina handia da lekua eta galduta daude meza-emailea eta entzuleak esparru garai honetan..., eta esan diot Mertxeri belarrira: handia dela hau dena, eta hark, burusi gorria galtzarbean duela, baietz..., baina lilura gabe; zer egin behar dugun hemen; aurrea aulki batean belaunikatu, besteek egiten duten bezala, eta Aitaren bat egin, gutxienez, e!..., eta nik baietz, eta neroni aurreratu naiz, neskaren ondoan; gero eseri egin naiz, eta nire laguna berdin... Eta irribarre bat irten zait, nahi gabe, "non lo egin behar dut" galdetu diodanean... Orduan altxa da, nik jarraitzeko, eta aurrera egin beharrean, atzerago eta ilunago dagoen zatirantz jo du, eta ni atzetik, eta konfesaleku baten aurrean geratu, eta aurrean daukan aulkian eseri da, ni berdin...

Behaleku ona da ilunbetik eta atzetik aurreko hutsarte eta bertan galduta dagoela ematen duen jendea ikusteko.

Hemen hitz egitea ez da bekatu, gure marmarrak ez du inor asaldatu, eta esan diot elizari zor zaion errespetua galdu gabe:

"Zer ordu da?"

"Zazpiak bost gutxi", berak baitu eskuturreko erlojua, eta ikusten ari garen hura – apaiza sermoitan ari da– arratseko hileta-meza, seguraski.

"Nola dakizu eliza honetaz hainbeste?"

"Izerekin haserretzen naizen bakoitzean hemen lo egiten dut"...

"Non?", galdetu diot.

"Hemen", eta zutitu eta konfesaleku handi haren atea ireki eta barrura sartu da... Ni zain, eta unetxo baten barruan irten da, orain burusirik gabe... eta nire ondora itzuli eta esan dit: "hor utzi dizut ohea egina, baduzu nahikoa toki eta ez zara hoztuko, uda partean behintzat"...

Harri eginda geratu naiz.

"Hor?!", galdetu diot.

"Hor ez du inork begiratzen; gerrak apaizak urritu eta konfesatzera datozenak gutxitu dituenez gero, badira gutxienez bi erabiltzen ez direnak, hau da bat... ikusten duzu izenik ez duela, eta elizaren bestaldeko atzealde berean dagoena da bestea... Ez dira erabiltzen. Gainontzekoak bai, kontuz!, noizbehinka, baina mezorduaren aurretik etortzen dira. Ordubete egiten dute. Bestetan libre egoten dira. Halere, zu seguruko konfesaleku batean utzi nahi zaitut, burusi eta guzti... Ez dugu afaldu, zerbait jan behar dugu eliz aurrean dagoen tabernatxoan, eta gero, eliza itxi aurretik!, udan bederatzibederatzieta, hemen utziko zaitut nik, eta bihar goizera arte, lo egin, lasai"...

"Noiz irekitzen dute berriz?"

"Goizean goiztar dira oso, seietan bada meza, hau da irekitzeko ordua... Zu lo geratu, lasai, ni bihar goizean etorriko naizen arte. Zazpietan nahikoa da. Gosalduko dugu nonbait eta ikusiko dugu argia nondik irteten den, beti behar da eta ixaropena izan; Jainkoak estutzen omen du, hala diote, baina ez itotzen"

"Badakit honetaz pittin bat"...

Gaua luze egin zitzaidan; ez ninduen loak hartu, ni zain banengoen ere. Elizaren iluna handia zen, bost argi gorri eta hori baten kontrastasunean; ixiltasuna, hots txiki eta teinko ugariren orratzez zulatua... Ez zitzaidan iruditu sarreraren otoitz egiteko lekua zenik... nahiago dut Ospitaleko kapera txiki goxoa... baina halere bart esan ditut amak erakutsitako guztiak behin eta berriz, baita mezan latinez esaten nituenak ere; behar nuen eskertu Jaungoikoa eman dizkidan laguntza guztiengatik, nire bakardadean laguntzeagatik, eta Mertxek nigatik egin duen guztiagatik..., maitasuna izan da-eta niregatik egin dituen guztien ardatz.

Eta eskatu diot, barka diezadala egitera noana, zeren eta seietan ireki orduko bildu diren hamasei pertsonekin entzun dut meza, eta berehala irten naiz nire burusiarekin, beharko baitut..., eta nire jertse beroarekin bilatu dut hiriaren sarreraren kontrako bidea... joan naiz, joan naiz, handik ihesi, desagertu natzaio Mertxeri, ezin dudalako nire pixua sorbaldatik kendu, eta biok batera bi ahuldura biltzeak zentzurik ez duelako...

Hau egin dut gaizki gaur goizean, baina desagertu behar nuen berriz, ez dut beste irtenbiderik ikusi... Barka, Mertxe, lagun ona, egunen batean ordaintzeko biderik badut, egin nahiko nuke beste hainbat zure mesedetan. Halaxe.

Hemen nago goseak, goizeko eguzki beroa hartzen aulki publiko batean eserita.

Argia egingo ahal dit zerbaitek nire barruan.

Zaharra berri

Ezin izan dut gauza ausartagorik egin, hain da eta txikia nire mundua.

Imajinatu ahal izan ditudan irteeretatik zuzenena, elizaren bidea izan da. Hiriaren bestaldean dagoen elizatxo bat aukeratu dut nire lehen ahalegina egiteko. Ibaia pasatzen da ingurutik. Igo ditut sarrerako eskailerak, nahiko urduri; sartu naiz irekia dagoen atetik, eta belaunikatu egin naiz eskea egiteko. Egin dut ahal izan dudan kemen guztiarekin, eta gero eseri egin naiz aulkian. Bakarrik nago. Lore politak aldarean, garbi usaina giroan. Hamabiak jo arte egongo naiz, ea norbait agertzen den eta zerbait galdetzen didan.

Bestela, neronek igo beharko dut alboan dagoen apaizetxera.

Bakea da nagusi hemen, bake isila.

Hamabiak elizako erlojuan jo dituenean agertu da emakumezko bat, esatera, itxi egin behar dutela; gero arratsaldean izango dira aitortzak sei t'erdietan. Galdetu dut orduan konfesatzeko modurik izango dudan. Andreak esan dit, baietz, meza hasi baino ordu erdi bat lehenago jarriko dela apaiza konfesalekuan.

Eskerrak eman eta irten naiz; ikusi dit, zuzenki begiratu diodalako, besapean daramadan burusia; baita, aurpegia goizean iturri publiko batean garbitu badut ere, orrazirik ez eta, nire ile beltza nahiko nahasia dagoela ere.

Zer pentsatu ote du serorak?...

Onenean, onenean diot, apaiz jaunari esango zion: 'Hor egon da eserita, mugitu gabe, goiz guztia, burusi gorri bat zeraman gaztetxo bat, hau eta hau esan diot, eta irten egin da... Arratsaldean hor izango duzu konfesatzera, mutiko garbia dirudi'...

Onenean, diot, halaxe nahi dudalako.

Itxaropena gorde behar dut.

Eliz ingurutik at dagoen pasealeku itzaltsu batean sartu eta eseri egin naiz... gerizpe eder honetan nagoela etorri zait burura berriz Mertxe... Goizean berak utzitako lekuan aurkitu ez nauenean zer pentsatu ote du?... Baina neuk eten behar nuen lokarri hura, ez zaigu ez hari ez niri elkarrekiko hori komeni, ez baitu etorkizunik. Aurkitu ninduen bezala galdu nau. Hau da, nonbait, niri eta nire ingurukoei dagokigun zoritxarra... Parketxo honetan eserita zeuden guztiek alde egin dute; bazkari ordua delako, seguraski; nik ere zerbait jango nuke, baina ez dut sosik; gabetasun hau ere neurekin dut gerraz gero..., emandakoarekin bizi izatera kondenatua nago, beraz... Iruñeko bidean oinez nentorrela izan dut adorea ogi puska bat eskatzeko, bestela ez nintzen hirira iritsiko!..., baina hirian bertan eskean jartzeko kemenik ez dut. Hotza sentitu dut eta nahi gabe burusia gainean dudala goiko zuhaitzen orri arteko zeru urdina jarri zait mugitzen gupil zoro batean, hortik zehar bidezidor polit eta bakarti bat agertu zaidan arte...

Esnatu naizenean, amonaxo baten aurpegia ikusi dut neure ondoan; ez dakit zutik ala etzanda nagoen... galdezka ari zait ahots xahar hau... ea ongi sentitzen naizen, negarrez nagoela eta... Ni negarrez?... Ezetz esan diot eta berehala zutitu naiz, burusia tolestu eta eseri; amonaren ondoan, hain xuxen, eta hura, ama izan!, galdezka eta ni esnatu ezinik oraindik...

Ea ongi nagoen, eta nik baietz.

Amonatxoa niri begira, ez dit sinesten... Zer ordu den galdetu diot.

"Bostak eta laurden", esan dit; eta gero: "Siesta ederra bota duzu, ezta?"...

Nik baietz.

"Eskerrik asko esnatu nauzulako, joan behar dut, agur"... eta alde egin diot, zeren eta laster egon behar dut nonbait, zita bat banu bezala jarri naiz urduri berriz... Elizatxoa bistan dudala... nekatua nago!, baina egin behar dut behar dena, ezin naiz kale gorrian geratu... Egin berria dudan ametsak esan dit egiaren baitan finkatua dagoen bide bat aurkitu behar dudala; Joxe Arretxe izango da eragile, askotan bezala... Seinaleak beti zuzenak dira, eta bidean ager daitekeen edozein norabidetako kezka sortzen zaidanean egia aurrean dudala joateko esan dit, eta banoa, zeren eta oraingoan eman behar dudan pausoaren aldeko eta kontrako ondorioak pisatu baititut, nire egoeraren praktikotasunak gordetzeko... Seiak dira elizako dorrean... goizegi, eta auzo honen ingurua nolakoa den ikusteko parada ematen dit garaiz ibiltzeak... Hiriaren inguruan dago hau, eta ez da dena berria, baina etxe berri asko egin da hemen...

Toki txukuna, ez da Mertxe bizi den hura!...; halere, ez dakit han aurkitu nuen babesik hemen emango didaten...

Elizako atea irekia dago, igo ditut porlanezko eskailerak eta, aldareari begira gur egin ondoren, eskuinean ikusi dudan konfesalekuaren aurrean dauden aulkietako batean belaunikatu naiz, eta gero eseri...

Ez da inor etorri oraindik.

Urduri nago; goseak ez dit horregatik atximur egitez utzi... baina apaiza nolakoa izango den daukat kezka buruan tinko itsasia, ea zaharra ala gaztea tokatuko zaidan, eta... lehen aldarearen alboan dagoen atetik irten dena emaztekoa izan da. Ez dit begiratu. Aldarean egin ditu ukitu batzuk..., baina segur naiz ikusi nauela, ez duela eliza honetan ere agerian jarri behar eliz barruan inor dagoen ikusteko... Berehala sartu da adineko andre bat eta eseri da lehen aulkietako batean, nire inguruan; heldu da laster adineko gizon bat eta zuzenean aldarera joan eta kandela nagusia biztu du..., eta argi honek argitu balu bezala, emaztekoa irten den ate beretik sartu da apaiz gazte bat, eta belauniko osorik jarri eta buruaz gur patxadatsua egin eta gero nigana xuxenean baletor bezala... konfesalekuan sartu da niri begiratu ere egin gabe.

Joxe..., Pedrotxo!..., aurrera!, esaten diot neure buruari eta:

"Ave Maria purísima", esan diot, aurrealdeko atetik belaunikatu bezain laster.

"Sin pecado concebida... Zenbat denbora da aitortu zinela?"

"Bi aste".

"Esan zure bekatuak"...

Ni isilik, ez zait nahi dudana irteten... Halere esan diot azkenean eta hitz-txurru batean: "Ez dakit nola esan... gauza asko"...

"Hainbeste egin duzu bi asteotan?"

"Bai jauna."

"Esan aurreneko bekatua"...

"Etxetik alde egin nuela"...

"Zergatik?"

"Gauza askogatik"...

"Hainbeste gauza esan behar badizkidazu, hau ez da hitz egiteko lekua... Nire lanak orain hemen amaitu ondoren hitz egingo dugu patxadan..."

"Bai jauna"...

"Zatoz lasai"... eta latina martxan sartu duen honetan irten egin zait:

"Baina bekatuak"...

"Barkatzen dizkizut, oraingoz!... denak..., Orain itxoin iezadazu aulki horretan bertan... Aitaren Semearen eta Espiritu Santuaren izenean"... egiten dit apaizak gurutzea nire begien aurrean..., eta:

"Amen", esaten diot... Eta hor utzi dut apaiza zahartxoaren aitortzak entzuten; ni zutitu eta lehen aulkian esertzera noanean amona batekin egin dut topo, eta beste zahartxo batzuekin eta atzeraxeago eseri naiz; lasaiago orain, apaizaren esanetara jarria bainago dena.

Laburra izan da. Halere jendea elizatik irten eta bakarrik geratu naizenean biztu zait berriz iheserako aspaldian dudan joera zoro erraza!... 'Baina nora joan behar duk hik, Pedrotxo', esan diot neure buruari, 'ofiziorik gabeko mutiko desorekatua eta Goardia Zibilak jarraitua, errukarri hori'... Eta hemen dut apaiz jauna nire alboan...

"Zer, logale?"...

"Pixka bat, bai jauna"... eta heldu dit besagaintetik lagunkiro, eta burusia bere beste eskuan hartu eta hor narama sakristia barrutik eskailetan gora... ni mamuxel bat banintz bezala... bere etxebizitzara... "Jan al duzu?", esan dit, eta ezetz esan diodanean sukaldara sartzen nau berarekin batera, eta esaten dio nik goizean ikusitako emaztekiari:

"Jarri beste kafesne bat lagunarentzat, Maddalen...; eta zu lasai", esan dit, "gazte gutxi dabil gaur egun auzo honetako elizan, eta poztu naiz nire arreba den sukaldari honek gaur goizean gaztetxo bat meza ordua galdezka etorri dela esan didanean... Ez, orain ez ezer esan, orain askaldu egingo dugu, eta kontatuko dizkidazu zure esatekoak"..., eta bera hasi zait, ni kafesne gozoa eta opil beroa irrikan jaten ari naizen bitartean, hura niri begira,... lagunkiro, bere apaizgaitako denboran ni bezalako gazte bat zen garaiko kontaketeekin aurrera...

"Maddalen, kafesne pixka bat gehiago hartuko genuke". Eta edan dut bi opilen gaintetik beste kafesne bat... Apaizak ere jan-edanak egin ditu nirekin batera... "Zatoz", esaten dit mahaitik altxa eta kristalezko atetik baratza eguzkitsu batera irten denean, eta ni bere atzetik... elizatze ederra!, zuhaitz eta guzti. Argitan zegoen aulki bat seinalatu dit eskuaz eser nadin, eta bera jarri da ondoan... Arratsalde gozoa hemen, baratzan!

"Bestelako kolorea hartu du zure aurpegiak... Nola duzu izena?"

"Bi izen ditut"... aitortu diot sarreratik...

"Bi?!", harrituarena egin dit, "bota abenturak!"...

"Aurrena", ausartu naiz esatera, "aitortza bezala esan nahi ditut gauzak, sekretuan"...

"Bota sekretuak"..., esan dit, "aitortzako sekretuan hartuko dizkizut, apaizaren hitza duzu, ez al zara fio?!"

"Bai", aitortu diot, hala baita...

Eta hasi natzaio historia osoa kontatzen, hark, don Inaziok, gauza guztiak ongi uler ditzan: Gerra eta aita Peliren desagerpena; Etxe Handia eta amatxoren heriotza; nire bakardadea eta aitaren agerpenaren zain jarria geroztik, inoiz etsi gabe; Jose Arretxe, eta honen laguntzaz nire monagilotza don Martxelen zerbitzuan... Interes handiarekin

jarraitu du apaizak hau dena..., eta hitzez bultzatzen nau nire aitormenera: "ongi", "orduak"... eta abar... Ni neu, gero eta lasaiago nire karga handi hau dena bere aurrean botatzen... Kontatu diot xehetasun handiarekin Joxe Arretxeren bitartez lortutako bateria jotzeko lana bandan, honen heriotza eta gero maldan behera gentozela gertatutako zorigaitza eta Goardia Zibilak niganako izan duen jarrera, eta nire lehen ihesa Azelaingo jauregira; hemendik, beldurrak, nire bigarren ihesa Plazaolako trenean..., eta zati hau interes handiarekin jarraitu du don Inaziok... "hau ederra da, egiazko abentura!, zinerako modukoa..." Ni, pozik! Iruñera nola heldu nintzen kontatzen ari nintzela: "noizkoa da hau!", galdetu dit, eta nik, orain bost egunekoa dela...; hark: "segi, segi"... Eta gau hartan gertatu zitzaizkidan (Mertxeren izenik aipatu gabe!, eta lekua zehazki deskribatu gabe!) ...esan diot, lotsatuta, han pasa nituen lau egunak nolakoak izan ziren...

"Beno, zer egin duzu lau egun hauetan ohean?"

"Titiak ikusi dizkiodala"..., ausartu naiz...

"Eta zer gehiago?", honek garrantzirik ez balu bezala gaztetxoari irribarre gozoz begira.

"Ba... ukitzeko esan zidan"...

"Eta zuk, heldu!"...

"Ba, bai"..., lagun bati kontatzen ariko banintzaio bezala...

"Eta musurik?..."

"Ba, bai"...

"Non?"

"Titietan eta ezpainetan"...

"Eta, gero?"

"Berak sartu zidan bere barrura"...

"Lehenengo aldiz gertatu al zaizu hau egitea?"

"Bai, jauna"...

"Badakizu hori ez dagoela ondo"..., esaten dit serio.

"Bai, jauna", ni ere formal.

"Ez al da egia zeuk ez zenuela hau bilatu?"

"Nik, ez jauna".

"Ez duzu berriz egingo"...

"Ez jauna".

"Damu duzu?... nola duzu izena?"

"Hau egin nuenean, Joxe"...

"Baina hau ez da egiazko izena"...

"Ez, bataioko izena Pedrotxo da"...

"Orduan, Pedrotxo, zuk ez duzu ezer egin; hori beste izeneko abenturaren gertakizun bat da; amets bat bezala; eta nola hemendik aurrera Pedrotxo izaten jarraituko duzun, ba jarrai txukun eta zintzo izaten".

Eta latinez 'absolbatzen zaitut'..., eta gurutzeta airean berriz, apaiza lagunkiro irribarre garbiz nire lagun...

"Bai, don Inazio, baina ez dut bukatu".

"A!, ez!?, gehiago!, bota!"

"Bada gero, Mertxeri ezer esan gabe, hanka egin diodala"...

"Baina gaur goizaldean zure lagun Mertxeri hori egin diozunean Joxe zinen"...

"Bai"...

"Orain Pedrotxo zara"...

"Bai"...

"Paseak pasata"..., esaten dit zeharo konbentzituta: "Pedrotxo: zure bekatu guztiak desegin dira, Kristoren izenean barkatu dizudanez gero... Amen".

Berriak

Joxek Mertxerekin lau egun pasa zituen bezala, hiru dira Pedrotxo don Inazio apaizaren etxean dagoela, eta dagoeneko meza batzuk, ez denak, laguntzen jarri zaio.

Honez gain asko hitz egin dute biek elizondoko baratzan eta baita Iruñeko kaleetan ere.

Beldur izan da Pedrotxo, edozein momentutan Mertxe aurrez aurre aurkituko ote duen. Eta apaizak esan dio, beste gauza askoren artean, beldur hori gainditu egin behar duela: ikusten badira, eskerrak eman behar dizkiola berriz bihotz oneko neskatilari, eta bere berriak eman.

Honek lasaitu du gaztea, ni, berriz bide onetik abiatu den Pedrotxo... Garbi jarri ditu don Inaziok apaizari berari eta niri, bioi, dagozkigun erantzukizunak. Errazegi zen niretzat..., eta ulertu dut apaizaren puntu hau, Joxe Arretzek erabiltzen zituen arrazoibide garbi beretik eginga etorri baitzait; errazegi zen niretzat apaizari aitorketa bidez nire karga hustu, ni lasaitu, eta kito geratu bagina bezala geratzea, zeren eta don Inaziok ere badu bere kontzientzia eta erantzunbehar berezia: "Nik zuri babesa ematerakoan", esan dit, "zu desagertu eta kezka bizian utzi dituzunen zordun egiten naiz"... Eta hau egia biribila da, don Martxelek ez zidan parada hobeto agertuko. Beraz, ondo pentsatu eta gero, eta bidean nire akordioa lortu zuenez gero, don Inaziok don Martxeli deitu zion atzo goizean, Etxe Handian meza emateko ordua baino lehenxeago... Ez dakit zer esan zion; jakin dudan bakarra da bion artean hitz egindakoa kontuan harturik esan ziola hemen, Iruñean, berarekin parrokiaren nagoela, eta osasunez ongi eta animoso. Nire partetik eskuminak ere eman zizkiola, berari zegozkionak eta Ospitaleko mojentzat ere bai... Paularik ez nion aipatu!... Argi utzi zuen Andoainen ni neu ez nintzela agertuko oraingoz... Goardia Zibilak nire atzetik zebiltzan hura konpondu arte...

Hau da don Inaziok esan zidana, niretzat Ebanjelioa. Asko poztu zela don Martxel, eta bere bitartez poztuko ziren gainontzekoak. Egunen batean hau Plazaolako trenean etortzekotan geratu zela.

"Hala", esan dit don Inaziok, "hitz egingo duzue, konforme?", eta nik baietz.

Nola ez!

Hau atzo, deia goizean egin eta arratsaldean esan zizkidan denak, eta niri baieztatu, ez ninduela inora bidaliko nire gogoz gauzak ongi erabaki arte; hau ez nuen neronek eskatu, baizik eta don Inaziok berez niri aurreratu zidan.

Gauzak ezin garbiago.

Eta gaur eguerdian, aldareko garbiketa egin eta gauzak bere tokian jartzen aritu eta gero sakristiara bidean abiatu naizenean... zer ikusiko troko beltzaren gainean eta... don Martxelen aurpegi biribil irribarretsua!!... ez nekien egia zen ala nire irudipen bat!... don Inazioren alkandora zuria bere alboan zuela... A!, horretarako irten zen apaiza bere kamionetatxoan: don Martxelen bila!...

Erori zait eskutik baieta eta joan naiz apaiza agurtzera, besarkatu egin dut ustekabeen, niri zail egiten zaidan zerbait egin dut, nirez irten zaidalako, eta hark pixka bat estutu nauenean, negarrez hasten ez naiz bada!... eta don Inazioren aurrean!...

Hara zer gizon puska ni!

"Ondo zaude, ikusten dut, eta don Inaziori eskerrak..., gure desagertua!, hil zinela ere pentsatu genuen beste gauza batzuen artean!, eta hona hemen gizontxo... Alabado sea!"... eta don Inaziok utzi gaitu dagoeneko, begiramen handiz, eta gure zain geratu da goiko bizitzarako bidean, eta bagoaz don Martxel eta biok, ni malkoak xurga ezinean oraindik, mukitsu alen hau!...

"Orduan", esaten du don Inaziok, "lehendabizi bazkaldu egingo dugu, Maddalenek prestatu badigu, ordua da eta..., gainera goseak egongo zara, don Martxel, hiru orduko trena egin eta gero"...

"Nahi duzuen bezala, nahi duzuen bezala"... jarraitzen du bizi-bizi don Martxelek sukaldeko bidea eskaileretan gora, "... ni hemen gonbidatu lotsagabea nauzue, eta egia da bazkaltzeko 'Ave Maria' esateko prest nauzuela..., zaharrena ni naizelako besterik ez bada ere"...

"Konforme", dio don Inaziok leialki, "lana zuretzat"... Nik ez dut ezer esan, noski, baina nire baitan irten zait Joxe Arretxeren esaldi bat: 'Hara zer bikotea osatzen duten!'... Mahaian hirurok eseri garenean, Maddalenek zopa beroa zerbitzatu eta berau eseri ondoren egin du don Martxelek, ohi bezala, goiko Jaunari esker ona ematea, Ospitalean gosaritan entzuna nuen bezala, eta oraingo honetan beste bizpahiru hitz erantsi ditu: "... Eta gaur hona ekarri gaituen guztia esker onez onar dezagun, Amen".

Ni adi!

Eta orain, jaten....

Normala zen bere bidaia gogoraztea, noski, eta dena esker onez hartzea, bazkaria bera bezala... Eta halere..., nire errota martxan beti!, zergatik 'onar dezagun' esan, eta ez, bazkaria bera bezala, 'esker on' berean utzi... Mahaiko beste hirurak eguraldiaz eta Andoaingo berri arruntez ari diren bitartean, ni nahiko isilik, ez baitute niri dagokidan gairik aipatzen, eta behin bakarrik zuzentzen dit don Martxelek hitza, eta esaten:

"Ez al da egia, Pedrotxo?"...

Eta nik baietz, noski, zertaz galdetu didan ez badakit ere... Honelaxe joan da bazkaria: odolkiarekin aza eta xerra bana patata frijituekin, eta gero gazta eta laranja bana..., ardoa aparte... Oso ondo jan-edan dugu dena, eta berriz don Martxelek eskerrak emateko egiten duen otoitza esan duenean altxatzen da don Inazio ere, eta esaten digu, dena aurretik prestatua balego bezala:

"Orain izango duzue biek zer konta, bai, eta eguraldi ederra dugunez, kafetxoa baratza eramango dizue Maddalenek, ongi iruditzen bazaizue..."

"Oso ondo, oso ondo", dio don Marchelek eskerrak emanez, eta konturatu gabe, baratzan eserita aurkitzen gara biok gerizpe gozoan, kafearen zain, eta apaiz jauna iturritxo bat bezala niri hizketan:

"Pedrotxo"..., esan dit mahai biribilaren bestaldetik, "orain berri on bat"..., eta askotan mezatako hitzaldietan liburu santuetatik esaldi bat irakurtzen entzun diodan intonazio berean erantsi du hau: "zure aita bizi da!"... Harri eginda geratu naiz.

"Non"...

Ez zait beste ahotsik irten.

"Arrasatera ekarri zuten orain hilabete... Bai, zu artean Andoaingo Ospitalean zinela... Gero jakingo dituzu xehetasunak, baina gerrondoan zaurituta jaso izan zen, ez Bilbon, baizik Bilbotik ihesi joan zen Asturiasko herritxo batean, Museleko portutxoan, Frantziarako irten zen arrainontzi batera igo nahian zebilela norbaitek tiro bat jo ote zion buruan... hau ageri da lekuko gertatu zen asturiar baten ahotik, eta bizirik irten eta bertoko ospitalean sendatu eta zaindu zuten"...

"Ez dakite nola gertatu zen, gerrako historiak"..., segitu du.

"Ez al zuen eritetxean euskalduna zela esan?"

"Ez"..., esaten dit don Martxelek, "tiroak elbarritu egin zuen, ez du hitz egiten, ez daki nor den ere"...

"Eta paperak?"... Askotan hitz egin bainuen nik amatxorekin posibilitate honetaz, ahalbide guztiez!... Gogoratzen naiz behin amak nola esan zidan: 'Pedrotxo, ezin ditugu guk gerta daitezkeen gauza guztiak aztertu, hortarako Jainkoa'...

"Ez paper, ez diru, ez zioten jantzietan ezer aurkitu; lapurretarako egingo zutelaren esaten du informeak, honelako asko gertatu omen zen, urrea zeramatanak ere ba omen ziren ihesaldi hartan... Gorrien urre famatua!"

"Gure aita ez zen gorria!..., amatxok argitu zidan inbentu honen historia"...

"Halaxe da"...

Don Martxel ni bezain mindua dagoela bistan da; niri hau kontatu beharrak estutzen duela argi dago... Isilik egon gara unetxo batean; hark nirea jakin nahi...

"Zer egin behar dut, don Martxel?", galdetzen diot.

"Ez dakit oraindik... Lehendabizi zuk hau ezagutzea zen gure kezka nagusia, mojena eta nirea... Ez dugu hau lehenago egin, ez genekielako non zinen; Jaunak baditu bere bideak, eta hemen zaudela jakin genuen bezain laster erabaki zen ni zuregana etorri eta zurekin egotea, edozertarako... Geuk lagundu nahi zaitugu. Nola? Ez dakit oraindik. Zurekin batera pentsatu behar dugu, ez al duzu uste?"

Nik, baietz... "Non dago aitaxo Arrasaten?..., Santagedan?!"...

Baietz esan dit begiekin.

Santagedaz hitz egin zidan Joxe Arretzek, eta beti pena handiz, hemen ere bai baitzituen lagunak...

"Ez da, gero, zure aita erotu delako... Esango dizut gertatua: Burgosko asiloan egin ditu gerra amaitu zenetik orain artekoak; baina beti zain, nonbait, berea zen lurrera bidaltzeko; euskalduna zela antzeman zioten, gertatutakoaz eta itxuraz ere, eta Bilbora idatzi ere egin zuten, ea hartzen zuten; baina Bilbon ere ez zuten bere gain hartu nahi izan bertokoa zen jakin gabe... Badakizu, ofizialkeriak!... Zure desagerpena prentsan agertu zenez, eta aitaren desagerpena aipatuz, hain zuzen, gauza bitxia bezala... 'aita lehen eta orain semea'... Burgosko arduradunek pentsatu zuten zerikusirik izatea posible zela..., eta Gipuzkoako Diputaziora idatzi zuten... eta azkenean lortu dute berea ez zen gaixoa hona pasatzeko modua, eta hala aurkitu du zure aitaxok etxeko bidea bere semetxoaren bitartez"...

"Orain hemen dago, eta etxean dago.... ezta?, eta zuk ikusi egin nahi al duzu?"

Nik baietz, noski.

"Gipuzkoako agintariek Andoaingo udalera deitu zuten", jarraitzen du don Martxelen jarioak, "eta hemengoak zure aita ote zen ikusteko bere udaltzainetako bat bidali zuen, eta honek berriz, ezagutu egin zuen zure aita!; honen bidez jakin dugu Peli bera dela..."

Ni harri eginda berriz!... gure aitaxoren abentura tristea...

Niri burura etorri zaidan gauza bera ikusi diot begietan apaizari, zeren eta esaten dit berehala:

"Neronek deitu nuen udaletxera, eta joan nintzen zinegotziarekin hitz egitera, urlia, eta galdetu nion, ea Arrasatera ekarri zuten andoaindar hau, Peli, zergatik ez duten guregana, Ospitalera, ekartzen, hemen pozik egongo litzatekeela, egokiago dela bere herriko egoitza, eroetxe bat baino... barkatuko didazu hau horrela esatea... Esan nion, gainera, zu ekartzeko bidea ere izan zitekeela, hainbeste zorigaitz jasan duen herriko familia honek merezi duela hainbeste"...

"Eta zer erantzun zizun?"..., galdetzen diot.

"Ezetz... hitz egin zutela hau Udaleko plenoan... eta politika gertuegi zegoela aitortu zidan; oraindik horretan daude!, zure musikako arazo hartan jaso nuen jarrera bihozgabe bera, bururik ere ez duena... Barkatu, Pedrotxo, baina gauzak argi esan behar dizkizut une honetan, zure erabakia zein den jakin nahi dudalako"...

Nik ez dakit gizon honi nola eskertu...

"Eta familiako bakarra zeu zarenez gero, zeuk egia osoa ezagutzea beharrezkoa da, gero elkarrekin zer egin dezakegun ikusteko"...

Don Martxel barra-barra niri egiak botatzen..., eta ni pentsatzen, lehendabizi aita ikusi behar dudala, eta lanean jarri eta lagundu ahal diodana laguntzeko..., eta esaten diot:

"Zurekin joan nahi nuke orain; baina dirurik ez dut bidaia ordaintzeko, eta ez dakit nola aitagana hurbildu, han inguruan lanen bat aurkitu... Ez baitakit zertan lan egin nezakeen ere!..., eta negar zotina irten zait... nire ahulezia hau!"...

Aitatxo

Gaua don Martxelen Andoaingo etxean pasa eta heldu ginen biok hurrengo goizean Arrasatera autobusez, Andoaian ez Ospitaleko ez koarteleko inor esnatu gabe.

Isileko eta arduraz egindako bidaia izan zen hura. Arrasate hiritik gertu, Gesalibarren dago, Santa Ageda eliz ondoan, eroetxea... Don Martxelek eman zidan honen berri gentozela... Aitaren egin du Etxe Handi honetara hurbildu garenean. Zer esaten ote dio apaizari etxetzar honek!... ikaratu nau apaizaren errespetu eta izuz beteriko itzalak... eta egia da niri, Martxeli, gauza asko, batzuk larriak, gogorazten dizkidala lehen bainuetxe famatua zen honek... Entzute handiko hilketa bat ere egin zen bere arkupean. Ez dizkiot gaztetxo honi kontatuko, nahikoa baita gaur hona dakarren karga... "Hau da gizonezkoen egoitza", esaten diot nire babesean doan errukarriari..., "zubitxo horretatik bestaldera dagoena da emakumezkoena"... Oraindik ez du Pedrotxok inor ikusi, goiza delako, eta hobe!..., koadro tristeak baitira..., eta bizkarretik heldu diot, bakarrik senti ez dadin... Hara zer itzal ederra ematen didan apaizak niri, Pedrotxori... hurbiltze honetan... sartu garen atari honek eliza batekoa dirudi, dena da goia eta handia, eta bertotik hasten naiz entzuten murmurio isil baten gainetik suziriak bezalako "plas", "plas" xume batzuk, txinalkako pausoak arrastaka ere bai... ez dakit pausoak diren... argindarraren "uuu" luze sarkorra sentitzen dut neuk buruan... Islaneko zentrolean banengo bezala... Hemen dator gizon handi baldar bat aurrera begira eta inor ikusi gabe, gu biok beste inor ez, mamuak! bagina bezala... airea zulatzen baletor bezala, eta tinko, tinkoegi!... "Hau eroa al da?", galdetu diot apaizari ahapeka, baina ez dit erantzun, gizona justu-justu gure aldamenetik... fas!... pasa da, Plazaolako lokomotora balitz bezala..., kea salbu..., baina hor datoz, hor datoz!, beste bi, bata bestearen arrimuan, eta bidea libre uzteko eskuinera hartu dugu, beste biderik ez dugulako ere bai, eta hau argiz gainezka..., ikusten dut argiz blai dagoen zeru hau nondik datorren... ezkerreko pareta osoa da beira hutsa, eta argitan bainatzen garen hartan ikusi ditut banaka eta bakarrik, baina bost, "bat, bi, hiru, lau"... eta "ixo" egin dit don Martxelek, hemen datoz gaztetxo bat eta bi zahartxo, besteak gizonduak dira argizko beiraz egina dagoen pareta honen kontra datozenak... urrundik ikusi ditut... eta begiratzen diot don Martxeli, eta honek niri ere bai, begirada harrapatu diot airean!, eta bizkarretik helduta hau aurrera, eta ni berarekin... bide argi zabal hartatik, eta beste muturrera heltzen garenean eskuinetara, ilunbetara, hartzen dugu, beste irtenbiderik ez dagoelako, ni harrituta zirkuitu hartaz...; "labirinto bat", esaten dit apaizak, eta nik ulertzen ez diodanez gero, esan dit hitzekin "irten ezineko bide maltzurra" dela, eta nik baietz esan nionean, geratu egin zen bat-batean don Martxel, "heldu gara" esan dit, eta nik ikusten ez nuen atea jo du hark... niri asko kostatzen zait argitik ilunbera begiak egitea, itsutua nengoen oraindik..., eta bat-batean bi aldiz jo eta sartzen da, ni aurretik nauela, eta nik ikusten dut lehendabizi han dagoen apaiza... "Hau don Rosendo da, etxe handi honetako kaperau eta nagusi!..., eta beste hau duk, Rosendo, nire lagun Pedrotxo..., aita hona ekarri diotena"... "Bai, bai..., zain nengoan. Horretara gero joango gaituk, aurrena meza diagu, heuk emango duk, ni hire lagun"...

"Gauza bat eskatuko diat, Rosendo", dio don Martxelek, "hi haiz meza-emaile, eta lagundu, honako gaztetxo honek egingo dik, eta ikusiko duk nola erantzuten duen"...

"Heuk erakutsi badiok"...

"Eta ni ere aldarean izango nauk biekin"...

"Hala, Pedrotxo", esaten dit niri, "jantzi hor ikusten dituzunak"..., monagilo jantziak erakusten dizkit armairuaren alboan esekita..., eta hor noa, jantzen hasi naiz gizon heldu bat zuzenean nigana datorrela ikusi dudanean... "Zer, nire jantziak!"..., baietz esaten diot, don Rosendok eskatu didala hau egiteko... eta bi apaizak eserita dauden tokitik esaten dio don Rosendok: "Bai, Baxilio, biak zarete gaur, lagundu iezaioak gaztetxoari, etxean hago eta"... eta ez dago pozik, ikusten diot muturra, baina azkenean haserterik gabe hartzen nau besotik eta eramaten aldarera, oraindik argi batzuk biztu gabe baitaude, eta ni, jarri naiz lanean, bai baitakit!...

Eta gizona, zeharka niri begira, baina konforme geratu da: "Oso ondo"..., dio eta badatoz bi apaizak, bat kasuilarekin eta don Martxel azpiko zuriarekin, eta geu sartzen gara atzetik, ni don Rosendoren ondotik, eta don Martxel geratzen da, atzean, Baxiliorekin...

"Hara, gure mutikoa"..., diot nik, Martxelek, "ez dakiola niri gertatutakoa pasa!, Jauna!, zeren eta oraindik gogoan dut nola Doneztebe martiriaren eguna zen, abenduak 26, ni Meza ematen, don Rosendo alboan, biak gorritz jantzita, legezko denez, eta ez dakit honen eragina izan zen..., baina ni Otoitzean nengoela: 'Da nobis, quaesumus, Domine, imitari quod colimus: ut discamus'... 'Etsaiak maite izaten ikas dezagun, Jauna'... Honetan nengoela, kapera betea, eta errugabe hauetako bat zutitzen da bigarren aulkian.... eta nor izango eta Florentxio, nire herritarra, laguna, luze-luze egin eta... zer egingo ote duen burura etortzen hasterako irteten da mantso, lasai, aulkitik, denak mugiarazten!, eta hemen igotzen ditu bi eskailera mailak eta xuxenean nigana aldarean!, ez dakit nola pasa zen, ez zidan egin zuen bidea jarraitzeko denborarik ere eman: alboan neukan!, eta nire ezkerrera begiratzeko nengoela etorri zitzaidan liburu santuaren aitzakiarekin don Rosendo, eta esan belarrira: 'ez iezaioak kasurik egin, bakarrik joango duk eta!'... eta eskerrak aurrera begira jarraitu nuela mezarekin, eta ezkerreko lagunak, herritarrak, Florentxiok, esaten dit ahapeka, baina denek entzuteko moduan: 'Hi, Martxel, gorritz jantzita zer egiten duk hemen, ez al duk xuririk?, hobe huke!'... eta isiltzen zait, eta alde egiten dit... hor ikusten dut berriz itzulian bere lagunak altxarazten eta patxada osoan bere lekuan esertzen... Ez al zaio Pedrotxori honelakorik gertatuko... Dena ongi irtengo ahal zaio, pentsatzen dut nik, joan zen aldi hartan baino lasaiago nagoen honetan"...

Dena ondo joan zait...

Jauna ematen nik lagundu diot meza-emaileari, Baxiliok eman didan platertxoan lagun, eta jendea erreskadan datorrela ni geratu egin naiz aurpegiak banan bana ikusten, ea, por-si-akaso, aitaren aurpegia ikusten dudana, eta honela nagoela don Rosendok ukitu nau esanez jarraitzeko, amaitu dela..., eta berehala erne jarri naiz... Halere, ez du apaizak hau kontuan hartu, zeren eta jantziak erantzten ari dela esan dio don Martxeli, primerako maisuak izan dituela Pedrotxok, nik, zeren eta latinak oso txukun esanak izan direla, dena primeran!, "zorionak", esaten dit niri begira, eta don Martxeli: "Maisu,

ona, noski... eta baita gaztetxo honen zuzendari zehatz izan zen"... eta laguntza eskatzen dio don Martxeli, eta honek: "Arretxe"...

"Bai, Joxe Arretxe, oso maisu ona"...

Pedrotxok ikusi du Baxilio nahiko serio dagoela, eta hurbildu zaio esanez, eskerrik asko, eman dion laguntzagatik, platiloarekin eta guzti... Bestea biztu zaio orduan, eta pegatu gaztetxoari berari ez zegozkionak esaten, ez dakit zein osabaren semea etortzeko duela bisitatzer, Donostiatik datorrela, soldaduskan dagoela... Kolarekin erantsi balitzaio bezala dauka gaixoa ia belarrira hizketan..., eta zer da hau!, diot nik neuretzat..., nik ez bainekien hemengo monagiloa ere eroa zenik... Jantziak aldatu eta gero ikusten ari naiz bi apaizak hizketan ari direla; orain begiratzen dit don Martxelek, harrapatu dut honetan, eta pentsatzen dut bere apaiz lagunari nire arazoak kontatzen ari zaiola..., eta monagilotan ordeztu dudan gizona Mertzek erregalatu zidan jertsea oso polita dela esaten ari zait.... ezin ondotik bota, jaramonik ez egitea ez da nahikoa eroa uxatzeko!...

Eta irteten gara, bi apaizak, ni atzetik, eta han geratzen da Baxilio, eskerrak!

Labirintoan sartzen gara berriz, nahiko ilun, urrundik argi handiko korridorea ikusten dudan arte..., baina bertara heldu baino lehenago eskuinetara daraman atea irekitzen du don Rosendok, egiazki hemengo korridore eta ateetan aditua dena, noski, eta kapera bera baino handiagoa den frontoi batera ekarri gaitu..., hau mahaiz betea, erreskadan mahai luzeak luzeran bata bestearen atzetik ipiniak, "firme" baleude bezala..., hau esango luke Joxe Arretxek hemen balego..., eta gainean txikiak eta asko, hauek ere erreskadan, plater zuriak eta urontzi grisak... Hemen ez zegoen esan beharrik, baina bertoko apaizak esan digu hau janlekua dela, gizonena, hain xuxen, eta... goazen aurrera eskuineko bidetik, mahai iladak egiten duen kantoira iritsi eta bihurgunea hartu eta gero bultza egin dio ate xuri bati, plast!, eta sukalde erraldoia berton, gizemakumeak honantz eta harantz, erleak balira bezala, geratu gabe..., eta hemengo baztertxo batean dagoen mahaietan esertzen gara, kafesne "bero!" bana hartuko dugula esan dio apaiz batek besteari, ni ez banengo bezala..., "beroa" izatea oso da garrantzitsua hemen, dirudienez, bi aldiz esan baitio inguratu zaigun sukaldariari, eta, hala, bi apaizak niri ez dagokidan ezertaz hizketan lagunkiro, eta ni berriz desagertu banintz bezala, eta hobe, pentsatzeko, nik ere bai baitut zer pentsa, eta zera etorri zait burura: Mertxe zertan ari ote den, neskaxa hori sartu zait gogoan, jertse hau soinean dudan bitartean ez zait joango..., eta azpian jantziarazi zidaten alkandora txuria, zabalegia eta luzeegia niretzat, don Inazioarena, baina garbia behintzat, eta orraztua irten naiz gaur goizean aspaldiko partez... Aitatxo non ote dagoen, hau dago nire barruan, azpi-azpitik nire barru guztia betetzen... Ez dut elizan bere antzeko inor ikusi... Nola ezagutuko dut nik hiru urtez gero ikusi ez dudan aita, nahiz eta argazki batzuk izan, orain Andoaingo Ospitalean, amatxok utziak kartoizko kaxa txiki batean... amonarekin ez, oso goiz hil baitzitzaion amatxori berea, baina aitona Joxemariarenak bai, eta izeba-osabak eta lehengusuak... Baina orain dela urte asko egindako argazkiek galdu zuten honezkero bata bestearen antza...

Hona hemen kafesne beroa!

Kostatzen ari zait irakiten dagoen kafesnea irensten, baina don Rosendok ur freskoa bailitzan edan duenez gero, altxa dira bi apaizak eta, Martxelek esaten dio Rosendori: "Hi, gure mutilak hartu arte itxoin ezak"...

Eta amaitu dut nolabait.

Dagoeneko bi ateaq plist, plast, eta irten gara korridore ilunera berriz, eta ibilera labur bat egin eta hor sartzen da bertoko apaiza, paretatik!, argiz gainezka dagoen gelara, eta han argizko paretaren kontrargian gizon bat txapelik gabe, zutik, bakarrik eta norbaiten zain balego bezala..., eta esaten dio don Rosendok, hemen denerako aditua den honek:

"Hona hemen, Peli, don Martxel apaiza"... don Martxelek eskua eman dio, eta esaten dio: "Ongi al zaude?"..., eta azkenean Rosendok berriz ere aurkezpena: "eta hemen... Pedrotxo, zure semea"...

Nik asko eta askotan oraingo parada honetan aita eta biok zer egin genezakeen aurrikusi eta gero... besarkatu egin dut!, eta aitatxok ni utzi nahi, askatzeko keinuak egiten, eta ni negarrari emanda!, aitaren bizkarrari lotuta, batetik, eta bestetik bere eskuineko eskuari heldu eta estutzen, estutzen nion nonbait, hark tira egin baitzidan bere aldera eta ni, ezer ikusten ez nuela, argitan eta malkotan blai..., nola handik, nire gurasoaren, aitatxoren, magaletik nola irten ez nekiela...

Don Martxel sentitu dut gertu hemen ere, berak esaten baitit belarrira: "Ez ezazu gehiegi estutu..., ez dago ohitua honetara, eta pentsa... zure aitaren burua ez dagoela zurearen parean, zuk dakizuna zure aita ahaztua duela tiro hura jo ziotenez gero... Aurrerago baliteke gauzak aldatzea, baina gaurkoz... ene!, ez ezazu gehiago estutu"... Nik indarra nuen, eta kemen ernea!, zerbaitek barrutik eragindako nire amatxoren eta nire indarrak, biak, batera hemen elkarrekin... Erretiratu nintzen azkenean apaizen atzera, paretaren kontra oraindik zotinka, nire betiko ahulezia...

Bi apaizak ezer gertatu ez balitz bezala edozertaz!, hizketan ari zirela, eta aitatxo isilik..., nik begiratzen nion ea aitatxoren errainuan ikusten nizkion eskuak, hain ezagunak nituen bere eskuak, eta ea aurpegia ikusten nion, buruko ilea..., eta hau bai ageri zen goi argitan xuri-beltza eta kizkurra..., aurpegian ebaki gabeko bizar xurixka..., eta gaztea zen bada aita!, baina hau ikusi ahal izan nion beste biak hizketan eta aita isilik zeuden hartan..., eta sudurra, ez handia, ez txikia, beheko puntatxoak aurrerantz egin balu bezala..., eta begietako argia... hila, hau iruditu zitzaidan niri...

Gizon hau gu hirurotatik orain ezagutzen zuen bakarra don Rosendo zen, Etxe Handi hartako aditua..., eta honek ikusi zuen nonbait nekatua zegoela, txokatua eta nekatua...

Etorri zen atzera nigana eta esan zidan:

"Gaurkoz nahikoa ezuste eta zirrara jasan du, eta zuk ere bai... deskantsua behar duzue..., agurtuko dugu banan bana, ez zaitez luza, ez ezazu zure hunkimendua gehiegi erakutsi, lasai utzi dezagun... Gaur gauean lo egin dezan"...

Halaxe egiten ahalegindu ginen.

Irteterakoan azken begiratu botan nionean ikusi nuen bere ohean berea zen txapela etzanda.

Ez handia, ez txikia.

Hainbeste aipatzen zen aitatxoren txapel jatorra.

Agur

Lehen aldiz aitatzko ikusi nuenetik hona denbora joan da, bi urte t'erdi eta bost egun justu.

Eta astebete gaur hil zitzaidala.

Hementxe, argi honetan, geunden biok goizeko osteratxoa egin eta gero. Niri begira zegoen ohe ondoko bere aulkian zuzen eserita, eskuak belauetan. Hau zuen bere ezarrera nahiena. Galdetu nion behin don Alberto sendagileari, eta esan zidan ohikeria bat besterik ez zela... eta erantsi zidan, gainera, nik ez nuela dena aztertu behar, gauzak askotan diren bezala direla, besterik gabe. Nitaz asko arduratzen da, eta batzuetan pentsatzen jartzen nau, alegia, zein ote duen hemen aztergai, aitatzko ala ni. Sortzen zaizkit honelako kezak... Aitatzko eserita, beraz, beti bezala, eta ni argi handiari so, konketaren ondoan, orain bezalaxe, zurrunga hura entzun nionean, begiak irekita lo balego bezala, eta halaxe ikusi nuen aulkitik lokarriek tiratuko panpina bailitzan, edo lokartua, zatika bezala lurrera erortzen... Jauzi bat egin nuen eserlekuan, neurez, pentsatu gabe, egina!, eta altxa nintzen aitatzko oheraino jasotzera..., entzun nionean: "Agur"...

Garbi-garbi.

Eta lo geratu zitzaidan besoetan, ohe gainean...

Irten nintzen don Albertoren bila, larrialdietarako zegoen botikinera, eta ez zegoen han, baina goardian zegoen mutila, Jexux, etorri zen nire aurretik arineketan... lehen ere behin sendatu baitzion erorketa batez buruan egindako zauri bat..., eta ikusi zuen bezain laster esan zuen:

"Deitu don Albertori!"

Irten nintzen noraezean batera eta bestera garrasi bizian, eta ez nintzen geratu harik eta kaperan, konfesatzen!, don Rosendo aurkitu nuen arte...

Ni neu itzuli nahian, galdu egin nintzen nire Etxe Handian!... aita han zegoen, bera zen luze, etzanda, gora begira, besoak bi alboetan, inoiz ikusi ez nuen bezala, eta don Rosendo otoitz egiten, don Alberto ere han, beste bi ero, sarri ni ikustera etortzen zirenak, gajoak, eta gero ni, ezertarako gauza ez nintzela... Sendagileak besotik helduta eramanez ninduen enfermeriara eta, gogoan dut hau, etzanarazi ninduen eta ziztada bat eman zidan besoan...

Ez naiz beste ezertaz gogoratzen.

Esnatu nintzenean egin nituen galderak, eta erizain zen neska batek, Julitak, esan zidan deskantsu pixka bat behar nuela, ez mugitzeko...

Ni jaiki nintzenerako aitatzko ehortzi zuten, eta han zen don Martxel, nire kalbario hartan guztian nirekin sentitu nuen gizona. Eta orain, don Rosendoren egoitzan, ni nora eramango zain nagoela pasatzen zait filme batean bezala Arrasateko nire egoera...

Eta ez zait luze egin.

Hasieran dena izan zen zaila. Oso. Halere, eguneroko meza don Rosendori laguntzen, aitatzorekin egonaldi mutuak eta ibilaldiak... Gero, don Martxelen bisitak, hamabostetik behin eta egun seinalatuetan: nire urtebetzean (behin Paula, honen

gogoz!, eta Sor Mariarekin), eta Gabonetan; ez du inoiz hutsik egin. Esan, bai, esan dit batzuetan, berak, don Martxelek, aldaketa bat ikusten zuela nire aitatzoren portaeran, zeren, egia egia baita, nik "aitatxo" deitzen nion bakoitzean argitxo bat pizten zitzaiola begietan; hau neronek egiaztatu nuen biok bakarrik geundenean!..., baina berehala itzaltzen zitzaion, ordea!, ez zuen segundo bat besterik irauten...

Don Martxelek esaten zidan gauza hauek, begirada baten argia bezalakoak, ezin direla denboraz neurtu.

Misterio honen azalpen argi bat ere egin zidan, baina ez dut osorik ulertzen. Nik neuk dakidana da gelako beiradura eder hau goizean eguzkiaren argi puntarekin piztu eta esnatzen zenean, jaiki, aurpegia garbitu eta jantzi egiten zela, ni ez banengo bezala. Hasieran ni ere jaikitzen nintzen, eta, uda zenez oraindik, goizegi zen zazpietako meza laguntzeko, eta neguan, berriz, beranduegi, don Rosendok ordua ordubete atzeratzen badu ere, beranduegi zen niretzat, eta aitatxo ez zen mugitzen beiradura argitzen hasten ez zen bitartean... Sendagileak, don Albertok, esaten zidan, Burgostik honeratu zutenean, ni etorri baino aste batzuk lehenxego, ekarri zuen informean esaten ziotela hau, medikua bera ahalegindu zela ohitura hau aldatzen, baina ezin izan zuela ezer lortu. "Zuk ez al diozu amari honelako bitxikeriarik entzun?"..., nik ezetz... "Bada, halaxe dira gauzak, eta onartu behar ditugu"...

Arrazoi zuen sendagileak: barruan zeukan argiaren erlojua zuen funtzionatzen zuena, eta ezin dugu geuk kanpotik aldatu...

"Etena baitago besteenganako komunikazioa, ulertzen?", esan zidan behin.

Nik, baietz.

Askotan hitz egin nuen don Albertorekin gai honetaz, oso baita atsegina gizona, baina ezin omen dugu garun barruan etenik dagoen zerbait kanpotik berriz lotu.

"Oraingoz"..., esan zidan behin.

"Nola diozu 'oraingoz'?", galdetu nion.

Zientziak aurrerakada handiak egiten dituela, eta etorkizunaz ezin dugula ezer aldaratu...

Honelako batean zera galdetu nion, ea aitatzok barrutik sufritzen zuen. Hark, ezetz. "Ziur?"..., "Ziur!" Nik ez dakidana da, sendagileak hau ni lasaitzeko bakarrik esan zidan ala ez!

Ateri zegoen bakoitzean irteten ginen Etxe Handi honen inguruetatik ibilaldi labur bat egitera. Ez zidan inoiz eskurik eman nahi izan, baina nire babesean bezala jarraitzen zidan ondotik; ez itsu bezala, ez Andoainen Kantoi berrikoa batzuetan ikusten nuen modura, aurrera begira balego bezala, baizik eta ezker-eskuin normalki begira, aitatzok ikusi ikusten baitzuen. Izutu ere egiten zen abiadura handian ondotik pasatzen zen edozer zela... Autoei zien beldur, eta eroa arineketan zihoala ikusten bazuen.

Bestela, oso zen otzan eta moldaerraza.

Ni orain, egoera honetan, hemen zain nagoela, pentsatzen dut askotan, aita Peli Bilboko gerran hil izan balitz, ni neroni amatxoren atzetik aspaldi hila nengokeela... Bestalde, aitatzok agertu ez balitz, edo hemen iraun balu, landareek kolore politekin ihartuta irauten duten bezala, nik ere, Pedrotxok, iraungo nukeen oraindik.

Peli, semeak aurkitu eta gero hil zen bezala, semeak aitaren eraginik gabe ez du iraungo.

Amak eta aitak tiratzen naute orain.
Betirako zerura.

Aurkibidea

Argazki zahar mugituak (Hitzaurrea)

Txapelaren ertzetik begira

Etxe handia

Joxe Arretxe

Markesaren semea

Buruntza

Hernaniko arartekoa

Jermantxo konfiterua

Musikarako dohainak

Egiazko ametsa

Duda-muda

Susmoak

Fedea

Mirariak zeruan

Santa Kruz apaiza

Ulerkuntza

Hegoak eramana

Gerra amaitu zela hamar urte

Bonborik gabe

Izuak hegoak luze

Desagertuaren semea banitu da

Treanean agertzen da

Iruñea

Orradre

Aiztoaren ahoan

Zaharra berri

Berriak

Aitatxo

Agur